

urteko txostenak



Eusko Legebiltzararentzako urteko txostena 2013

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

**Haur eta Nerabeentzako
Bulegoaren txostena**

www.ararteko.net



**urteko
txostenak**

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena

2013



**Haur eta Nerabeentzako
Bulegoaren txostena**

Vitoria-Gasteiz 2014

Lan hau Creative Commons-en Attribution 3.0 Unported lizentziarekin dago



Lizentziaren kopia bat ikusteko,

- sartu hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/>

- edo gutun bat bidali helbide honetara: Creative Commons, 171 Second Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.

Euskadi. Arartekoa

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2013. Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena [Baliabide elektronikoa] / Ararteko. – Vitoria-Gasteiz : Ararteko, 2014

Lineako baliabidea (87 or.). – (Urteko txostenak)

Sartzeko modua: [World Wide Web](#)

ISSN 2255-4947

1. Euskadi. Arartekoa 2. Jarduerari buruzko txostena 3. Giza eskubideak 4. Haurren babesa

351.941(460.15)“2013”(060.55)

Formatuak eta edizioak:

Paperean, CD-ROMean, [RTF eta XML](#) formatuetan ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2013. Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2013. Laburpena](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Multimedia: UTE MANIPULADOS - EPS

ISSN 2255-4947



Aurkihidea

Aurkibidea

Aurkezpena	11
-------------------------	----

■ I. Atala

Arau- eta antolaketa-testuingurua	13
--	----

1. 2010-2014 Jarduera-esparrua	15
1. Arau- eta eskumen-esparrua	16

■ II. Atala

Eskubideak urratzea?

Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak	21
--	----

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: gerturatze kuantitatiboa	23
2. Aztertutako gaiak	25
2.1. Hezkuntza	25
2.2. Familiak	29
2.3. Babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuak	30
2.4. Kultur jarduerak, kirola eta aisia	36
2.5. Osasuna	37
2.6. Mendekotasun-egoeran dauden adingabeak	40
2.7. Pobrezia pairatzeko arriskuan dauden adin txikikoak	48
2.8. Beste batzuk: justizia, "lapurtutako jaioberriak"; Informatzeko eta komunikatzeko teknologiak (IKTak); gainerako esparruak	53

■ III. Atala

Gure haur eta nerabeen ahotsa: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua	59
---	----

■ IV. Atala

Haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko jarduerak..... 63

- 1. Gizarte-eragileekiko lankidetza 65
- 2. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetza..... 66
- 3. Ekitaldietan parte-hartzea 66
- 4. Hezkuntza-proposamenak 67
- 5. Adingabeentzako web gunea 68

■ V. Atala

Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea..... 69

■ VI. Atala

Eranskinak 77

- Grafikoen aurkibidea 79
- Arloko araudia..... 81
- Arartekoaren argitalpenak 85

Aurkezpena

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2013. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Gogorarazi nahi dugu erantsitako txostenaren formatua daukala, hau da, osotasun integratu baten (Arartekoak Legebiltzarrentzako egin duen 2013. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek adingabearen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratuta dago. Lehengoan bulegoaren jardueraren araudi-testuingurua azaltzen da, bai eta txostenak hizpide duen urterako ezarritako plangintzaren barruan dauden lan-ildoak ere.

II. kapituluak, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, haurren eta nerabeen eskubideen inguruan antzemandako arazo nagusiak aipatzen dira. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikas-kuntzak birpasatzen dira.

III. kapituluak haurrek eta nerabeek parte hartu dezaten eratu dugun organoan garatutako jardueraren aipamen berezia egiten du: Haurren eta Nerabeen Kontseilua. Haren egitura, funtzionamendua eta, batez ere, 2013. urtean zehar jorratu diren gaien inguruan, gure haurren eta nerabeen berezko ahotsa atal horretako orrialdeetan jaso dira.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jardue-
ra bildu ditu: ezagutza trukatzeko foroetan parte hartzea, beste gizarte eta erakundeen arteko eragileekin lankidetzan aritzea, hezkuntzako materialak argitaratzea edo 6-11 urteko haurrentzako Ararteko erakundearen web orrialdea bertan aipatzen diren ekimenetako batzuk dira.

Azkenik, V. kapituluak ixten du agiria. Bertan, [haur eta nerabeen eskubideen egoeraren balorazioa](#) egiten da, laburbilketa gisa.



Arau- eta antolaketa- testuingurua

a t a l a

I. Atala

Arau- eta antolaketa-testuingurua

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2013. urtean zehar garatu duen jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu da, bai eta 2010-2014 denboraldirako bulegorako marraztu diren jarduera ildoak kontuan hartuta ere. Plangintzaren aukera horiek gizarte-eta arau-testuinguru jakin batean gertatzen dira. Plangintza erantzunak ematen saiatzen da baina testuinguruak egiteko modu zehatza mugatu eta baldintzatu egiten du. Hori dela eta, adingabeen esparruan egindakoa xehetasunez azaltzen hasi baino lehen, hurrengo orrialdeetan, Haur eta Nerabeen Bulegoaren lan-lerroak gogora ekarriko ditugu. Halaber, jardueraren arau-testuingurua osatzen duten lege, dekretu eta erregelamendu nagusiak aurkeztuko ditugu.

jarduera hauek daude: sarean, modu kolektiboan eta lankidetzara erabiliz egindako lana sustatzera eta haurren eskubidearen kultura zabaltzera zuzendutako jarduerak, bereziki, adingabeen parte hartzea eta euren ahotsa entzunarazteko aukera bultzatzen dituztenak.

Ararteko erakundeak gain hartu duen “matrize-eredua” dela-eta, eremu materialetan espezializatutako sektore-arloak zeharkako begiradek osatzen dituzte, kasu honetan, haurren eta nerabeen eskubideenak. Horren xedea elkar aberrastea eta lan koherente eta sinergikoa lortzea da. Haur eta Nerabeentzako Bulegoa berezko langileen hornidura txikiarekin egituratu da, haurrei eta nerabeei maiztasun handiarekin eragiten dieten gaien arloko aholkularien laguntzarekin batera. Horiek guztiak, arartekoak, arartekoaren ondokoak, gizarte harreman, ikerketa eta modernizazioko zuzendariak eta idazkari nagusiak **Haur eta Nerabeentzako Bulegoko Aholkularien Kontseilua** osatzen dute eta jarduera-esparru orokor hori abiapuntutzat hartuta, urtero egiten diren lanerako planen definizioan eta konpromisoan eginkizun nabarmena daukate.

2013ko Jarduera planak, esku artean dugun denboraldirako, lehen aipatu ditugun lan-ildoak zehaztu ditu. Plan hori gure bidai orria da eta horri esker adierazitako bidean zehar aurrera egin dezakegu ahaleginak batuz eta gure helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean lortzeko beharrezkoak diren sinergiak sortuz. Ondorengo kapituluetan aipatuko diren jarduerak plan horren emaitza dira.

1.

2010-2014 Jarduera-esparrua

Haur eta Nerabeen Bulegoaren 2010-2014 jarduera-esparruan, [2010. urteko txostenean](#) aurkeztu zen horretan, esku-hartze ildo nagusiak nolabaiteko zehaztasunez azaltzen ziren. Hala, erakundearen gainontzeko eremuetan bezala, bulegoak adingabeek aurkezten dituzten edo eurengan eragina duten keak eta eskaerak jaso eta aztertzen ditu. Keak eta eskaerak modu zuzenean edo legezko ordezkarien bitartez aurkeztu ditzakete. Lan hori modu batean norbaitek (pertsonek, kolektibok) edo zerbaitak (komunikabideen bitartez edo beste bideren bitartez) ezagutu den eskubideen urraketa posible bat) aurkezten digunaren aurrean “erreakzionatzean” datza eta lan-ildo proaktiboagoen bidez osatzen da. Azken horien artean

2.

Arau- eta eskumen-esparrua

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

1990. urtean Espainiak **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH)** berretsi zuen, 1989ko azaroaren 20an **Nazio Batuen Erakundearen (NBE)** batzarrak hartu zuena. HEH modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da; aldi berean, estatuak errespetatzeko, bermatzeko eta betearazteko daukaten betebeharrak ezartzen dituena.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundearen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena.

Bereizkeriarik ezaren printzipioaren arabera, haur bakar batek ere ez du bereizkeriarik jasango haurraren, gurasoen edo ordezkari legalen arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, estatus ekonomikoa, oztopo fisikoak, jaiotza edo beste edozein baldintzaren ondorioz. Hala ere, printzipio horrek nesken eta mutilen, atzerritarren eta bertakoek, ezintasunen bat duten haurren eta ez dutenen eta abarren arteko aukera berdintasuna ere barne hartzen du.

Adingabearen interes gorena, hitzez hitz, honela formulatu da: "Herri-administrazioek edo administrazio pribatuak, epaitegiek, administrazio aginpideek edo erakunde legegileek haurren inguruan hartzen dituzten neurri guztietan ezinbestekoa izango da adingabearen interes gorena aintzat hartzea".

6. artikulutik aurrera hiru eskubide talde handiak zerrendatu dira, HBP letren bitartez adierazi daitezkeenak: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera edukitzeko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzea; **babesa**, hau da, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **parte hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nor bere burua aditzera emateko eta banaka zein kolektibo batean ahotsa edukitzeko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzei dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak baziren ere (hautazkoak) Espainiak bi protokolo sinatu (2000) eta berretsi (2002) zituen. Protokolo horiek babesaren arloaren barruko bi alderdi zehatz jorratzen dituzte: **HEHren Hautazko Protokoloa**, **gatazka armatuetan haurren parte hartzei buruzkoa** eta **HEHren Hautazko Protokoloa**,

haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografian haurrak erabiltzearen gainekoa. **HEHren III. Hautazko Protokoloa**, **komunikazio prozedura baten ingurukoa** da. Espainiak 2012an sinatu zuen eta 2013ko ekainaren 3an berretsi dute. Berretsi zuten datan, Espainia hori egiten zuten seigarren herrialdea zen, protokoloa sinatu zuten 36 herrialdeetatik. III. Protokoloa indarrean jarriko da 2014ko apiriletik aurrera, 10. estatu kideak berretsi eta handik hiru hilabetera (Costa Rica izan da protokoloa berretsi duen 10. herrialdea, 2014ko urtarrilean hain zuzen; lehenik hori egina zuten, Albaniak, Alemaniak, Boliviak, Gabonek, Eslovakiak, Montenegrok, Portugalek, Tailandiak eta Espainiak berak).

Protokoloaren garrantzia azpimarratzean 2012ko txostenean adierazi genuenez, protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariak salaketa jarri ahal izan diezaioten beren eskubideak babesten **espezializatutako** nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratuak izan direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla. Gainera, horrela, haurren ahotsa zuzenean helduko zaio Haurren Eskubideei buruzko Batzordeari. Batzorde horrek eskura izango ditu informazio hori eta orain arte estatuen eta gizarte-erakundearen txostenen bidez heltzen zaion informazioa, "estatu parte-hartzaileen aurrerapen bikainak aztertze"ko, HEH eta horri lotutako protokoloak betetzei dagokionez.

Genevan 2013ko maiatzaren 27tik ekainaren 14ra egin zen Haurren Eskubideen Batzordearen bilkuren 63. aldian, Batzordearen azken lau Behaketa Orokorrak onartu ziren. Dakigun bezala, Haurren Eskubideen Batzordeak Haurren Eskubideen Hitzarmenean sinatu duten estatuak hitzarmen hori eta beren eskumen-protokoloak betetzen dituzten jarraitzen dute, Haurren Eskubideen Hitzarmena ezarri behar den esparruetan egoki interpretatzeko orientabideak ematen ditu. Behaketa Orokorrek azken helburu hori dute. Haurren eskubideak sustatzeko lanaren ardura hartuta, gure ustez, orientazio-tresna horiek hedatzea lagungarria da eskubide horien ulermena eta hobetzea hobeztzeko. Hori dela eta, tresna horiek aurkeztuko ditugu hainbat lerrotan:

■ **14 zenbakidun Ohar Orokorra**, adingabearen interes gorenaren printzipioari buruzkoa, gai hori lehentasunezkoztat jo zedin (3. artikulua, 1. paragrafoa).

Ohar orokor horren helburua da bermatzea estatuak eragina ematea adingabearen interes gorenari eta hura errespetatzea. Betekizunak definitzen ditu behar bezala aintzat har daitezen, batez ere erabaki judizialean eta administratiboetan, bai eta hurrei banaka eragiten dieten beste neurri batzuetan ere, eta oro har hurrei edo talde jakin bati buruzko legeak, politikan, estrategiak, programak, planak, aurrekontuak, lege- eta aurrekontu-ekimenak eta zuzentzarauk onartzeko prozesuaren etapa guztietan. Xede orokorra da benetako jarrerakaldaketa bat sustatzea, haurrak, beren eskubideen jabe diren aldetik, erabat errespetatzea bideratuko duena.

Batzordeak nabarmentzen du adingabearen interes gorena kontzeptu hirukoitza dela:

■ Funtsezko eskubide bat: haurraren interes gorena lehentasunezko gaitzat hartua izateko eskubidea, ebaluatzen dena eta kontuan hartzen dena eztabai-

datutako gai bati buruzko erabaki bat hartzean interes desberdinak aztertzean. Halaber, bermatu behar da eskubide hori praktikan jarriko dela, haurrari, haur talde jakin bat edo generiko bati eta haur guztiei oro har eragiten dien erabaki bat hartu behar den aldiro. 3. artikulua 1. paragrafoan ezartzen da estatuek zuzenean aplikatu beharreko (berehalako aplikagarritasuna) berezko betebeharrak bat dutela, eta auzitegiaren laguntza eskatu daitekeela.

- Interpretaziozko oinarriko printzipio juridiko bat: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago egiteko aukera ematen badu, haurraren interes gorena modurik eraginkorrenean aseko duen interpretazioa hautatuko da. Hitzarmenean eta beren eskumen-protokoloetan emandako eskubideek osatzen dute interpretazio-esparrua.
- Prozedura-arau bat: haur jakin bati, haur talde jakin bati edo haur guztiei oro har eragiten dien erabaki bat hartu behar duen aldiro, erabakiak hartzeko prozesuak aztertu egin beharko ditu erabakiak zer ondorio (positibo edo negatibo) izan ditzakeen haur interesdunarengan edo haur interesdunengan. Haurraren interes gorena ebaluatzeko eta zehazteko beharrezkoak dira auzibide-bermeak. Horrez gainera, erabakiak arrazoitzean agerian geratu behar da eskubide hori esplizituki aintzat hartu dela. Ildo horretan, estatu kideek azaldu behar dute nola errespetatu duten eskubide hori erabakia hartzean; hau da, haurraren interes gorena aintzat hartzen zuela hausnartu dela, zer irizpide izan dituen oinarri erabakiak eta nola goratu diren haurraren interesak beste iritzi batzuekin aldeatuta.
- **15 zenbakidun Ohar Orokorra**, haurrak ahalik eta osasun-mailarik altuena izateko eskubidea (24. artikulua).

Ohar orokor horren helburua da estatu kideei eta beste babes-instantzia batzuei orientazioa eta babesa ematea, ahalik eta osasun-mailarik altuena izateko haurraren eskubidea errespetatzen, babesten eta eraginkor egiten laguntzeko. Batzordearen ustez, osasunerako eskubidea eskubide inklusibo bat da, beharrezko prebentzio egoki batez, eta osasunaren eta zerbitzu aringarrien, sendaketa-zerbitzuen eta errehabilitazio-zerbitzuen sustapenez arduratzeaz gain, hazteko eskubidea, eta bere aukerak ahalik eta gehien garatzeko eta ahalik eta osasun-mailarik altuena izateko aukera emango dioten baldintzetan bizitzeko eskubidea ere baitan hartzen dituen, osasuna baldintzatzen duten azpiko faktoreei erreparatzen dieten programak egitearen bidez.

Oharrak Haurraren Eskubideen Hitzarmenaren 24. artikulua edukia aitzinatzen du, batez ere 1. eta 2. paragrafoetako, interpretazioa bideratuz eta hura ezartzeko formulak proposatuz, kontuan izanda osasun-arazo berriei eta osasunaren arloko lehentasun aldakorrerik emandako arreta, haurren heriotza, gaixotasuna eta desgaitasuna areagotzen laguntzen duten faktoreak (besteak beste, egiturazko faktore erabakigarriak, klima-aldaketaren eta urbanizazio azkarraren ondorioak) hobeto ulertzen direla, teknologia berriak garatu direla (txertoak eta produktu farmazeutikoak), oinarri enpirikoa

sendoagoa dela eta hazkuntzaren arloan kultura-praktika batzuk haurrentzat positiboak izatea frogatu dela.

- **16 zenbakidun Ohar Orokorra**, enpresa-sektoreak haurren eskubideetan duen eraginarekin lotutako estatuaren betebeharrak buruzkoa.

Gaur egun, ez dago nazioarteko tresna juridikorik enpresa-sektoreak giza eskubideekin lotuta dituen erantzukizunen gainean jokatzeko duena. Hala ere, Batzordearen ustez, haurren eskubideak errespetatzeko betebeharrak eta ardurak praktikan estatuaren zerbitzuez eta erakundeek eta estatuak kontrolatutakoek haratago doaz, eta eragile pribatuei eta enpresei ere aplikatu behar zaizkie. Beraz, enpresa guztiek bete behar dituzte haurren eskubideekin lotutako ardurak, eta estatuek eskubide horiek betetzen dituztela zaindu behar dute.

Estatuak enpresa-jarduerari dagokionez dituen betebeharren eta Haurren Eskubideen Hitzarmeneko printzipio orokorren artean dagoen lotura aztertzen du ohar orokorrak. Ondoren, haurren eskubideei eta enpresa-sektoreei dagokionez estatuaren betebeharren izaera orokorra eta helmena zehazten da. Ondoren, aztertzen du zer helmen duten betebeharrak enpresa-jardueren eta eragiketen eragina haurren eskubideetan garrantzitsuagoa den testuinguruetan, esate baterako, enpresak zerbitzuen hornitzaileak direnean, haurrek ekonomia informalean lan egiten dute, estatuek nazioarteko erakundeekin batera lan egiten dute eta enpresek atzerrian operatzen dute haurren eskubideen estatuko babesa nahikoa ez den eskualdeetan. Bukatzeko, oharra aplikatzeko eta hedatzeko modu bat zirriborrotzen du.

- **17 zenbakidun Ohar Orokorra**, atsedenerako, aisiarako, jolaserako, jolas-jardueretarako, kultura-bizitzarako eta arteetarako haurren eskubideei buruzkoa (31. artikulua).

Batzordea kezkatuta ageri da, estatuek ez baitituzte behar adina aitortzen 31. artikulua horretan jasotako eskubideak. Hau da, ez dute inbertsiorik egiten xedapen egokietan eta babes-legediak ahulak dira edo ez daude. Oro har, inbertsio bat egiten denean, inbertsioa jardueraren egituratuak eta antolatutako egiteko erabiltzen da, baina hori bezain garrantzitsua da haurrek naturaltasunez jolastu, ondo pasa eta sortzeko denbora eta espazio bat sortzea, eta jarduerari babestuko duten gizarte-jarrerak sustatzea. Horrez gainera, munduan gertatzen ari diren aldaketak eragin handia izaten ari dira haurrek 31. artikuluko eskubideak erabiltzeko dituzten aukeretan. Herrialde aberatsetako nahiz pobreetako haur askoren kasuan, haurren lanak, etxeko lanek edo hezkuntzak gero eta eskakizun gehiago egiteak eskubide horiez gozatzeko denbora nabarmen murrizten dute.

Beraz, kezka horiei heltzeko xedeaz egin da ohar orokorra, estatuaren atsedenerako, aisiaren, jolasaren, jolas-jardueren, kultura-bizitzaren eta arteen funtsezko garrantziaren ikuspena, kontzientzia eta ulermena areagotzeko. Jolasak eta olgetak haurraren garapen pertsonalerako eta gizarte-garapenerako zeregin ordezkazina betetzen dutela gogora ekarri ondoren, eskubide horiez gozatzeko ingurune egokia zehazten duten faktoreak aztertzen dira, bai eta 31. artikulua praktikan jartzeko zer arazo gaitu behar diren ere. Hauek dira arazo horiek,

labur-labur azalduta: jolasaren eta olgetaren garrantzia ez aitortzea (alferrik galdutako denboratzat hartzen da, jarduera ez-emankorrek egiteko erabiltzen dena eta berezko baliorik ez duena); ingurune osasungaitzak eta arriskutsuak; haurrentzako espazioak erabiltzeari erresistentzia; izan ditzaketen arrisku fisikoengatik eta giza arriskuengatik beldurrak; naturan ibiltzeko aukera-eza; ikastetxean arrakasta izateko betekizunak; gehiegi egituratutako eta programatutako ordutegiak; haurrentzako kultura- eta arte-aukeretan inbertsiorik ez egitea; baliabide elektronikoek gero eta presentzia handiagoa izatea (aukera handi gisa sortu dira, baina arrisku handiak dakartzate haurren garapenerako); eta jolasaren merkataritza-sustapena eta merkaturatzea. Horiek horrela eta arazo horiei erreparatu, jarraibide batzuk ematen dira, estatu kideek haurrek, inolako bereizketarik gabe, artikulatu horretan aitortzen zaizkien eskubideez gozatu ahal izatea berma dezaten.

Nazioartean, lehen haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko marko unibertsala den Nazio Batuen Hitzarmena aipatu da, baina komeni da jakitea badaudela Espainiak berretsi dituen adingabeei eragiten dieten gai sektorialeko buruzko zenbait nazioarteko itun –hainbat nazioarteko erakundek sustatu dituzte itun horiek, hala nola Nazio Batuen, [Nazioarteko Lan Erakundea](#), [Europako Kontseilua](#), [Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren Konferentzia](#): Haurren lana, adingabeak oatea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar. Gainera, Espainiako Estatuak gai horri dagozkion nazioarteko foroekiko duen lotura eta konpromisoaren adierazle gisa azpimarratu behar da Nazio Batuen Haurrei buruzko Biltzar Berezian (2002ko maiatzean egin zen) parte hartu zuela eta “[Un mundo apropiado para los Niños y Niñas](#)” izeneko dokumentuan jasotako Adierazpena eta Ekintza-plana onartu zituela.

Europar Batasunaren markoan ere berariaz haurren eskubideak aipatzen dituzten arauak daude. Arau horien artean nabarmenduko dugu [Europako Parlamentuaren 1992ko uztailearen 8ko A-3.0172/92 Ebazpena](#), [Haurren Eskubidearen Europako Gutuna onartzen duena](#). Ebazpen horrek hauek proposatzen ditu: haurren eskubideen defentsariaren figura, estatu-mailan nahiz Europa mailan. Defentsari horrek eskaerak eta kexak jaso beharko ditu, haurrei babesa ematen dieten legeak aplikatzen direla zaindu, eta botere publikoen jarduna haurren eskubideen alde bideratu. Halaber, haurren eskubideen erkidegoko gutun bat egin beharko litzateke, proposatzen den gutxieneko edukia duena.

Halaber, [Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna \(Lisboako Itunaren zatia\)](#) ere aipatzekoa da. Gutun horrek, adingabeei dagokienez, adingabeen entzunak izateko eskubidea, adingabearen interes gorena kontuan hartzea eta gurasoekin harremana izateko eskubidea ospetsu egiten ditu. Garapenean, bi gertaera gogoangarri: lehenbizikoa, «[Haurren Eskubideen gaineko Europar Batasuneko Estrategiarantz](#)» izeneko jakinarazpena, Europako Batzordearena (2006), zeinak hainbat egitura ezarri baititu EBko erakundeek haurren eskubideei lotutako arazoei aurre egiteko duten ahalmena indartzeko, eta egintzetan oinarritutako politiken zimenduak finkatu baititu, interesdunekiko elkarrekintza arintzeko asmoz; eta, bigarrena, [Haurren Eskubideen Aldeko EBko Agen-](#)

[da](#) (2011), zeinak batez ere eremu jakin batzuetan jartzen duen arreta, EBk eremu horietan benetako balio gehigarria ekar dezakeelako, adibidez, haurrentzako justizia eskuragarri egiteko arloan, egoera zaurgarrietan dauden umeak babestuz eta Europar Batasunaren barruan zein kanpoan haurrengan eragina daukan indarkeriaren kontra borrokatuz. Agenda horretatik eratorritako ekintza batzuk txosten honen beste puntu batzuetan agertuko dira, erakunde honek parte hartu duen topaketa, foro edo dispositiboak baitira.

Edonola ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipioak goian azaldutakoak jada Espainiako Estatuko ordenamendu juridikoaren zati dira, **Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan** sartu ziren heinean (lege horren bidez partzialki aldatu ziren Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea. Lege hori botere publiko guztiak, berariaz haurrekin lotutako erakundeak, gurasoak eta senideak, eta biztanleria oro har lotzen dituen babeserako marko juridikoa da estatu-mailan. Lege horretan jasotzen dira nazioarteko araudiaren legearen eta haurren eskubideen aplikazio-esparrua, eta bereziki aipatzen da Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Herri-administrazioen jardunaren printzipio gidariak ezartzen dira, eta haurrearen babes gabeko egoeretan zer egin zehazten da, bai eta haurrak babesteko erakundeak ere.

Argitaratu zenetik igaro diren 18 urte luzeetan, gizartean aldaketa handiak gertatu dira, adingabeen egoeran eragina dutenak, eta hainbat organismok hartutako erabakiek eta egindako gomendioek (Haurren Eskubideen Batzordea, Arartekoa, Estatu Fiskaltza Nagusia eta Senatu Batzorde Berezia nazioarteko adopzioa eta beste antzeko gai batzuk aztertzeko) aholkatzen zuten araua aldatzea, errealitate berrietara egokitzeko. Behar horri jaramon eginez, azken bi urteetako bulego honetako txostenetan iragartzen zen bezala, Espainiako haurren babesari buruzko legedia osoa aldatzeko anbizio handiko ekimen bat abian da jada. Hauek izango dira berrikuntza nagusiak:

- Adingabearen interes gorenen printzipioaren edukia garatzea, aurreko paragrafoetan azaldu berri dugun Haurrearen Eskubideen Batzordearen 14 zenbakidun Ohar Orokorrean jasotakoari jarraiki.
- Entzuna izateko haurrearen eskubidea zehaztasun handiagoz garatzea.
- Administrazio-jarduketaren printzipioak egokitzeko eta zenbait eskubide behar berrietara egokitzeko, hala nola bakarrik dauden adingabe etorkinek edo haurren aurkako indarkeriak dituzten beharrak.
- Haurrak babesteko sistemako erakundeak sakon aldatzea:
 - Printzipio gidariak: lehentasuna ematea neurri egonkorrei aldi baterako neurri baina lehen, familiariko neurri erakundeenei baina lehen, adostutako neurri ezarritakoei baina lehen, nazioko neurri nazioartekoei baina lehen.
 - Arriskuko eta babes gabeko egoerak arautzea; eta babes gabeko arrisku-egoerak zehazteko garapena eta prozedura.

- Familiako harrera arautzea: harrera legezko egitea, pertsona abegi-emaielen egokitasuna zehazteko irizpideak, abegi-familien eta harreraren hartutako haurren eskubideak eta zereginak.
- Jarreraren nahasmenduak dituzten adingabeentzako harrera-baliabideak arautzea.

Nahiz eta araudi horren zati handi batek berekin dakarren lehen aipatutako 1/1996 Lege Organikoa aldatzea, haurren babesari buruzko legedia eguneratzeko aurreproiektuek ere aldaketa nabarmenak egiten dituzten Kode Zibilean, nazioarteko adopzioari buruzko 54/2007 Legean, auzipetze zibilari buruzko Legean eta genero-indarkeriaren aurka erabat babesteko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan. Azken horrekin lotuta, azpimarratu behar da haurrak genero-indarkeriaren biktima zuzenak direla aitortzen duela. Eskaera hori behin eta berriz egin zuten haurrekin lan egiten duten erakundeek nahiz eskubideen alde egiten duten organismoek, gu geu horien artean. Haurrari biktima estatua ematen zaion unetik aurrera, neurri zibilak eta penalak hartuko direla bermatu ahal izango da, prozedurako beste subjektu bat bezala.

2013an Haurren eta Nerabeen Nazioko II. Plan Estrategikoa 2013-2016 (II. PENIA) onartu da, eta 8 helburu jasotzen ditu. Helburu horietako lehenak, era berean beste hiru helburutan banakatzen denak, edozein plangintza-planeamenduren informazio-, koordinazio- eta lankidetzak beharrak aintzat hartzen ditu. Gainerako helburuak zuzenean lotuta daude haurren eta nerabeen babesa eta tratu onaren eskubideen esparruan hobetzearekin (familiei babesa;

informazioaren baliabideak eta teknologiak; babesa eta gizarteratzea; prebentzioa eta errehabilitazioa gizarte-gatazkako egoeretan; kalitateko hezkuntza; osasun integrala; haurren parte-hartzea; eta ingurune egokiak).

Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak, ahal legegilea duenak, adingabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren arloan autonomiako legeria garatu zuen [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko onartu zuenean. Lege horren bigarren Tituluan, "Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera" izenekoa, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean sortu ziren eskubideak zerrendatzen dira. Legearen gainerako ataletan babesik gabeko egoeran dauden haurren babesa arautzen da. Beraz, araudi sektorialari buruz hitz egitean berriz ere aipatuko dugu legea.

Bukatzeko, adierazi behar da adingabeen eskubideak eta haurren babesean eta zainketan hartutako konpromisoak zehaztea oso lan luzea dela, hainbat arlori eragiten baitie, besteak beste: osasunari, hezkuntzari, gizarte-babesari, arrisku-egoerei eta babes gabeko egoerei, birgizarteratzeari eta haurren osotasunaren babesari. Hori dela eta, lege, dekretu eta gainerako garapen ugarietan aipatzen da, arau-marko zabal bat eratuz. Marko horretatik elementu nagusi hauek nabarmendu ditugu dokumentu honen [II. eranskinean](#). Arloko araudi horretan 2013an egin diren berrikuntzak txosten honetako II. atalean azalduko dira, arlo bakoitzeko azalpenarekin.



Eskubideak urratzea?

**Kexak, kontsultak
eta ekimen propioako
jarduerak**

a t a l a

II. Atala

Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espeditenteak bideratzean datza, hau da, espeditente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexa- eta kontsulta-espeditenteen analisiari hurbiltzeak batik bat helburu diagnostikoa du bulegoaren berriazko agiri honetan. Bere oinarritzko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezagarriak haute-matea da, eta espeditente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentzore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

hartzea merezi dute, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarekin zerikusia duten 883 kexak; ehuneko handi batean familiaren barruan adin txikikoak dituzten familiek azaldu dituzte kexa horiek. [Haurren Euskal Behatokiak](#) egindako azterlanean ([Haurren pobrezia Euskadin](#)) adierazitako ehunekoak ezartzen baditugu (horien arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetzaren unitateen artean, %26,7k dituzte beren kargura 16 urtetik beherako adin txikikoak), pentsa genezake gutxi gorabehera beste 236 kexa-espeditentetan agertzen direla tartean haurrak eta nerabeak; horiek guztiek ezaugarri komun hau dute: baliabide ekonomiko urriak dituzte.

Alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditentetan, honako bi kasuok agertzen dira:

- Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.
- Adin txikikoek ordezkariek egindako kexak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.


Horrela, kexa **nork egiten duen** ikusita, hauxe esan dezakegu: 2013an, kexen %1,8 bakarrik egin dituzte adin txikikoek berek, eta ia kasu guztietan, horiek legezko adin nagusitasunaren mugan zeuden. Gainontzeko %98,2 helduek egin dituzte eta eragindako adingabeak tartean zeuden egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 17tan, edo %6tan, zenbait haur edo neraberik, hau da, adingabeen talde zehatz bati dagozkien egoerak azaldu dizkigute, eta kexaren titular izan dira elkarte bat, erakunde kolektibo bat edo norbanako bat, eragindako pertsona-multzorekin ordezkarik gisa.

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditenteak: gerturatze kuantitatiboa

2013an, 319 kexa-espeditentetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %10,4tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (284): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (35), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertze eta horien bilakaera ikusteko. Ez dira zenbatu, baina kontuan

(1. grafikoa)

Kexen banaketa, adingabearekiko harremanaren arabera




Iturria: guk geuk egina

Gaikako esparruen araberako espedienteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko mui nagusia osatzen du), ondorengo grafikoa islatutakoa da:

(2. grafikoa)

Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera




Hezkuntza	136	%48,0
Gizarte zerbitzuak: babesik gabeko haurrak	31	%10,9
Ingurumena	23	%8,1
Justizia	20	%7,0
Familiak	19	%6,7
Osasuna	16	%5,6
Beste batzuk	11	%3,9
Etxebizitza	8	%2,8
Aisia eta eskolako kirola	6	%2,1
Administrazio egoera	6	%2,1
Segurtasuna	4	%1,4
Gizarte zerbitzuak: mendeko haurrak	4	%1,4

Iturria: guk geuk egina

Honako esparruak aztertu dira ofiziozko ikerketetan, hau da, norbanakoaren kasua gainditzen duten arazoak edo, erakunde honen ustez, haurren eskubideren bat arriskuan egon daitekeen egoerak aztertzeke hasitakoetan:

(3. grafikoa)

Ofiziozko espedienteen banaketa, gai-esparruaren arabera




Gizarte zerbitzuak: mendeko haurrak	9	%25,7
Ingurumena	6	%17,2
Gizarte zerbitzuak: babesik gabeko haurrak	5	%14,3
Haurren pobrezia	4	%11,4
Administrazio egoera	4	%11,4
Osasuna	3	%8,6
Hezkuntza	2	%5,7
Etxebizitza	2	%5,7

Iturria: guk geuk egina

Alde batek eskatuta bideratu ditugun 284 kexetatik, txosten hau idatzi den unean eskura daukagun informazioari jarraiki, 43 ez dira onartu eta gainontzekoak itxita daude (bakoi-tza bere emaitzarekin), edo tramitazio-fase jakin batean.

(4. grafikoa)

Baztertutako eta tramiterako onartutako kexen ehunekoa


Iturria: guk geuk egina

Kexak ez onartzeko hiru **arrazoi** nagusiak honako hauek dira, oraindik ere: epailearen erabakiaren zain egotea (%32,6); aurretiaz erreklamaziorik ez egin izana edo, egin ondoren, erantzuna jasotzeko legezko epean egotea (%20,9); eta legez kontrako ezer ez egotea, argi eta garbi (%14). Gainontze-koak norbanakoen arteko gatazkak dira, gure eskumen-eremutik kanpo daude, beste defentsa-erakunde batzuei bidali dizkiegu edo kexagileak ez zuten bidezko interesik salatutako gaien.

Edonola ere, kasu horietan kexan azaldutako egoeraren gaineko ikerketa edo esku-hartzea posible izan ez bada ere eta bistakoa den irregularitasun baten ondorioz gaitzetsi diren kexak alde batera utzita, izapidetzeko onartu ez diren kexen azterketak informazio baliagarria eman digu herritarrek euren eskubideak arriskuan ikusi dituzten egoerei buruzkoa.

Bestalde, Defentsa Bulego honen irizpidea honako hau da: alde batera utzita aipatutako eskumen-eragozpenen ondorioz erreklamazio bat formalki izapidetu dezakegun edo ez, erreklamazio hori jarri duenari gure esku dagoen laguntza guztia eman behar diogula, betiere haren funtsa egiaztatu badugu. Modu horretan, gure esku-hartzea, nahiz eta beti ezin zaion zuzenean lotu adierazitako asegabetasunaren zioari, eraginkorra izan dadin saiatzeko gara, behintzat horrek erreklamatzailaren bizitzan izan dezakeen eraginari dagokionez. Horixe da hurrengo orrialdeetan ere jaso ditugun jardueretako batzuen helburua.

(5. grafikoa)

Baztertutako kexak: baztertze arrazoiak

Iturria: guk geuk egina

2.

Aztertutako gaiak

2013. urtean, adingabeen eremuan Ararteko erakundearen jardueraren ikuspegi kuantitatiboak agiri honetako atalik luzeena osatzen du, antzemandako arazoan eta kezken, burututako jardueren eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzen edo ondorioen aurkezpen kualitatiboa barne hartzen baitu. Zenbatu diren kexen portzentajeak iradoki duen ordenan, informazio hori gaikako esparruen arabera antolatuta aurkeztu da.

2.1. Hezkuntza

Aurreko grafikoetan adierazi bezala, aurreko izapidetu diren eta adingabeekin lotura zeukaten kexen ia erdiak (%48k) hezkuntza sistema formalari lotutako egoerak ditu hizpide. Arlo horretan gertatutakoa azaltzeko, hemen errepikatuko dugu Eusko Legebiltzarrarentzako txosten orokorrean herr-administrazioen jarduera ikuskatzeari buruzko kapituluan bildutakoa, [Hezkuntzari](#) dagokiona; izan ere, gehienbat haur eta nerabeengan dauka eragina.

2013ko abenduaren 10ean Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) [abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa](#) argitaratu da, hezkuntza kalitatea hobetzeko asmoz (LOMCE).

Lege hori oso polemikoa izan da eta hezkuntzako sektore askotan ez dute onartu. Gauzak horrela, Konstituzio Auzitegian errekurtsioak jarriko direla ere iragarri da.

Hala, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatu du “Heziberri 2020” plana abian jar dadila -LOMCE horri erabateko ukoa eman nahi dion ekimen gisa aurkeztutakoa-, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta euskal hezkuntza komunitateko eragile nagusiek hainbestetan adierazi duten moduan.

Plan horrek hiru proiektu bildu ditu, desberdinak baina,aldi berean, osagarriak, eta hezkuntza-sistemaren kalitatea eta bikaintasuna hobetzea du xede, hau da:

- Lehen proiektua: “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparru propioa” egin eta adostu.
- Bigarren proiektua: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum ezartzen duten dekretuak egin eta adostu.
- Hirugarren proiektua: Hezkuntzaren Euskal Legerantzurratsak eman.

Ikasleen onarpenerako urteko prozesuaren ondotik makina bat kexa abiarazi dira. Horietako gehienetan **errodari lotutako datuen gehiegizko erabilera** salatu da. Horrek beste behin agerian jarri du ez dagoela neurririk ikastetxe jakin batzuetan sartzeko aukerak indartu nahi dituzten jardunbide horiekin amaitzeko (adibidez, **familia-etxearekiko hurbiltasunaren lehentasunezko irizpidea** baliatzen dute).

Dena den, onarpenerako lehentasunezko beste irizpide batzuen aplikazioari buruzko kexak ere jaso ditugu -**familia errenta**-. Azken kexa horietako baten ondotik [Arartekoaren 2013ko urriaren 28ko ebazpena](#) eman dugu. Horren bidez, hezkuntza-arloko arduradunei gogora ekarri zaie pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga erregulatzen duten foru arauetara egokitzeko beharra, **bizikidetzaren unitatetzat** jo behar dena zehazterakoan eta, ondorioz, eskatu dugu 2013-2014 ikasturterako deitutako ikasleen onarpenerako prozesuan egindako onarpen-eskaeraren inguruan hartutako erabakia berrikus dadin.

Aurten ere errepikatu dira planteatutako demanda osoari erantzuna emateko plaza nahikoak ez egotearen ondotik **baimendutako ratioa handitzea** eskaerak jaso dituzten kexak. Hala, besteak beste, anai-arreben elkartzeari lotu nahi da. Aurrekoetan adierazi dugun bezala, interesdunei jakinarazi diegu indarrean dauden ratioak gaindi daitezkeela, bakarrik, eta salbuespenez, ezarritako arrazoien ondotik, aurretik zentroen berariazko eskaera eginda, eta ratioa ehuneko hamar handitzeko egungo aurreikuspenak xede duela behin ikasturtea hasita eskolatu behar diren ikasleak eskolatzea.

Urteko ohiko prozesu horretatik at, ikasleen onarpena **eskolatzeko lurralde batzordeen** bidez kudeatzen da. Batzordeok, gainera, proposamenak egiterakoan, familiek adierazitako asmoaz gain, ahalik eta integrazio normalizatuena lortu behar dute gure hezkuntza-sisteman, bereziki, honako irizpide hauek aintzat hartuta: 1) zentroaren ger-

tutasuna familia-etxebizitzari dagokionez eta eskolan dagoeneko anai-arrebarik ote dagoen; 2) funts publikoekin mantendutako zentro guztien (publikoak eta itunduak) arteko oreka; 3) zentroetan dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideen erabilera eraginkorra eta 4) zentroaren egokitasuna ikasleari hezkuntza-erantzuna emateko.

2013an jasotako kexek bidea eman digute egiaztatzeko, oro har, batzorde horiek modu egokian jardun dutela. Horri dagokionez, adibide gisa Ondarroan hartutako erabakiak azpimarratu nahi ditugu. Bertan, berriki sartutako ikasleak ikastetxe hitzartuetan sartu dira eta, hala, banaketa orekatura lortu da.

Oraindik behin betiko ebazpena emateke badago ere, uste dugu kexa jakin bat aipatu behar dugula. Bertan, zailtzean jarri da bizilekutik gertu dagoen ikastetxe hitzartu batean eskolatzea ezartzeko hezkuntza administrazioaren bidezkoatasuna, mugako inguruetan eskaintza publiko bat egon arren eta, hala, eskola-garraioaren zerbitzu osagarria onartu edo ez horri lotuta egon. Azken batean, badi-rudi hezkuntza administrazioak gain hartu duela gurasoek edo tutoreek ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubi-dea mugatzeko aukera, baita zeharka denean ere, ez baitu eskola-garraioaren zerbitzu osagarria onartu nahi, eskatutako hizkuntza eredu inguruko ikastetxe publikoek eskaintzen ez dutenean baina, bai, ordea, itunpeko zentroren batek.

Hezkuntza-plangintzari dagokionez, ohikoa den moduan, zailtasun gehienak **zero-hiru urte bitarteko hasierako etapan** egoten jarraitzen dute, batez ere, **bi urteko gelen** eskaintzan.

Hainbat herri eta hiritan aurkeztu dituzte kexak (Gasteiz, Ermua, Hernani, etab.). Baina horien guztien artean uste dugu **Barakaldoko** kasua gailendu behar dugula.

Gure urteko azken txostenean, 2012koan, udalerrri horretako herritarren eskaria kanalizatzeko asmoz erakunde honen aurrean aurkeztutako kexaren berri eman genuen. Une honetan, esan behar dugu Barakaldo dela inguru defizitarioenetako bat zero-bi urte bitarteko matrikula publikoei dagokionez. Halaxe jaso dute [“Hezkuntza Euskadin 2010-2012” Euskadiko Eskola Kontseiluaren](#) azken txosteneko datuek eta, horrez gain, erantzunik eman ezin izan zaien haur eskolatan jasotako onarpen-eskaera kopuruaren inguruan udalak emandako datuek egiaztatu egin dute.

Kexa honen inguruan bideratutako izapideak gogora ekarri dizkigu Eusko Legebiltzarrean aurkeztu dugun urteko txostenean, zehazki, 2003. urteari dagokion horretan, jaso genituen hausnarketa jakin batzuk, zero-hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntzako arretaren ezarpen prozesuari buruzkoak hain zuzen ere. Gure ikuspegiaren arabera, kexa hori honen adibide erakusgarri izan daiteke: udal ekimenak partzuergoan sartzeari uko egiteak eta hezkuntza administrazioak eskaintza propioa abian jartzeko aukera gaitzes-teak eduki ditzaketan ondorioak.

Dena den, erakunde honen ustez, [Eusko Jaurjaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak](#), [Barakaldoko Udalarekin](#) batera eta bakoitzari esleitu dizkieten eskumenak gauzatu, beharrezkoak diren ekimenak abian jarri behar dituzte plaza eskasian oinarritutako egoera bi-

deratzeko eta estaldura portzentajea onetsitako plangintza erreferentzietatik gertuago egon dadin.

2 urteko haurren ikasgelei buruzkoa da, halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurten egin duen diagnostikoaren lehen aurrerapena. Diagnosi horren esparruan, hezkuntza-ikuskapenak txosten bat egin zuen hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxeetako bi urteko geletarako langile laguntzaileei buruzkoa, eta honako alderdi hauek jorratu zituen: (1) Bi urteko geletan Hezkuntza Sailekoak ez diren zenbat langile dauden; (2) eskaintzen dituzten zerbitzuaren modalitateak, kontratuen tipologia eta kontratatzen dituzten eragileak; (3) geletan langile horiek eman beharreko denbora –ordutegiak- eta esku-hartze motak; eta (4) familiek ordaindu beharreko kuotak. Informazio horretatik harago, sailak beharrezko esku-hartze ildoak zehazteko eta horretarako jarduera egutegi bat ezartzeko proposamenaren berri baino ez genuen izan. Hortaz, ez genuen jarduera horren ondotik atera zitezkeen ondorioen berri.

Arduradun berriekin egindako gestioek aukera eman digute ezagutzeko egungo Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak jakin badakiela irakasleak eta hezkuntza laguntza kontratatzeke ohiko sistematik at dauden kontratazio horiek dakartzaten arazoa zein den. Horregatik, konpromisoa hartu du **EHIGE** eta gurasoen elkarteetako ordezkariekin eta *Sareanekin*, ikastetxeetako zuzendaritzak ordezkatzan dituen organismo gisa, esku-hartzearekin jarraitzeko, egungo kontratazioak berritu ez ditzaten. Halaber, konpromisoa hartu du lurralde ordezkarietako plangintzaren zerbitzuek aztertu dezaten gurasoen elkar-teeke kontratatutako pertsonen laguntzari uko egiten dioten ikastetxeetako egoera.

Plangintzari lotutako kontuekin jarraituz, La Baluga eskola publikoko “Handitzen” gurasoen elkarteak sustatu duen kexa gailendu behar dugu. Guraso horiek **Sopuertan** hezkuntza eskaintza publikoa eskatzen dute, baita **Lehen Hezkuntzan** ere. Kasu horretan gorabehera bat egon da eta horrek hezkuntza administrazioak jarduteko dituen aukerak baldintzatu ditu. Haur eskolaren instalazioei dagokien lur-sailaren dohaintza-eskirituran ezarritako betebeharrak buruz ari gara hain zuzen ere. Erakunde honen esku-hartzeak aukera eman die interesdunei espedienteak agiri gisa biltzen dituen txosten juridikoak eskuratzeko. Dena den, gorabehera hori eta izan dezakeen garrantzia alde batera utzita, gure ustez, hezkuntza administrazio horrek ezin du hezkuntza eskaintza baten programazioari lotuta duen ardura baztertu. Izan ere, eskaintza horrek Sopuertan lehen hezkuntzan ere hezkuntza publikoko eskaintza lortzea xede duen eskariari erantzun behar dio.

Azkenik, **Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontse-batorioan** ikasketak euskaraz emateko eskaintzaren inguruan izapidetutako kexa aipatu dugu. Gure iritziz, 2013-2014 ikasturterako onartutako plangintzak baztertu egin du 2013-14 ikasturteko plangintzan, oinarrizko mailan, euskarazko talde bat gehiago zabaltzeko aurretik hartutako konpromisoa, eskaintza orekatua egon dadin (bi talde euskaraz eta bi talde gaztelaniaz). Horren harira, zuzendaritza taldeak ez du aipatu erabakia funtsatzeko azalpen nahikorik eman.

2013an dagoeneko joan den urtean nabarmendu genuen joera mantendu da, alegia, **lanbide heziketako** ikasketei buruzko kexak ugaritu dira eta, gure irizpidearen arabera, krisi ekonomikoaren egungo egoerari lotuta egon daiteke. Egoera horren ondotik gazte askok laneratzea erraz dezaketean ikasketekin osatzen dute beren prestakuntza. Kexa horietako batzuek agerian jarri nahi izan duen geroz eta handiagoa den eskari horri erantzuna emateko ez daudela **plaza nahikoak**. Beste batzuetan, aldiz, **goi-mailako lanbide heziketako zikloetara sartzeko probetan** kudeaketako ohiko gorabeherak salatu dira, hain zuzen, erdi-mailako ziklo bat aurretik gaindituta duten eta probaren berriazko zatitik salbuesita geratuko direla uste duten hautagaiak direnean. 2012an Hezkuntza Sailak izandako lankidetzaren jarrierari esker salatutako arazoak edo akatsak konpondu ziren. Hala ere, aurten kasu guztiak ez dira behar bezala ebazti. Gure aburuz, arduradun berriek aintzat hartu beharko lukete berriz ere goi-mailako prestakuntza zikloetara sartzeko proben deialdi horiek kudeatzeko modua, akats horiek erdi-mailako zikloak gainditu dituzten hautagai interesdunen prestakuntza espektatibak zapuztu ez ditzaten.

Halaber, aurten **Euskara eta Euskal Literatura irakasgaiaren salbuespenari** buruzko hainbat kexa aurkeztu dizkigute. Jakina denez, Hezkuntza Sailak urtero-urtero xedatzen ditu Euskara eta Euskal Literatura eremua edo irakasgaia barne hartzen ez duen hezkuntza-sistema batean haren ikasketak hasi dituen ikaslea irakasgai hori ikastetik edota ebaluatetik salbuesi ahal izateko terminoak. Hain zuzen, 2012-2013 ikasturterako emandako instrukzioek ebaluazioaren salbuespena luzatzeko aukera gehienez ere lau urtera arte mugatzen zuten. Kexa horiek sustatu zituzten ikasleak EAEko hezkuntza-sisteman 2008-2009 ikasturtean hasi ziren. Horregatik, hezkuntza administrazioak ez zuen salbuespen berri hori baimendu nahi, horiek guztiek osatu baitzituzten salbuespenezko luzapen hori baliatzeko lau ikasturteak.

Interesgarria iruditzen zaigu interesdun batek hala eskatuta izapidetu dugun kexa. Haren asmoa zen Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren titulu edo egiaztagiri baliokideak ziurtatzeko premiaren salbuespena onar ziezaioten, kontuan hartuta Erizaintzako ikasketak gainditzeko ikasketak euskaraz egin dituela. Hori guztia **euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen edo ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko *apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan*** xedatutakoari jarraiki. Gure esku-hartzeari esker, interesdun horrek lortu du haren eskolako zuzendaritzak azken ziurtagiri bat egitea, euskaraz bete-betean egindako irakasgaiei dagozkien kredituei zati batean euskaraz egindako irakasgaiei dagozkienak gehituz eta, hala, unibertsitateko titulazioak direnean C1 mailaren maila baliokidea egiaztatzeke salbuespena lortzeko behar diren gutxieneko 144 ECTS kredituak gainditzeko.

Eskola-garraioaren zerbitzu osagarriari dagokionez, esan behar dugu oraindik ez dugula itxi Ametzaga, Sarria eta Bitoriano herrietan ikasleei ematen zitzaizkien eskola-garraioaren zerbitzua eteteke hezkuntza administrazioak hartutako erabakiaren ondotik eskola-kontseiluetako hainbat ordezkari, baita **Arabako Zuia udalerriko** ikas-

tetxeetako gurasoen elkarrekin ere, hala eskatuta hasitako esku-hartzea. Orain arte, saileko arduradunek adierazi dute hartutako erabakia indarrean dagoen arauarekin bat datorrela eta gailendu dute ezin dela alde batera utzi etxebizitzaren eta ikastetxearen arteko distantziari lotutako baldintza. Hala ere, berriki, esan dute aplikazioak kasuren batean planteatzen dituen arazoez jabetuta, egokia iruditu zaiela urteko zirkularra aztertzea, bertan aldaketak sartzeko aukera jorra dadin.

Horrez gain, nabarmendu nahi dugu gorpil-aulkian mugitu behar duen ezgaitasunen bat duen gazte baten familiak sustatu duen kearen berri izan nahi dugula. Familia horren arabera, eskola-garraioaren egungo antolamendua diskriminatzailea da **ezgaitasunen bat duten ikasleentzat**.

Eskola-jantoki zerbitzuari dagokionez, 2013. urtean hezkuntza-eragile batzuk esan digute kezkatuta daudela adingabe batzuen egoerarengatik. Izan ere, aipatu adingabeen familiek ezin dituzte jantokiko kuotak ordaindu, beken deialdi orokorraren esparruan urtero-urtero iragartzen diren **jantokiko laguntzen** onuradun izatea espero badute ere, zerbitzu horren funtzionamenduari lotutako instrukzioek ezartzen baitute kuotak behin eta berriro ez ordaintzeak jantokiko plaza galtzea ekar dezakeela. Gure esku-hartzeari esker, behin-behineko kasuak ebazten laguntzeaz gain, hezkuntza administrazioaren konpromisoa lortu dugu: alegia, ikastetxe guztiei instrukzio bat bidaltzekoa, ahal den neurrian halako egoerak saihesteko.

Horrez gain, eskola-jantokietako **elikadura-hondakinen kudeaketa** bultzatu nahi duten hainbat elkarrekin proposamenak jaso ditugu (kudeaketa horren bidez hondakin horiek berrerabili nahi dira dohainik kontsumi daitezten). Hori guztia kontuan hartuta, iritzi artikulu bat egin genuen *“Posible da beste herztura mota bat”* izenburupean. Bertan, kontsumo arduratsua egiteko eta elikagaien eralgiketa murrizteko premiaren inguruan kontzientziatze aldera azken urteotan lanean ari diren herritarren elkartasun mugimenduak aipatu ziren.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, urte honetan zehar **supergaitasunaren edo arreta faltaren nahasmenduaren baldintza pertsonalak** dituzten ikasle batzuei ematen zaien hezkuntza-erantzunaren jarraipena egin dugu. Zeregin horri esker antzeman ahal izan dugu desadostasun handia dagoela ikasle horiei une honetan ematen ari zaien hezkuntza-erantzunaren inguruan eta, gure ustez, horrek ikasle horien hezkuntza abordatzeko familia-eskolaren artean lankidetzaren harreman on baterako ildoak sakontzera darama, adimen ezgaitasun handiak dituzten ikasleentzako hezkuntza-orientazioak jasotzen dituzten agiriak gomendatzen duten moduan.

Horri dagokionez, hainbat elkarrekin esan dute kezkatuta daudela orientazio horietako asko ez direlako gauzatzen edo geletako egunerokoan jarraitzen ez direlako.

Halaber, **“Euskal Gorrak” – Pertsona Gorren Elkarrekin Euskal Federazioak** entzumen ezgaitasuna duten ikasleentzako keak bidaltzen jarraitu du, bereziki, lanbide heziketako ikasketak jakinak egiten dituzten horien gaineko.

Ikastetxeei dagokienez, ikastetxe batek jarduera osagarriak programatzeko modua zalantzan jarri zuen ama ba-

tek sustatutako keka bat aztertzearen ondotik, esan behar dugu ikastetxeei, haien **autonomia pedagogikoa** baliatzean, beharrezkotzat jotako **jarduera osagarriak** ezar ditzaketela pedagogiari eta curriculumari lotutako haien proiektuak bermatzeko. Jarduera horiek borondatezkoak izan beharko dira. Horregatik, bertan parte hartzen ez bada, zentroek antzekoa den ordezkotza hezkuntza arreta eskaini beharko dute, programatutako jarduera didaktiko osagarriak dituzten curriculumaren helburu berak lortu ahal izateko.

Ekonomia eta finantza kudeaketari dagokionez, adierazi dugu aurrekontuaren eskuragarritasunak aukera ematen badu, zentroek jarduera horiek dohainik programatu ahal izango dituztela. Hori posible ez bada, ez da baztertu behar zentroek familien babesa eska dezaketela, ekarpen ekonomikoak ezarrita, baina jarduera osagarri horiek ikasle guztientzako barneratzaileak eta irisgarriak izango direla bermatuko duten neurri osagarriak aintzat hartuta.

Hain zuzen, ikastetxeetako pedagogia- eta kudeaketa-autonomia errespetatzeak hasiera batean eragin zuen hezkuntza-ikuskeraren **testuliburu** baten eduki jakinen egokitasuna ez baloratzea. Hala ere, aurrerago, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek, **Emakunderekin** batera, eragindako editorialari idazki bat bidali diote. Bertan **Hezkuntza-sistemaren hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plan** bat abian jarri dela aipatu da. Plan horren xedeetako bat ikuspegi integral batetik kulturaren, politiken eta ikastetxeen praktiken esparruan genero ikuspegia sartzea da. Horrekin bat etorritik, eragindako editorialari gomendatu diote salatutako edukiak alda ditzen eta emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatuko duten baterako hezkuntzaren ereduak oinarri dituzten materialak editatzen.

Elkarbizitza atalean aurten ere ez dira faltatu gatazka egoeren aurrean hezkuntza administrazioaren berehalako jarrera edo esku-hartzea eskatu duten ikasleentzako familien keak, oro har, behar bezala bideratu direnak.

Halaber, irakasle funtzionario baten kasuaren berri izan dugu. Pertsona honek hainbat ikasleren erasoak jasan ditu eta erakunde honen esku-hartzea eskatu du uste baitzuen hezkuntza administrazioak ez zituela jarraitu *“Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuetan jarduteko gida”* delakoaren urratsak.

Bizikidetzarako Euskal Behatokiaren osoko bilkuran parte hartzen jarraitzen dugu, nahiz eta aurten ez den deialdirik egin. Nolanahi ere, zenbait jarduerari esker (Rainbow proiektuko materialak aurkeztea, sexu-joeragatik diskriminazioaren kontra borrokatzearekin eta jazarpen homofoboa prebenitzearekin zerikusia duten ekimen batzuetan parte hartzea, eta, azken batean, eskolak aniztasunean elkarrekin bizitzeko toki seguru bezala sortzea) lankidetzaren handia eta hurbilekoa izan dugu Berritzegune Nagusiarekin, eta gai horren inguruko foro eta lan-guneetan izan gara.

Ohikoa denez, **beka eta bestelako laguntzei** lotutako makina bat keka jasotzen jarraitu dugu baina kekok bideratzeko arrazoiak ez dira berriak beste txosten batzuekin alderatuta. Hala, arrazoi formalak oinarri dituzten egoerak

jazo dira: atzerapenak erreklamazioak eta errekurtsioak ebazterakoan, atzerapenak onartutako laguntzen ordaintan. Arrazoi materialek eragindakoei dagokienez, deialdietan xedatutako eskakizunak gaitzetsi eta horiekin bat etortzen ez diren desadostasun kasuak dira, batez ere, baldintza ekonomikoei lotutakoak.

Dena den, aurten bereziki aipatu behar da bikaintasun akademikoko beka horien inguruan hezkuntza administrazioak hartutako erabakiaren ondotik aurkeztu den kexa.

2.2. Familiak

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezten sustatzen du, familia-eredu askotarikoek garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko. Era berean, familiak babesteko politika publiko horiekin loturiko herritarren kexak bideratzen ditugu, baita horiei arreta eskaintzea helburu duen beste edozein jarduera publiko ere.

Kexetan gai berdinak planteatu dira behin eta berriro eta aurreko urteetako txostenetan aurkeztuta daude. Gauza bera esan daiteke erakunde honek emandako gomendioei eta ondorioei buruz ere; hori dela eta, oso labur aipatuko ditugu (sakonago aztertzeke, ikus ohiko txosteneko III.1).

Jasotako kexa asko eta asko seme edo alaba bakoitzeko laguntzen kudeaketa arazoz izan ziren, (seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen [abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuak](#) arautuak); eskaria egiteko dauden arazoei lotutakoak izan ziren asko eta baldintzak betetzen direla ziurtatzeko agiriak aurkezteko tramiteei lotutakoak ere bai. Seme-alabekiko familiek euskarri ekonomiko unibertsala izateko baldin badira laguntza hauek, **laguntzok emateko sistema automatizatu behar harko litzateke eta ofizioz hasi** eta horretarako, euskal administrazioetan dauden datuak eta agiriak erabili beharko lirateke. Horretarako, laguntzen prozedura berri bat sustatu beharko litzateke, seme-alabak jaiotzen direnean edo adoptatzen direnean automatikoki eman ahal izateko, eta gurasoek laguntza horiek eskatzeko epe eta modu bat ez izateko, gaur egun bezala.

Bestalde, zerga sistema ere tresna erabilgarria izan beharko litzateke familia egoera desberdinentzako laguntza publikoa artikulatzeko.

Beste gai bati buruz ere behin eta berriro egon dira kexak: banaketa kasuetan zaintza ez duten gurasoei familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak ez zaizkiela aitortzen, alegia. [Ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua](#), familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoak dio banaketa egonez gero, legezko zaintza behar dela laguntzaren onuraduna izateko, seme-alabak zaintzen dena-delako denbora igaro arren; zaintzeko behar den denbora horren ondorioz, lanaldia murrizteko eskatu behar izaten da batzuetan eta horrek laguntza eskatzea justifikatuko luke. Eusko Jaurlaritzako eskumendun sailari planteatu zitzaion eskaria, baldintza hau malguagoa izan zedin eta seme-alabekin iga-

rotzen den denboraren arabera egin dadin, eta adierazi digute dekretu horren erreforma aurreikusita dagoela eta ohar hauek aztertuko liratekeela beste batzuekin batera, irekiko den prozesuan.

Guraso bakarreko familien kexak jasotzen jarraitzen dugu, haien familia estatusa onartua izateko eta seme-alabengatik dagozkien hobariak eskuratzeko zailtasunak dituztelako, kontuan izanda familiako titular bakar bat seme-alaben arretaz eta hezkuntzaz arduratzeak dakarren zailtasun erantsiak. Gure toki-administrazioetan familia horiek oso modu desberdinetan onartzen direla igarri dugu (bereziki udal-kiroldegien esparruan). Izan ere, kasu batzuetan guraso bakarreko familien berezitasuna erabat onartzen eta aintzat hartzen dute, baina beste batzuetan ez dute errealtate hori inola ere ezagutzen, eta horrek kalte nabaria eragiten die mota horretako familiei. Horrek guztiak pentsarazten digu euskal herri-administrazio guztiek berdin onartu behar dituzten familien kategoriak zehatz-mehatz erregulatu behar direla –familiei laguntzeko [abenduaren 12ko 13/2008 Legea](#) garatuz–, familia horiei emandako tratuan justifikatu ezin diren desberdintasunak ezabatzeko, egoera ahulagoan edo larriagoan daudenei kalte nabarmena eragiten baitiete.

Araudizko testuinguruari dagokionez, esan beharra dago [Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritzak](#), EAEn familiak babesteko politika publiko autonomikoak zuzendu eta ezartzeko eskumendun organoak, [Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III Plana \(2011-2015\)](#) delakoan aipatzen diren jarduera eremu eta ekintza estrategiko batzuei lehentasuna ematea erabaki duela eta 2013-2016 legealdirako 16 ekintza estrategiko aukeratu ditu. Ekintza estrategiko horiek 32 neurri lotuta daude eta honakoei dagozkie batez ere:

- Bizitza pertsonala, familia eta laneko bizitza uztartzea.
 - Sektore pribatuko enplegurako neurriak
 - Sektore publikoko enplegurako neurriak
 - Neurri esperimentalak
 - Gizarte aitorpenerako neurriak
- Guraso izatearen ariketa positiboa
- Belaunaldien arteko solidaritatea
- Diru-laguntzak

Zeharkako ekintza batzuk ere sartu dira, hala nola, erakunde arteko lan mahai bat sortu (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta EUDEL), edo lehentasuna duten ekintzak garatzeko eta ebaluatzeko txostenak egin.

Azkenik, eta familiei laguntzeko politika publikoei buruzko atal hau amaitu aurretik, gai honi buruzko **aparteko txostena** gogoan izan behar da; 2012ko txostenean aipatu genuen nola hasi zen eta ia amaitzeaz dago, beraz, datozen hilabeteetan diagnostiko sakona izango dugu eta EAEko familia politikak gugandik gertuen dauden europar herrialdeetakoekin alderatuko ditugu; era berean, Euskadiko familien eskari eta beharrei euskal botere publikoek ematen dieten erantzuna hobetzeko gomendio multzo bat ere emango dugu.

2.2.1. Zaintza partekatuaren inguruko eztabaida

Arartekoaren erakundeak gai honi buruz parte hartu duen foro, topaketa eta jardunaldiak dagokienez, 2013an zaintza partekatuari lotutakoa dago; gai honen inguruan gizartean nolabaiteko tira-bira egon da, Eusko Legebiltzarrean gaiari buruzko ekimen legegile bat egon delako. Hain zuzen ere, 2013ko abenduan, ekimen hori zela-eta eta Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordeak hala eskatuta, Arartekoak [legebiltzarreko agerraldian](#) kontu horren inguruan erakunde gisa zein jarrerara daukagun adierazteko aukera izan du. [Arartekoaren 1/2010 Gomendio Orokorrak](#) luze jaso du erakunde honek horri buruz daukan jarrera: laburbilduz, bikotea hautsi eta gero seme-alabak zaintzeko araubidea erregulatzerakoan, funtsezkoa da desadostasunez egonez gero bikoteak seme-alabak zaintzeari eta hezteari dagokienez –hautsi baino lehen, hautsi bitartean eta hautsi eta gero– bizi dituen baldintza errealeak era objektiboan argitzeko prozedura bat ziurtatzea. Horren xedea da **adingabearen interes go-rena eta bi gurasoen berdintasunaren eta erantzukizun partekatuaren helburua bateratzea ahalbidetzen duen zaintza-araubidea ezartzea, apriorismorik gabe**, araubide horrek –ez da hori ahaztu behar– halaber seme-alaben bizi-baldintzak hobeto garatzen laguntzen baitu, funtsean.

Zentzu horretan, honelako legezko erregulazio bat nahiago dugu: aldean arteko akordioak haraindi joaten dena (jakina, akordio hori gailenduko litzateke, egonez gero) eta organo judizialari, hala balegokio, partekatutako zaintza dekretatzeko aukera ematen diona, era nahikoan familia-egoera zehatzaren inguruabar guztiak neurtu ostean kargura dauden adingabeentzat, haien egonkortasun afektibo eta materialerako eta, azken finean, bi gurasoekin egoteko eskubiderako hobe izango dela uste duenean.

2.3. Babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuak

2.3.1. Pozik ez egoteko arrazoiak eta harrera-egoitzen sarearen egoera

Aurreko urteetan, ohikoa zen esparru honi buruzko informazioa hasteko, babes gabeko egoeran dauden haurrentzako bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek artatutako adingabeei buruzko datu kuantitatibo batzuk ematea (haur horiek foru-aldundien ardura dira). Jakin badakigu funtzio hori behatoki berezko funtzio bat dela edo erakunde horien berezko urteko memoria-idatzietan ere jasota ageri dela, nahiz eta bilakaera-segiden balioak (1995. urtetik aurrerako datuak ditugu) eta autonomia-erkidego osoaren ikuspuntuak informazio hori eskatzera eta txostenean jartzen jarraitzea bultzatu. Gure ustez, informazio hori oso baliotsua da, baina haurren zerbitzuek eskatu digute datuak beren erakundeetan finkatuta eta eskuragarri egon ondoren eskuratzeko (txosten hau argitaratzen den data beretan gertatzen da hori eta horrek zaildu egiten du datu horiek txostenean sartzea). Eskaera horri jaramon egin diogu, eta hori dela eta, 2013. urteari dagokion txostenean ez dira

agertuko datu horiek, eta informazioa lortu ondoren sartuko dira geroago egingo diren txostenetan.

Eraz, hasteko esparru horrekin zerikusia duten **kexak** aurkeztu dituzten pertsonak helarazitako alderdiei buruz hitz egiten hasiko gara. Kasu gehienak haurren zerbitzuek emandako **balioztatzearekin ados ez dauden** gurasoek aurkeztu dituzten kexak dira. Balioztatze horien bidez ondorioztatu da guraso horien **seme-alabak babesik gabe daudela**, guraso-agintea eten zaie eta foru-erakundeak bere gain hartu du haur horien tutoretza. Guraso horien ehuneko handi batek Arartekora jotzen du, haurren edo nerabearen babes gabeko egoera eta haurra edo nerabea babesteko neurria zehazten duen foru-aginduen aurkako errekurtsioa epaitegietan aurkeztu ondoren. Horren ondorioz, gur ezin dugu ezer egin kexaren sustatzaileen eskaera nagusiari dagokionez. Hala ere, eskaera horrekin batera, balioztatpen-, jakinarazpen- eta informazio-prozesuarekin zerikusia duten beste gai batzuk ere heltzen zaizkigu, eta horietan esku hartu dugu, kaltetutako administrazioari informazioa eskatuz eta beren jokamolde egokiaren arabera aztertuz. Gauza da ondorioak atera diren kasu guztietan (Bakarrik dauden adingabe etorkinei buruzkoetan izan ezik. Hurrengo atalean emango dugu horien berri) administrazioaren jarduna zuzena izan da.

Babes gabeko eta aterperik gabeko egoera larri horiei aurre egiteko, foru-zerbitzuek hainbat neurri antolatzen dituzte, besteak beste etxebizitzan intentsiboki esku hartzeko planak, familia-nukleotik bereizteko neurriak eta harrera egiteko neurriak, bai senideren baten etxean bai egoitza batean. Haurrak modalitate horretan zaintzeko aukera ematen duen **egoitza-baliabideen sarea** etengabe eguneratzen ari da, gizarte-behar aldakorrei, eskaerei eta araudi-xedapenei erantzunez.

[Bizkaian](#), guztira 36 leku murriztu dira Izurza, Zabaloetxe, Vivero zentroetan eta Zornotzako lehen harrerarako zentroan. Denak bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzako zentroak dira, eta lurraldera gero eta adingabe gutxiago iristen direlako eta harreran zeudenak emantzipatzen hasiak direlako murriztu dira leku horiek. Aitzitik, oinarrizko programa orokorreko bi zentro berri ireki dira, Hogar Izargune zentroa (Stella Marisek kudeatzen duena) eta Hogar Sopela zentroa (Bizgarrik kudeatzen duena).

[Gipuzkoan](#), Mendixka zentroa itxi da, egiturazko arkitektura-zailtasunak direla eta. Arazo horiek konpondu ahal izateko diru-kopuru handia beharko zen. Zentro horretako zortzi lekuak Loistarain eta Matsaria zentrozen artean banatu dira, bakoitzari launa egokitu zaizkiolarik. Sarearen neurria mantenduz, egoera hori aprobetxatu da sarearen antolaketa eskaerara eta joeretara egokitzeko, programen eta adin-tarteen arabera. Bi zentro hartzaileak oinarrizko programarako 8 leku dituzten 2 modulutan antolatu dira. Lehenengo moduluan 12 urtera arteko haurrak egongo dira, eta bigarrean, 13 eta 17 urte bitarteko nerabeak.

[Arabakan](#), ugaritu egin dira 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzako eta nerabeentzako oinarrizko programako lekuak, zentro berri batean (Castillo de Portilla II zentroa) 7 leku gehiago ezarri direlarik, eta Hogar Geroa zentroan (8 izatetik 9 izatera igaro da) eta Hogar Sendoa zentroan (7 izatetik 8 izatera igaro da) leku bana gehiago ezarri delarik. Halaber, Ibaia

Harrera eta Larrialdi zentroan ere leku bat gehiago jarri da (14 izatetik 15 izatera igaro da), etxetik berehala atera behar duten 13 eta 18 urte bitarteko nerabeen berehalako arretarako. Azkenik, herritar-agiria eman zaio bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako “Estibaliz” izeneko behin behinako baliabideari (7 leku har ditzake), *eskaeraren hazkuntza masiboari eta aurreikus ezin daitekeenari erantzuteko*, Gizarte Ongizateko Foru Institututik esaten dutenaren arabera.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak berriz ere balorazio positiboa eman dio harrera-egoitzen sarearen *mugimendu* horiei, eta jada ez bakarrik administrazio eskudunek baliabideak beharren bilakaerara egokitzeko eta sortzen ari diren beharrak bizkortasunez artatzeko interesa dutela adierazten duelako, baizik eta baita foru-aldundien ikuskaritza-lanaren eskakizunei erantzuten hasi delako, duela gutxi arte babes gabeko egoera zeunden haurrentzako baliabideetan ez baitzen egiten.

Azken balorazio hori dela eta, 2012ko urrian hasitako ofiziozko espediente, [131/2008 Dekretuaren](#) betetze-mailari buruzkoa, aipatu behar dugu, oraindik amaitu gabe dagoena (131/2008 Dekretua, uztailearen 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen dekretua). 2012ko txostenean aipatzen genuen bezala, hiru foru-aldundiei, [Vitoria-Gasteizko Udalari](#) eta Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari](#) informazio zabala eskatu genion, eta txosten hau amaitu behar genuenean, informazioak muga jo zuen eta ezinezkoa izan zen une horietan balorazio zehatza egitea eta ondorioak ateratzea. Hala ere, bi ondorio nagusiak aurreratu ditugu jada: titulazio kontutuan (eta horrenbestez, gaitasun profesionalak eskuratzeko egiten diren prestakuntza espezializatueta) hezkuntzan lan egiten duten langileek eta baliabidetako laguntzaileek betekizunak ehuneko nahiko handi batean bete ez izanari buruzkoak dira, eta lan horiek eskuratzeko betekizunak bete ez izanari buruzkoak. Lehenengo gaiari dagokionez, gure ustez guztiz okerra izan da, beste batzuen artean, Eusko Jaurlaritzako [Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak](#) zabaldu zuen zirkularra. Zirkular horretan, titulazio sorta harriarriki handi bati eman zitzaion lanbide hori eskuratzeko aukera, eta titulazio horietako batzuek ez zuten ia zerikusirik hezkuntzaren arloarekin. Hala ere, saileko talde berriarekin urteko lehen hiruhilekorako bilera bat aurreikusita genuenez, gure gogoetak zuzenean ahoz helarazte erabaki genuen, eta aipatu zirkular hori, araudi-mailarik ez duena, kentzeko proposatzea. Geroago, babes gabeko egoeran dauden haurren gizarte zerbitzuen inguruan hau jakinarazi zitzaigun: zerbitzu hori [Familia Politika eta Gizarte Garapena Zuzendaritzak](#) kudeatzen zuen *Haurrak* esparrura atxikitzen zela, eta betekizun horiek ez betetzeak eragin zuen hausnarketaz baliatzeko asmoa zegoela (ezinbestean, hiru foru-aldundiek egin zuten gogoeta hori), dekretua sakonki aztertze. Dekretu hori lehenago edo beranduago adieraziko da autonomia-erkidegoko legedian, araudiaren testuinguruari buruzko atalean aipatzen genuen hurrei buruzko legedian aurreikusitako aldaketak kontuan izanda. Ondorio gisa, gaur egun 131/2008 Dekretua betetzen den ala ez jarraitzen dugu oraindik, baina ez da ebazpen bakar bat egin horren inguruan.

Jarraipena egiteko bide bat da **ikuskatze**-bisitak egitea. Aurtun, Bizkaiko sareko **“El Vivero” harrera**-egoitzara egin zen. Bisitan erreparatutakoa, xede horretarako eskatutako dokumentazioaren azterketa eta foru-aldundiko Haurren Zerbitzuko kideekin egindako egiaztapena oinarri hartuta egin zen bisita horren ondoriozko txostena, eta 3 gairen inguruko iritzia azaltzeko du. Orain, hiru gai horietako bi baino ez ditugu aipatu, baliabidearen baldintza materialei eta funtzionalei buruzkoak baitira. Hirugarren gaia, bakarrik dauden adingabe etorkinen (baliabide honen erabiltzaileak) emantzipazio-prozesuekin lotutakoa, datorren 2.2.2. atalean jasoko da, gazte horiek aurre egin behar dieten egoera bereziki buruzkoan, hain zuzen.

A. Deskripzio-datu batzuk

El Vivero egoitza Galdakaoko udal-mugartean dago, Artxanda-Urigoiti errepideko 9. kilometroan, eta emantzipazio-prestakuntza-programa batean dihardu. 2013ko uztailearen 1etik 23 pertsonarentzako tokia du. [Urgatzi](#) Elkar-teak kudeatzen du.

2006ko urrian, egoitza osatzen duten lau eraikinak, lehenago Aldundiak erabiliak baso-lanetarako base gisa, oraingo erabilerarako birmoldatu eta egokitu ziren. Hirigunetatik kanpo egonik, harako garraio publikorik ez dagoenez, furgoneta partikular bat erabili behar da joan-etorri guzti-guztietarako.

Lau eraikinetatik, bi handienetan mutilen gelak daude. Datu horren arabera, pentsa liteke funtzionamendua modulukakoa dela, gehienez 12 pertsona hartuta bakoitzean, 131/2008 Dekretuan ezarri bezala, hain zuzen ere, baina eguneroko dinamikari erreparatuta berehala oharitzen gara egoitzako jarduera egoiliar guztiak multzo bakarrean kontuan hartuta antolatuta dagoela. Hirugarren eraikin batean sukaldea dago, berau ere prestakuntzarako prestatua, eta laugarrenean administrazio-langileak eta hezitzaileak aritzen dira. Ez daude egokiturik mugikortasun urriko pertsonentzat. Badira, bestalde, bi areto gaztelaniako eskolak emateko eta beste oinarriko gaitasun batzuk lantzeko, jantokia, egongelak eta garbigailuen gela. Azkenik, egitura erdi itxi batean mantentze-lanak eta bestelako konponketak egiten dira.

Instalazioen barrualdea eta altzariak garbiak dira, baina baita oso erabiliak eta “petatxu” ugari eginak ere. Kanpoaldea, berriz, utzi samarra ikusten da.

Logelak kolektiboak dira, 4 lagunentzat. Mutil guztiek daukate ohea eta armairua, azken altzari hori giltzarrapoz itxia, norberak bakarrik erabiltzeko moduan. Instalazio guztietan nabarmena da nortasun-zantzuen urritasuna, guk dakigula ez debeku edo aginduren baten ondorioz, bestelako arrazoiengatik baizik, horietako batzuk, beharbada, gelak kolektiboak izatea, mutilek besteen gauzekiko errespetua gutxi bizi izana, eta, azken batean, tokiarekiko duten loturasentimendu eskasa.

Logeletan zein dutxa kolektiboetan **bainugelak** eta **komunak** daude (komun-ontziak, konketak eta dutxak). Txikiak dira, ordea, eta nahikoa hobetu litezke erabilgarritasunaren eta erosotasunaren aldetik. Dena den, haietan pribatutasuna ziurtatuta dago, itxigailua dutelako.

Lehenago esan bezala, egoitzako **egitarauaren** helburua gazteak emantzipaziorako prestatzea da. Gehien-gehienak Zornotzan dagoen lehen harrerarako zentrotik etorri dira, eta bakarrik etorritako etorkin adingabeak dira, 17 urtetik gorakoak; hau da, berandu sartu ziren haurrak babesteko programan, eta izan ere, haietako batek ere ez du urtebete eman haur babesgabeentzako gizarte-zerbitzuen sarean. Horrek ondorioak ditu bi aldetatik gutxienez:

a. Jardueren orientazioa

Gure herrialdean oso denbora gutxi daramatenez, mutiak ez daude inongo ikastetxetan eskolatuta. Ondorioz, batez ere hizkuntza-gaitasunak eta oinarrizko ezagutza edo trebetasun teknikoak eskaintzen zaizkie, ahalik eta autonomia pertsonal eta sozial handiena lortu dezaten eta, geroago bestelako prestakuntzarik jasoz gero, atarramentu ona atera dezaten horretatik. Horregatik, **Lanbidek** sukaldaritzarako prestakuntza-zentroaren izaera aitortu dio egoitzari. Oso prestakuntza oinarrizkoa izan arren —ez dago 1. kalifikazio-mailakotzat ere homologaturik— aukera ematen die lan-merkatuan laguntzaile soil gisa sartzeko edo Lanbide Prestakuntzarako Programan zein beste ikasketa batzuetan hasteko.

Prestakuntza hori, haatik, ez dago egoitzako gazte guztien eskura, guztira 12 plaza eskaintzen direlako. Gainerakoak egoitzako hezitzaileek goizean ematen dituzten eskoletara doaz, gaztelanian eta bestelako oinarrizko gaitasunetan trebatzera.

Zentroak lan handia egiten du, halaber, mutilen egoera administratiboa erregularizatzeko izapideetan: errol-datzea, pasaporte eskuratzeko etab.

b. Egoitzatik irteera eta emantzipazio-prozesua

Aldundiko Gizarteratze Zerbitzuak gazte atzerritarrei zuzendutako Mundutik Mundura programari heltzeko, dela gutxitik hona gazteek urtebetez egon behar izan dute, gutxienez, har babesgabeentzako sisteman. Eskakizun hori dela medio, El Vivero Egoitzako mutil guztiak programan sartzeko aukerarik gabe geratzen dira hasieratik. Hala, bada, adin-nagusitasunera iritsi aurreko asteetan egoitza harremanetan jartzen da Bilboko Udaleko **Gizarte-larrialdietako Udal Zerbitzuarekin**, horrek kudeatzen baitu aterpetxerako onarpena. Aterpetxea aldi baterako baliabidea denez, bertan egonaldi labur bat eginda gazte gehienak kalean bizi beharrean suertatzen dira, denbora gehienbat luzez.

Astelenetik ostiralera arte, **bazkaria** eta afaria prestatuntza-ikastaroan bertan prestatzen dira, eta asteburuan catering zerbitzu baten esku geratzen dira. Platerak zein mahai-tresnak erabili eta botatzekoak dira.

Aisia-uneak egoitzatik oso gertu dauden kirol-gune batzuetan (pilotalekua, kantxak...) ematen dituzte batez ere, eta asteburuan Bilbora jaisten dira.

Egoitza Urgatzi Elkarteak **kudeatzen** du. Irailaren hasieran jaso genituen datuen arabera, zuzendariak gain, zentroak beste 16 profesional ditu, hezkuntza-taldeari atxikiak, eta 4 gehiago ordezenetarako. Lanbidek aitortutako prestatuntza-programa dela medio, badute ostalaritza-alorreko kalifikazioa duen irakasle bat ere. Profesional guztiek lanaldi osoz dihardute.

B. Kezka-iturriak

B.1. Ratioak eta hezkuntza-langileen kalifikazioa

109. artikuluan, *uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak*, *gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituenak*, **gutxieneko ratioak** zehazten ditu zuzendaritzako zein hezkuntzako pertsonalari dagokionez. Artikuluaren 1. atalean emantzipaziorako prestatuntza-zentroak aipatzen dira, esanez bai egunez baita aterpean hartutako pertsonak bertan daudenean ere zentroek zuzendari bat eta hezitzaile bat izan beharko dituztela 4 haur edo nerabeko 23 pertsona hartzen dituen baliabide baten kasuan, egoitza honetan, kasu, 6 hezitzailez ari gara. Dekretuaren arabera, bestalde, egoki deritzoten laguntzaile kopurua izan ahaliko dute, betiere kontuan izanik egoiliarren beharrak eta ezaugarriak. Gaez, ratioak hezkuntza-laguntzaile bat aurreikusten du moduluko; gure kasuan, hortaz, bi lirateke.

Bisita egin genuenean, lanegun bateko goizean, zentroan 5 profesional zeuden guztira: zuzendaria, 3 hezitzaile eta sukaldaritza-ikastaroko irakaslea. Kopuru hori arauan gutxienekotzat agintzen denarekin (6) alderatzea nahikoa da konturatzeko eskaintzen den hezkuntza-arreta ez dela heltzen ezarritako mailara, ezta 109.1a) artikulua interpetazio eskuzabalena eginda ere, honako hau baitio: *egoitza-harrerako baliabidearen tamainaren arabera, pertsona horrek zuzendaritza-eginkizuna gauzatu ahal izango du baliabide horretan eta, aldi berean, eginkizun hori bera bete ahal izango du antzeko ezaugarriak dituzten beste baliabide batzuetan*, hots, zeregin horietako bat hezkuntza-lana balitz ere. Eta irakurketa eskuzabalena litzatekeela diogu zaila iruditzen zaigulako tamaina horretako zentro batean (handienetako bat da) zuzendariak bete-betean jardun dezakeen hezkuntza-lanetan lehentasuna eman behar badie dekretuak ezartzen dizkion 18 eginkizunei (104. artikulua) a letratik r letrairaino zerrendatuta).

Pertsonalari dagokionez, uste dugu azpimarratzekoa dela zer **lanbide-kategoriaren** pean lan egiten ari diren hezkuntza-taldeko kideak, inondik ere ez huskeria bat edo nomenklatura-kontu hutsa beratu, kontuan izan behar baitugu lanbide-kategoriaren arabera zehazten direla eginkizunak, ardurak eta ordainsariak gutxienez, eta kategoria berei jarraiki eskatzen direla, aurrerago aipatuko den bezala, kalifikazio mota batzuk ere. Sukaldaritza-irakaslea alde batera utzita, berezko eginkizuna edukitzeaz gain haren kalifikazioa Lanbidek eskatutakoa baita prestatuntzari onetsia emateko, hezkuntza-langileetatik %25ek (16tik 4) baino ez dute *hezitzaile*-kontratua, gainerakoetatik 8 *animatzaile* gisa kontratatuta baitaude, eta beste 4rak, *zaintzaile* gisa. Ordezpen-langileetatik batek ere ez du *hezitzaile*-kategoriaren pean jarduten. Atal honetako lehen paragrafoan aipatu dugun dekretuaren testura itzuliz, arauaren arabera hezitzaile bat egongo da lau mutileko, pertsonal laguntzailea haren osagarri delarik, eta egoitzak egoki iritzi gero kontratatua soilik. Ondorioztatzen da, beraz, langileen artean hezitzaileen kopurua behar den baino txikiagoa dela argiki.

Hezkuntza-taldez nabarmenduko dugun azken gauza profesionalen **kalifikazioa** da. Dekretuaren 106.2 artiku-

luak honako hau dio hezkuntza-langileen prestakuntzari dagokionez:

- a) *Hezitzaileek gizarte-hezkuntzako diplomatura, edo, hori izan ezean, hezkuntza-zientzietako edo gizarte-zientzietako diplomatura edo lizentziatura bat eduki behar izango dute, betiere [Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren](#) gaikuntza lortu badute.*
- b) *Hezkuntza-langile auxiliarrek gizarteratze-teknikariaren goi-mailako prestakuntza profesionala izango dute.*

Alde horretatik, aplikatzekoa da, halaber, zortzigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoa: *106. artikuluan 2. idatz-zatian aurreikusitakoaren ondorioetarako, hezkuntza-langileei -hezitzaileei nahiz hezkuntza-langile auxiliarrei- eskatzen dizkieten titulazioak haurrak eta nerabeak babesteko sarean beren jarduera profesionala gauzatzen Dekretu hau indarrean sartu ondoren hasten diren profesionali soilik eskatu ahal izango zaie.* (indarrean hasita argitaratu zenetik —abuztuaren 8tik— 20 egunera, 2008ko abuztuaren 28an, alegia).

Hezitzaile gisa kontratatuta dauden 4 pertsonetatik, 3rentzat ez da aplikagarria 106. artikulua, 2007az geroztik lan egiten baitute El Viveroko zentroan, eta laugarrenaren kasuan, lizentziatua da gizartearen zientzietan, baina ez dauka Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren gaikuntza.

Animatzaile kontratatutako 8 pertsonetatik, 4ri ez zaie kalifikazioari buruzko eskakizuna aplikatu behar dekretua argitaratu baino lehenagotik lan egiten dutelako babes-sarean, lauretako batzuek El Vivero zentroan eta besteek sareko beste baliabide batzuetan. Zortzietako beste bi diplomatuak dira gizarte-hezkuntzan; beste bat ere diplomatua da, baina erizaintzan eta elkargo profesionalaren gaikuntza gabea, eta laugarrenaren kasuan ez daukagu informaziorik haren kalifikazioari buruz.

Ordezpen-langileen zerrendan dauden 4 pertsonak *animatzaile* lanbide-kategoriarekin kontratatzen dituzte (haietako batek *zaintzaile*-kontratua izan du kasuren batean), eta kalifikazioari dagokionez, bat diplomatua da gizarte-hezkuntzan, eta gainerakoak goi mailako gizarteratze-teknikariak dira.

Azkenik, *zaintzaile* kontratatutako 4 pertsonetatik, 3ri ez zaie dekretua aplikatu behar zortzigarren xedapen gehigarriak zehazten duenagotik, hau da, 2008 baino lehenagotik lan egiten dutelako sarean, eta laugarrenak gizarte-hezkuntzako gradua ikasten du.

Laburbilduz, El Vivero emantzipaziorako prestakuntza-zentroak hezitzaile lanbide-kategoriarekin kontratatutako talde bat izan beharko luke, eta kalifikazioari (edo gaikuntza) dagokionez, pertsona horiek gizarte-hezkuntzako diplomatuak izan beharko lukete. Horietaz gain langile laguntzaile gehiago behar dituela uste badu, zentroak badu horretarako ahalmena. Hala ere, 20 profesioetatik (ordezpen-langileak ere zenbatuta) 4k baino ez dute hezitzaile-kategoria, eta 3k, bakarrik, eskatzen zaie gizarte-hezkuntzako diplomatura.

Azalutakoagatik, gomendio hauek helarazten dizkiogu Gizarte Ekintza Sailari:

- a. Ziurta dezan El Vivero emantzipaziorako prestakuntza-zentroko mutilei ematen zaie arreta bat datorrela 131/2008 Dekretuan ezarritakoarekin, eta zehazki:
 - Kontuan harturik egunez mutil guztiak zentroan daudela, ematen zaie arretak bat etorri behar du ezarritako ratioarekin; horren arabera eguneko txandan hezitzaile batek egon behar duenez 4 mutileko, guztira 6 hezitzailek izan behar dute zentroan.
 - Gutxieneko ratio hori dela medio zentroari dagozkion hezkuntza-profesionalak *hezitzaile* lanbide-kategoriako kontratua izan behar dute, eta kategoria horren araberrakoak izan behar haien eginkizunak/ardurek eta ordainsariak ere.
 - Kalifikazioaren aldetik, bai hezitzaileek baita —hala erabakiz gero— kontratatzen diren hezkuntza-laguntzaileek ere dagokion kalifikazioa izango dute; honako hau, hain zuzen: hezitzaileek, gizarte-hezkuntzako diplomatura (edo aipatutako beste prestakuntza motak eta elkargo profesionalaren gaikuntza), eta laguntzaileek LHko goi-zikloa gizarteratze-alorrean.
- b. Ikuskaritza-zerbitzuak jarraipen zorrotza egin behar du azalutakoa bete egiten dela egiaztatzeko, eta horretarako, mailakako zuzenketa-plan bat prestatzeaz gain horren garapena aztertu ere bai.

B.2. Dutzak eta zentroaren mantentze-eskasiak

Bisitaren txostenaren hasierako azalpenean aipatu dugun bezala, bainugelen eta dutxen kopurua urria iruditu zaigu, eta erabilgarritasunaren eta erosotasunaren aldetik, badutela zer hobetu. Zaila da instalazio horiek “etxe” izena merezi duen toki batean irudikatzea, are gutxiago neguko egunetan, nahiz eta huraxe izan dekretuarekin sareko egoitzei eman nahi zitzaie giro edo kutsua.

Zentroaren mantentzeari dagokionez, harriztekoa da utzikeriaren zenbaterainokoa, agerikoa egoitza osoan eta are nabarmenagoa kanpoaldean. Ez dugu balorazio berbera egiten errepideaz bestaldeko “moduluaz”, gainerako instalazioak baino askoz egoera hobean egoteagatik eredu egokia izan bailiteke egoitza osoak nola egon beharko lukeen ohartzeko. Horretaz ari garela, ezin aipatu gabe utzi zentroko langileek mantentze eskasaren ondorioak arintzeko egiten dituzten ahaleginak, haien benetako eginkizunak beste batzuk izan arren.

Nahiz eta jakin ez gaur egun zer diru-ratio dagokion haur/plaza bakoitzari titularitate pribatukoak baina erantzukizun publikokoak diren foru-zerbitzuak hitzarmen bidez kudeatzen diren kasuetan, nahikoa izan zaio erakunde honi hainbat entitatek hitzarmen bidez kudeatzen dituzten Aldundiaren beste egoitza-baliabide batzuk ikuskatzea esateko euskal administrazioaren ardurapean dauden mutil hauek askoz egoera material hobean egon litezkeela. Gordinagoak izanda, baliabide hau kudeatzen duen erakundea (elkartea) irabazi-asmorik gabekoa izanik argi dago lor daitzekoen etekin eta mozkin guztiak berriz bideratu beharko liritekeela kontratatutako programara.

Horretatik, gomendatzen diogu Gizarte Ekintza Sailari:

a. Ziurta dezan El Vivero emantzipaziorako prestakuntza-zentroko gazteak behar bezalako egoera materialean daudela, eta zehazki:

- Bainugela eta dutxa gehiago eta erosoagoak jartzea zentroan, bereziki “modulu” zaharrenean eta gune komunean, azken hori eguneroko bizitzaren toki nagusia baita zentroan.
- Eraikinen kanpoaldearen egoera egokia bermatzea.

b. Egiazta dezan, behar diren neurriak hartuz, hitzarmenean zentroko jarduera eta funtzionamendurako aurreikusten den dirua erabiltzeko irizpideak bat datozela haur babes-gabeentzako egoitzak arautzen dituen dekretukoekin.

Halaber, harrera-egoitzen baliabideetan emandako arretari buruzko atal honetan, eta 2012ko txostenean adierazi genuen bezala, 2013. urtean zehar aurreikusita genuen jarraipena egitean Gipuzkoako Foru Aldundiak **Aixola zentroan** adingabeak eskuburdinekin fisikoki geldiarazteko ohiko praktiken inguruan jarritako salaketa oinarri hartuta hasi zen ofiziozko jarduketari zegokienez hartutako konpromisoei. Oraingoan, gai horren inguruan hartutako bi erabakietan zenbateraino aurrera egin zen jaki nahi izan genuen:

- Segurtasuneko enpresari eskatzea langileek beren funtzioak uniformean eskuburdinarik eta borrarik eraman gabe egiteko. Izan ere, une hartan bazirudien argudiatzen zela langileek uniformea behar bezala jarrita joan behar zutela lantokira eta uniformeak elementu horiek zituela.
- Zentroa kudeatzen zuen enpresari proposatzea segurtasuneko langilerik gabeko esku-hartzea bere gain hartzea. Gipuzkoa Babestenek argudiatu zuen, epe laburrera eta ordura arte lan egiteko jarraitu zuten eredia kontuan izanda, ez zuela bideragarritzat jotzen langile horiek baztertzea. Profesional horien zereginari, kokapenari, jarduketa-protokoloari eta abarri buruzko berariazko hausnarketa bat egiteko ohartarazi zitzaizen, Haurren Zerbitzuarekin eztabaidatzeko horren inguruan zehaztu gabeko epe batean.

Hau nabarmen dezakegu emandako informaziotik:

1. Salatutako egoerari egindako jarraipen intentsiboa; hau da: banakako elkarrizketa kopuru handia egin ziren egoitzan bizi ziren adingabe guztiekin (29), bisitak baliabidera eta bilerak baliabideko hezkuntza-taldearekin (9) eta bilerak baliabideko arduradunarekin eta zuzendariarekin (6), 2012ko abuztutik 2013ko urrira.
2. Ez da salaketarik eta gorabeherarik izan euskarri mekanikoko tresnen baimendu gabeko erabilerarekin lotuta, eta egindako bisitetan egiaztatu da segurtasuneko langileek ez zutela ez eskuburdinarik ez borrarik.
3. Kudeaketa-enpresak segurtasun-zaindariak kentzeari aurre egin izana, nahiz eta Gizarte Politikako Sailak esku-hartzeko eredia aldatzeko eta zentroaren hezkuntza-proiektu berri bat idazteko eskatu arren. Hezkuntza-proiektu berri horretan segurtasun-zaindaririk gabeko lan-metodologia bat jaso beharko zen, eta zaindariak pixkanaka-pixkanaka kentzen joan beharko ziren.

Erresistentzia hori gorabehera, eta testu hau amaitu baino egun batzuk lehenago adierazi zitzaigunaren arabera, zen-

troko proiektua berriz egitea lortu da azkenik. Aurreikusita dago datorren martxoaren 1ean desagertuko direla behin betiko segurtasun-zaindariak. Adierazi diguten osolan gogorra izan dela eta izaten ari dela, batez ere hezkuntza-taldea aldatzea egiteko zailtasunak jartzen ari baita eta aldatzea horien aurka agertu baitago, zenbait kasutan oso esplizituki.

Gure aldetik, defendatzen dugu nekez beteko dutela segurtasuneko profesionalek 131/2008 Dekretuko 109.1. b) artikuluan xedatutakoa, “*immobilizazio fisikoa erabiltzen duten esku-hartzei buruzko prestakuntza berezia jaso duten hezkuntza-langile teknikariak, hezitzaileak eskatuta soilik jardungo zutenak, integratzeari buruzkoa*”. Izan ere, hasiera batean, segurtasuneko langileek ez dute hezkuntza-alderdiei buruzko inolako prestakuntzarik. Horren ondorioz, hezitzaileen zeregin hezitzailea indartu eta sendotu ondoren, gure ustez, onuragarria izango da, bai gazteentzat bai hezitzaileentzat, hezitzaileak ez diren aginte-irudirik gabeko zentro bateko proiektua, hasieran izan daitezkeen zailtasunak gaindituta, zerbitzuaren ardura duen foruerakundeak defendatzen duen bezala.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar asko atzeratzen ari direla harrera-egoitzen baliabideetara baimendu gabe ez agertzean jarraitu beharreko jarduketa-protokoloa egiten, baina aurretik ere berriz esan behar dugu ez dela inolako aurrerapenik egin. Kasu honetan, antolaketa-arrazoiengatik gertatu da, autonomia-erkidegoko gobernuak sailen eta zuzendaritzen artean gaiak eta eskumenak berriz banatzearekin lotutako arrazoiengatik, hain zuzen. Hala ere, dokumentu hau bukatzeko garairako, esan dezakegu zeregin horri heltzeko lehen bilerarako deia berehala egingo zela zirudiela.

2.3.2. Bakarrik dauden adingabe etorkinei berariazko arreta

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren esparruan (kasu honetan ere ez dugu eman datu kuantitatiborik), 2013ko daturik garrantzitsuenak izan da [5/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 17koa](#). Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak. Gomendio horrek azken urteetan ebazpenen, gomendioen eta Eusko Legebiltzarrari urtero egindako txostenen bidez modu zatikatuagoan aurkeztu joan diren gogoetetako asko jaso eta osatu ditu modu antolatuagoan, arrazoituagoan eta zehatzagoan, gazte horien ahultasun handiko egoera itxuratzen duten alderdi anitzei buruzko ikerketa ugarien emaitza gisa.

Adingabe/gazte horiek artatzeko eta gizarteratzeko funtsezkoak iruditzen zaizkigun hiru unetan jarri dugu arreta gomendioan: (1) parte hartzen duten herri-administrazioek haiek aurkitu eta abegi egiteko unea, (2) adindunak direla xedatzen duen fiskaltzaren dekretuan oinarrituta foru aldundiek egoitzako abegia edota tutoretza eteteko unea eta (3) babes baliabideetatik irtendakoan behar den lagun egitea edo bideratzea.

Gomendio horretan ez dugu berariaz aztertu adina zehaztearen kontua, izan ere, hori jada askon aztertu dute herritarren defentsa-erakundeek; aitzitik, abegi prozesu osoan eta zaintza, tutoretza edota egoitza abegia eteterakoan bete behar diren **bermeak** eta prozesu bietan dauden premiak

eta arazoak aztertu ditugu. Bestalde, adingabe/gazte horiek geratzen diren egoera zaila nabarmendu dugu, adingabeak direla dioten agiri baliagarriak edukita, Fiskaltzak adina zehazteko ateratako dekretua dela-eta tutoretza eteten zaienean. Halaber, babes baliabidetik irten ondoren lagun egiteko edota bideratzeko premia ere azpimarratu nahi dugu.

Horrela, gomendio horretan gai hauek jorratu dira:

1. Foru aldundietako babes zerbitzuen, Eusko Jaurlaritzako sailen, polizien, gobernuaren azpiordezkaritzen, fiskaltzen eta, hala badagokio, asilo eta babes bulegoaren arteko beharrezko **koordinazioaren eta lankidetzaren** garrantzia pertsona horiek aurkitu eta haiei abegi egiteko prozesuan.
2. Abegian eta, Fiskaltzak adindunak direla ebazteko emandako dekretuaren ondoren, berehalako arreta, zaintza, egoitza abegia edo tutoretza etendakoan, dagozkien **bermeak eta eskubideak** betetzea.
3. Adingabe/gazte horiek babes baliabideetatik irteten direnean **gizarte lagun egite edota bideratze** egokiak duen garrantzia.

Eta honela zehaztu ditu gomendio-gaiak:

A. Beharrezko koordinazioaren eta elkarlanaren garrantziari dagokionez:

1. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Euskal Herriko Autonomia Erkidego osoan jarduketa protokolo komunaren prestaketa koordinatu behar luke, lurralde historiko bakoitzean zerbitzuen kokapenaren arabera behar diren aldaketak eginez, baina irizpide, berme eta eskubide berberak sartuz. Protokolo horretan Fiskaltzak, Gobernuaren azpiordezkaritzek, polizia kidegoek, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, Herri Administrazio eta Justizia Sailak, Osasun Sailak, eta foru aldundietako adingabeen babes zerbitzuek parte hartu eta haien funtzioak eta jarduketak zehaztu behar dira.

B. Bermeak eta eskubideak betetzeari dagokionez:

2. Edozein eragile publiko edo gizarte eragilek Babesgabatasuneko egoeran dagoen adingabe edo balizko adingabe bat dagoela atzematen duen kasu guztietan, foru aldundietan adingabeak babesteko eskumena duten zerbitzuen esku jartzea.
3. Foru aldundiek, Fiskaltzari adina zehazteko osasun azterketak egiteko eskatu aurretik, pasaporte baten edukia faltsua, okerra edo iruzurrez egina izateko arrazoizko zantzuak daudela arrazoituta argudiatzea.
4. Adina zehazteko osasun azterketak egiteko eskaera egin aurretik, bakarrik dauden atzerritar adingabeen erregistroa kontsultatzea eta, pertsonaren agiriak edukiz gero, bide diplomatikora jotzea jatorrizko herriko agintaritzek datuen egiazkotasuna ziurta dezaten, batez ere Espainiak hitzarmena sinatu duen herrien kasuetan, hala nola Marokoren kasuan.
5. Adina zehazteko prozesuetan auzitegi-medikuntzako erakundeen "Adinaren auzitegi-kalkulua egiteko metodoei buruzko gomendioen dokumentua" ize-

neko testuko gomendioak betetzea eta haietan guztietan auzitegi-medikuntzako euskal erakundeak esku hartzea. Halaber, ebaluazioa halako azterketetan adituak diren medikuek egitea.

6. Dagokion asingabe/gazteari, banaka eta hezkuntza arreta egokiz, foru aldundiak, Fiskaltzaren adina zehazteko dekretuan oinarrituta, berehalako arreta, zaintza, egoitza abegia edo tutoretza eteteko hartutako ebazpenaren eta hura errekurritzeko eskubidearen, errekurtsioa aurkeztu behar dion organoaren eta hura jartzeko epearen berri ematea.

C. Babes baliabideetatik irteten direnean gizarte lagun egite edota bideratze egokiak duen garrantziari dagokionez:

7. Bizileku-baimena lortu gabe adin-nagusitasunera iritsi den kasuetan, babes zerbitzu batek tutoretza, zaintza, behin-behineko babesa edo zaingoa izan duenean, inguruabar bereziengatik bizileku-baimena emateko gomendioa egiterakoan, foru aldundiak prestakuntza baliabideen baliatze maila kontuan hartzea, zein ere den pertsona hori abegian emandako denbora. Txostenak prestakuntza edo beste edozein motatako baliabideen baliatze maila deskribatu behar luke, azkenean alde edo aurka eginez, baina arrazoituta beti ere.
8. Banakako irteera plana egitea, kasu guztietan, zein ere den lehenago emandako denbora eta zein ere diren auzibidean errekurrituta egoteagatik eztabaidan egon litezkeen adinari buruzko kontuak, eta egoitzako babes baliabideetatik irteteen herri-administrazio eskudunen jarraipena eta laguntza egotea.
9. Babes baliabideetatik irteteen gazte horien gizarte-ahultasuna kontuan hartzea, oinarritzko premiak estaltzeari begira eta inguruabar bereziengatik bizileku-baimena eskuratzeko edo hura berritzeko behar diren betekizunak betetzeko.
10. Haurren zerbitzuak gizarteratze eta laneratze zerbitzuekin koordinatzea, gazte horien gizarteratzea eta lan gaikuntza bilatzen duten laguntza eta emantzipazio programak erraztu eta sendotzeko, baita hasita duten lan prestakuntzari jarraitzea ahalbidetzeko, erakundeek egindako ahaleginek haien erabateko gizarteratzea eta laneratzea lor ditzaten.

Gomendioaren 1. puntuan aipatzen den **presazko harre-rako protokoloarekin** lotuta, iazko urteko txostenean jakinarazi genuen aurrerapenak egiten ari zirela eta 2013. urtean onartuko zela aurreikusteko moduan ginela. Ez zen horrela izan. Nahiz eta esparru horretan eskumena duen Eusko Jaurlaritza Sailak, gaur egun **Familia Politika eta Gizarte Garapena Zuzendaritza** denak, lanean jarraitu duen adingabe horien harreraren parte hartzen duten eragileekin bi aldeko elkarrizketak eta elkarrizketa aldeaniztunak egiten, protokoloaren testua osatuz eta adostuz, prozesuan estatu-mailako harrera-protokolo berria egingo dela bat-batean jakiteak atzeratu egin du autonomia-erkidegoko protokoloa egiteko lana, estatu-mailakoa nolakoa izango den itxaron behar delako eta bien artean beharrezkoa delako koherentzia izatea.

Gizarte-akonpainamenduaren eta/edo babes-baliabidetik ateratzean egoki bideratzearen garrantziaren inguruan egindako gomendioaren oinarri den argudiaketa Bizkaiko Foru Aldundiko [Gizarte Ekintzako Sailari](#) egindako gomendioen hirugarren blokean ere erabili dugu, **El Vivero egoitza-baliabidera egindako ikuskatze-bisita**, aurreko atalean (2.2.1.) aipatzen genuena, jasotzen zuen espedientean. Esaten genuen bezala, lehenengo bi gogoetan baliabide horretako baldintza materialei eta funtzionalei buruzkoak ziren, baina hirugarrena, bakarrik dauden adingabe etorkinen, baliabidearen erabiltzaile direnen, emantzipazio-prozesuekin lotuta dagoen neurrian, orain azalduko dugu. Labur-labur azalduko dugu, zentrotik ateratzean nolabaiteko prestaketa eta koordinazioa egiten bada ere, foru-aldundiko Gizarteratze Zerbitzuak inolako erantzunik ematen ez duelako sortzen dela arazoa. Izan ere, bazterketa-egoera dauden pertsona helduak izanda, zerbitzu horri dagokio arreta hori ematea.

Aurten bakarrik dauden adingabe etorkinek aurkeztu eta izapidetu diren **kexa** apurrek bera zuten: **desberdintasun handia zegoen fiskaltzaren dekretuan**, adina zehazteko probak (aurkitu zituzten unean agiririk gabe egoteagatik) egin ondoren, adierazitako adinaren eta **haurrak/nerabeak abegi hartuta zuen umeen foru-zerbitzuaren kudeaketan bidez haurraren/nerabearen jatorrizko herrialdeetako administrazioan lortutako dokumentazio ofizialean aitortutako adinaren artean**. Arabako eta Bizkaiko (gertaerak lurralde historiko horietan gertatu dira) foru-fiskaltzen irizpidea, oro har, hau zen: lehentasuna ematea emandako dekretuari geroago lortutako dokumentazioaren aurretik. Edonola ere, foru-aldundietako haurren zerbitzuek erabakia ontzat hartzen zuten eta horren arabera jokatzeko zuten. Hala ere, ez da horrela gertatu kasu guztietan, aipatu kexek jarduketa okerren balorazioa jaso baitute, 2013ko [ekainaren 10eko](#), [irailaren 19ko](#) eta [irailaren 19ko](#) ebazpenetan ikus daitekeen bezala. Kexa horietan bi alderdi nagusi azpimarra ditzakegu:

- Beharrezkoa da egoera bakoitza banaka aztertzea, beharrezkoa balitz Probintziako Fiskaltzari irizpide bereziak ezartzeko eskatuz eta erabat pareka ezin diren egoerentarako irizpide orokorrak automatikoki aplikatzearen ondorio negatiboak gaituz.
- Probintziako Fiskaltzaren erabakia, adingabetasuna zehazten duena, ontzat hartuta, haurrak babesteko zerbitzuek haurraren tutoretzari eta arreta osoari atxikitako betebeharrak gauzatu beharko dituzte, inolako salbuespenik gabe, baita haurrak administratiboki legezatzeko eta defendatzeko helburua dutenak ere, bere interesekin zerikusirik ez duen jarduketa edo erabaki baten ondorioz kalteak erator dakizkion kasuetan. Edonola ere, irizpide hori jada azaldu zuen erakunde honek [18/2006 Ebazpenean](#) (18/2006 Ebazpena, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiari egina, tutoretzapeko adingabea babestean jarrera eraginkorra izan dezan).

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen tutoretzapeko bakarrik zeuden adingabe etorkinek beste arazo bat izan zuten kasu batzuetan: **errolatzean** atzerapenak izatea pasaportea ez zuten bitartean. Arazo horri erantzun zion Arartekoaren [5/2011 Gomendio Orokorrak](#), [urriaren 17koak](#).

Gomendio horretan, erroldan izen-ematea arautzen zuen araudia aztertzen zen eta udalen askotariko praktika. Oro har, udalei eskatzen zitzairen pertsonen interesen aldekoa izango zen moduan aplikatzeko araudia, eta haurren esparruan herri-administrazioek dituzten betebeharrak aintzat dituen jarduketa-protokolo bat egiteko (dagokion foru-aldundiarekin hitz eginez). Izan ere, ezin dira betebeharrak horiek auzotik gehiago egoteagatik hitzartutako lekuak baino. Gomendioa hedatu zenetik bi urte igaro ondoren, Barakaldo, Bilbo, Galdakao eta Loiu udalerrietan zailtasun batzuk izan direla aipatu da. Horren ondorioz, ofiziozko ikerketa bat hasi zen lau udalerrietan. Ondorio gisa esan dezakegu guretzat pozgarria dela egiaztatzea adierazitako zailtasunak gaituz direla, bai praktika egiatan aldatu zelako, baina adingabe bakar bat ere erroldatzeko ahalegina ez zelako egin (ziurtzat jo baitzen ez zela posible izango, gomendioa egin aurretik gertatzen zen bezala), bai ofiziozko eskuhartze horren ondorioz kasu horietan nola jokatu behar den adostu delako azkenik.

2.4. Kultur jarduerak, kirola eta aisia

Nahiz eta azken urteetan **gazteen lonjetatik** zetozen zaratekin lotutako kexak areagotzen ari, 2013an egin dira gai horrekin lotuta kexa gehienak. Txosten honen II. kapituluaren 1. atalean, Ingurumen (zaratak: kutsadura akustikoa) izeneko epigrafean, jasota badaude ere, jolas- eta kulturajardueren esparruan lonja horiei buruz hitz egingo da, gazteentzako topagune eta aisialdirako leku gisa zer-nolakoak diren azpimarratzeko xedez.

Nerabeen eta gazteen taldeek merkataritzako lonjak biltzeko eta aisialdirako lokal gisa erabiltzea gure udalerrietan indarra hartzen ari den errealitate bat da. Euskal Autonomia Erkidegoan egindako azterketa batzuen arabera, lokal horien erabilera mota hau sendotzen ari da euskal gazteen artean elkargunerako eta aisialdirako espazio nagusi gisa. Hala ere, nahiko berria den fenomeno horrek eztabaida ugari sortu ditu: aisialdiko jarduera horrek ingurumen-kontrolarekin, eraikinetako segurtasunarekin eta lokal horiek behar dituzten arriskuen prebentzioarekin behar bezala bat datorren ala ez.

Gai horien inguruko azterketa zehatzago bat egiteko, ofiziozko espediente bat egiten hasi da. Horren bidez, gazteen aisialdiko jarduera hasiberri horren gizarte- eta zuzenbide-testuinguruari buruzko eta jarduera horrek eragin ditzakeen arazoak kontrolatzeko udalek dituzten aukerei buruzko informazioa bildu nahi da. Hori guztia, lonjen erabiltzaileen, lonjen jabeen, inguruko auzokoen eta tokiko administrazioen eskura gai horien inguruko irizpide eta printzipio orokor batzuk ezartzeko. Xede horrekin, informazioa bildu da lonja mota horien funtzionamendua arautzeko dauden udal mekanismoei buruz, eta segurtasun-, higiene- eta intsonorizazio-neurrien inguruan eskatutako gutxieneko baldintzei buruz. Horrez gainera, interesgarria da kontrolatzeko eta ikuskatzeko funtzioak, inguruko auzokoen salaketak jasoz gero udalak aurreikusitako jarduketak eta inplikatuak eta kaltetuek eskura dituzten udal informazioko zerbitzuak nola betetzen diren ikusteko egin den azterketa.

Ikerketako esparru berean, 2013ko azaroaren 14an [EUDELek](#) eta Arartekoak elkarrekin antolatutako jardunaldian parte hartu genuen “*Gazte lokalak: Horien erabilpena eta giza bitartekaritzarako udal jarduketak*”. Topaketa horretan, euskal udaletako 100 ordezkari eta teknikari baino gehiagoren aurrean ezagutzera eman ziren Euskal Autonomia Erkidegoan udalek gazteen lonjen erabilera arautzeko eta manatzeko, lonja horiek hiri-ingurunera egokitzeko eta gazte erabiltzaileen eta auzokoen elkarrean artean bitartekaritza-lanak egiteko egindako erreferentziarako jarduketan adibideak.

Ondorioak ateratzeko gaude oraindik.

Eskolako kirolaren esparruko kexek elementu bera izan dute 2013. urtean: kirol-eskaintza diseinatzean eta kirolaren praktika antolatzean genero-berdintasuneko irizpideen aplikazioa oraindik eskasa izatea.

2013ko ekainaren 19ko Ebazpenean (Horren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalarari gomendatzen zaie futboleko aritzeko espazio publikoetan eta, bereziki, Kontxako hondartzan, neurriak har ditzaten eta txapelketa maskulinoak eta femeninoak berdintasun irizpideei jarrai joka daitezkeen) irakur daitezkeen bezala, Donostiako gurasoen talde batek Arartekora jo zuen kexa bat aurkeztera. Guraso horien seme-alabek (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila) beren ikastolako taldean parte hartzen zuten, [Gipuzkoako Foru Aldundiarekin](#) elkarlanean antolatutako Eskolako Kirola programako jardueretan, eta azaltzen zutenaren arabera, programa horretan ospatutako futbol-partidak Kontxa hondartzan jokatzen ziren, baldin eta mutilen taldeen edo talde mistoen artean jokatzeak baziren. Nesken taldeen arteko partidak, aldiz, Añorgako eta Puioako futbol-zelaietan jokatu behar ziren, praktikan aplikatutako antolaketa-irizpideen arabera. Guraso horien ustez, nesken arteko lehiaketak gizarte-ikusgarritasun gutxiagoko lekuetara zokoratzen ziren horrela, eta botere publikoen jarduketan nagusi izan behar duten errespetuaren eta genero-berdintasuna sustatzearen irizpideen aurkakoa zen hori.

Gure ebazpena eman ondoren, [Donostiako Udala](#), arazoaren konponketan inplikaturiko zegoena, nahiz Gipuzkoako Foru Aldundia bat etorri ziren gure ebazpenaren oinarri zen analisiarekin, eta bereziki esanguratsua izan zen foruerakundearen erreakzioa, kontuan izandako Eskolako Kirola Programan zer-nolako garrantzia duen bere lanak. Ondorioztatu zuen erabilitako irizpideek ez zutela inolaz ere arazoitzen Eskolako Kirola Programaren esparruan futboleko jokatze espazioak sexuaren arabera bereizita erabiltzea, eta bi konpromiso hartu zituen: batetik, futboleko jokatze espazioen erabileran sexu-arrazoigatiko bereizketa eraginkortasunez kentzeko beharrezko neurriak abian jartzea ahalik eta eperik laburrenean; eta bestetik, oro har neskek egiten duten kirolari eta, batez ere, nesken arteko futbolari, ikusgarritasun handiagoa emateko ekintza positiboak abian jartzea programa horretan esku hartzen duten gainerako eragileekin batera, espazio eta presentzia publiko handiagoa lortzen joan dadin.

Arartekoaren 2013ko apirilaren 22ko Ebazpenean (Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailari hainbat neurri gomendatzen zaizkio Eskola Kirola Programan kimu-kategoriako kirolarientzat “errendi-

menduko” emakumezkoen ligarik ez dagoelako) planteatzen den egoeran, ama batek azaltzen zuen bere 11 urteko alabak ez zuela futboleko bere adin bereko mutilen baldintza beretan jokatze aukerarik. Izan ere, kimu-kategoriako mutilek “errendimenduko liga” batean parte har dezakete, baina kategoria horretako neska futbolariak ez dute horrelako aukerarik. Egoera hori ikusita, erreklamatuak Gipuzkoako Foru Aldundiari baimen berezi bat eskatu zion, bere alabak haur-kategoriari zegokion emakumezkoen ligan parte hartu ahal izateko, adinaren arabera bigarren urteko kimua izan arren. Adierazitakoaren arabera, ez zuen inolako erantzunik jaso.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako erantzuna aztertzean, [125/2008 Dekretuan](#) (“*eskolako kirola ikasleen hezkuntza osoko prozesuaren baitan uztartu behar da, hezkuntza-sistemaren helburu orokorrekin bat, eta ez du lehiaketara bakarrik bideratuta egon behar*”) ezarritako printzipioei buruzko hausnarketa osatzeko, aipatu jarduketaren analisisan genero-ikuspuntua aintzat hartu ez izanaren falta igarri zen, [4/2005 Legeak](#), [otsailaren 18koak](#), [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak](#), eskatzen duen bezala. Izan ere, politika publikoak diseinatzeko eta gauzatzeko garaian, beharrezkoa da aintzat hartzea zenbait esparrutan genero baten nahiz bestearen presentzia orekarik ez izatea pertsonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko oztopo bat dela, gizarteak esleitzen dizkien egoeretako eta roletako sexismoaren ondorio bat izateaz gain.

Kasu honetan antolamendu juridikoak eskatutako genero ikuspegia gaineratzeak, gure ustez, bi kontu dakartza berrekin:

- Alde batetik, nesken kirolaren antolamendua bideratzeko beharra eta, bereziki, kimu-kategoriako futbola, haien egoera eta itxaropenak kategoria bereko mutilek dituztenekin guztiz parekatu dadin, hau da, baita kirola errendimenduko edo lehiaketako kirolera bideratzen hasteari dagokionez ere.
- Bestalde, ondorioztatu dezakegu ukatze hori zeharkako diskriminazioa dela, 4/2005 euskal legearen 3.1. b) artikuluan deskribatuta azaltzen den moduan. Hain zuzen ere, foru erakundeak printzipioz neutroa eta zuzena den irizpide bat aplikatzeak, hau da, kimu-eta benjamin-kategoriako kirolarien artean kategoria aldaketarik ez baimentzeak -salbuespenak izan ezik- praktikan eragin zuen neska horrek, sektore maskulinotua batean, bere kategoria bereko mutil batek dituen aukera berak ez izatea. Egoera horrek, eskola kirola erregulatzen duen araudiaren babesean, eskatutako moduko kategoria aldaketa bat eskuratzeko aukera eskaintzen duen salbuespeneko egoera justifikatzen zuen.

Horren ondorioz, gomendagarria litzateke foru-aldundiak aintzat hartzea irizpide hori, etorkizunean jaso ditzakeen antzeko eskaerak ebazterako garaian, azaldukoak bezalako beste bereizketa batzuk berriz gerta ez daitezkeen.

2.5. Osasuna

Esparru honetan, alderdiek eskatuta egindako kexa gehienak osasun-sistema publiko orokorraren funtzionamenduari buruzkoak dira, baina bereizitasun bat dute,

kaltetutako pertsonak haurrak edo nerabeak dira: itxarozterrendak, desadostasunak emandako tratuarekin eta abar. Hala, ez da beharrezkoa orain eutsiko diogun [ohiko txostenaren II.12. atalean](#) jasotakoak ez diren beste azalpen batzuk ematea.

Era berean, araudiaren inguruko berrikuntza nagusiak osasun-sistema publiko orokorraren esparruan egin dira, eta oraindik onartuta ez badago ere, azpimarragarria da Haurren eta nerabeen psikiatria espezialitatea aintzat hartu izana [Osasun-zientzietan espezializatutako osasun-presakuntzako sistemako ardatzasuna eta beste alderdi batzuk arautzen dituen Errege Dekretuaren proiektuan](#). Kolektibo profesionalek, zientzia-elkarteek eta gizarte-erakundeek behin eta berriz eskatu zuten espezialitate hori aintzat hartzea.

Aipamen horren bidez, **haurren eta gazteen osasun mentalaren** arloan sartzan gara. Urtero eskaintzen dizkiogu paragrafo batzuk gai horri, osasun-arazo mota horiek dituzten haurrek eta nerabeek zaurgarritasun handia baitute.

Bulego honen 2012ko txostenean, [Osakidetza-Euskal Osasun Sistemari](#) egindako [gomendioa](#) jasotzen zen. Gomendio horren bidez, Osakidetzari eskatzen zitzaion [nortasun nahasmenduak](#) dituzten pertsonen –gure biztanleria gazteari bereziki eragiten diete nahasmendu horiek– arreta emateko berariazko programak egitea eta hartzea, sektore arteko lanketa terapeutikoa oinarri dutenak eta egiaztatutako eraginkortasuna dutenak, laguntzaren kalitatea areagotze aldera eta, horrenbestez, nahasmendu horiek dituzten gaixoen eta beren familien bizi-kalitatea hobetze aldera.

Arartekoak eskatzen zuen Euskal Autonomia Erkidegoan nortasun nahasmenduetan espezializatutako unitate bat abian jartzeko eguneko ospitaleko modalitatean. 2008. urtetik zegoen eginda unitate hori egiteko proiektua, baina haren ezarpenak ez zuen inolako aurrerapenik izan azken lau urteetan, ezarpen horren alde behin eta berriz agertu bagara ere. Bere erantzunean Osakidetzak hitzeman zuen *“nortasun-arazoak dituzten nerabeentzako Eguneko Unitateak sortzeko proposamenak”* baloratuko zituela eta ziurtatu zuen *“aurreikusteko modukoa dela urtebeteko epean abiaraztea”*.

[Osasun Sailak](#) duela gutxi esan digunez, [Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak](#), ikerkuntzaren eta esku-hartze ildo berrien garapenaren arloan, nortasun-nahasmenduei partzialki edo guztiz lekua ematen dieten programa batzuk abiarazi ditu, bai tratamenduari bai jarraipenari dagokionez; besteak beste, nerabeentzako eguneko unitatea, ospitale horretako eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko 8 klinikok osatutako taldeak, O. Kemberg-ek gainbegiratuta, egindako transferentzia-psikoterapia, eta jokabide-terapia dialektikoko trebetasunetako talde egonkorrak. Baiezta-tu du horren bitartez Bilbo Handiko eskualdean dauden nortasun-nahasmenduen zati handi bati arreta ematen diotela.

Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren ustez, hilabete batzauk barru *“ospitale guztiek paziente eta senideei zuzendutako informazio-foiletok izango dute, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko informazioan oinarritua, eta Lurralde Historiko bakoitzari egokitua.”*

Orain dela gutxi jakinarazi digute Basurtuko Psikiatria Zerbitzuak egindako protokoloaren transmisio bat egon dela. Adierazi digunez, *“protokolo horrek gomendioetan aipatutako kontuei heltzen die: patologiari buruzko informazioa, azterketa, eskuragarri dauden tratamenduak, patologiarekin berarekin lotutako gatazken aurkezpeneko gertaerak eta haien ebazpen arrazoitua. Kontsultatutako zerbitzuetan, berezkoak dituzten ezaugarriek protokoloak gehitu eta egokitu zaizkie. Uste dugu lehendik antzemandako harreman-arazoak hobetu direla, kontu gatazkatuak hobeto mugatu direlako eta gaixoak hasieratik bertatik parte hartu duelako”*.

Gainera, Osakidetzak hauxe adierazi zuen: arlo horretako profesionalak prestatzean, *“bateratu egingo dira, Psikiatriako Zerbitzua duten Ospitale Orokorretan eta Osakidetzako Ospitale Psikiatrikoetan, arauak ez betetzeagatik helburu terapeutikoekin alta emateko arrazoiak. Horrela, jasota geratuko da pazienteak beren asistentzia-eskubide guztien jabe izango direla, eta arreta jaso ahal izango dutela: bai presako patologiagatik, edozein unetan; bai ingresua eragin zuen patologiagatik, pazienteen tratamenduan inplikaturako zentro guztiek zehaztu beharreko epe batean.”*

Halaber, patologia horrekin lotuta, 2013. urtean, [AVATI-Nortasun nahasmenduak dituzten kaltetuen eta haien familien euskal elkartearekin](#) lankidetzaren dinamika bati ekin zitzaion. Elkarrekin funtzio psikosozial, psikohezitzaile eta autola-guntzaileak du. 40 familia bazkide artatzen ditu, eta 120 familiak baino gehiagok informazioa eta aholkularitza eskatzen dute. Elkarrizketan gai hauek aipatzen dira batez ere:

- Esaten dute Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistema publikoak nortasun nahasmenduak tratatzen dituzten profesional bikainak dituela, baina oso gutxi direla. Gainerako profesionalek prestakuntza falta dutenez, zailtasunak izaten dira diagnostiko egokia emateko.
- Ezinbestekotzat jotzen dute sistemak arazoari heltzean ereduari edo paradigmatari buruzko erabaki bat hartzea (dialektika-konduktuala, analitiko funtzionala eta abar), profesionalak prestatzeko, zehaztasun metodologikoe-kin bukatuz.
- Krisi-egoeren arretan profesionalak gehiago inplikatzeko eskatzen dute. Ohartarazten dute nahasmendu horiek dituzten pertsonen krisi-egoeretan zigortuak izan daitezkeen egintzak egiteko eta beren burua zauritzeko (gaixotasun horiek dituzten biztanleriaren artean suizidioen indizea 50 aldiz handiagoa da nahasmendu horiek ez dituen biztanleriaren artean baino; oso egoera arriskutsuetan jartzeko joerak ere ugariagoak dira gaixotasun hori duten biztanleriaren artean) arriskua erreala dela. Horrenbestez, krisi-une horietan arreta handiagoa eta gaixoari gehiago eustea eskatzen dute (oro har, krisi-une horiek ez dute egun edo bi baino gehiago irauten). Oro har, despertsonalizazio-egoerak dira eta larritasun izugarria sortzen dute.
- Ezinbestekotzat jotzen dute, krisiei aurre egiteko protokoloak hainbat neurri aintzat hartzea:
 - Krisian, gaixoari eustea. Egoiliarren giza kalitatearen arabera, pertsona gaixoarekin sufrimendu-maila

handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. Funtsezkoa da alderdi hori azpimarratzea.

- Poliziaren esku-hartzea beharrezkoa den kasuetan, agenteak uniformerik gabe bertaratzea. Esku-hartze horietan laguntzeko erizainak izatea.
- Beharrezkotzat jotzen dute osasun-sistema publikoak protokolo bat izatea, muturreko nortasun nahasmenduetan gaixoak bere buruaz beste egiteko arriskua da goenerako.
- Psikoterapia-baliabide gutxi daudela irizten dute. Familia horien uste, *“botikek ez itotzen laguntzen dute, baina ez igeri egiten”*.
- Oso kezkatuta ageri dira nortasun nahasmendua duten gero eta gazte gehiago baitaude, etxean bakartuta egoten dira ordenagailuaren aurrean, eta ustekabeen, kanpora ateratzen dira eta egoera lasgarriak sortzen dituzte. Azpimarratzen dute garrantzitsu adela oinarriko gizarte zerbitzua keta esku-hartze hezitzaileko taldeak inplikatzeko, alertako oinarriko tresna gisa.
- Beharrezkoa irizten diete fase goiztiarretan arreta sustatzeari eta hezkuntzaren esparruan prestatzeari, berritzeguneeen jarduketaren bidez.
- Premiazkotzat jotzen dute erakunde honek lehenago aipatutako ebazpenean eskatzen duenaren antzeko unitateak sortzea hiru lurralde historikoetako bakoitzean.

Osasun Sailak eta Osakidetzak aipatu Ebazpena betetzeko eman zituen urratsak baino lehen egindako gai horiek kontuan hartuta, beharrezkoa izango da elkartearekin berriz egiaztatzea.

Elkartearekin egindako bileren esparruan, bestalde, salatzen zuten adingabe arau-hausleentzako sartzeko-baliabideetan ez zegoela legeak eskatzen dituen sartzeko terapeutikorako lekurik. Baliabide horien arduraren duen Eusko Jaurlearitzako [Herri Administrazio eta Justizia Saileko](#) informazioa bilduta, elkarteari jakinarazi genion nola antolatzen zen nerabeen osasun mentala gazteen justizia-sisteman.

Zumarragoko Ibai-ondo zentroan sartzeko terapeutikorako lekurik zegoen ala ez zegoen galdetu genienean, erantzun ziguten, epaitegiek sartzeko terapeutikoko neurria ezar dezaketenean heinean, formalki ezarri dela neurri hori betetzeko berritako delako, Ibai-ondoko jarduerako talde oso bat neurri hori betetzeko gordez (7-8 pertsona). Hala ere, egiatan, ez da oso ohikoa neurri hori ezartzea. Zergatik?

- Talde psikosozialak oso argi eduki behar du (epaileak oso aintzat hartzen du talde horren txostena), eskuarki, adingabeak lanketa terapeutikoa behar duela argi eta garbi adierazten duten aurrekariak edo historiala daudelako. Historial hori ez badago, txostenak egin ahal izateko behaketa-aldia ez da behar bezain luzea adingabeak zer osagai psikopatologiko duen zehaztu ahal izateko.
- Adingabeak izan ditzakeen “onurak” (esate baterako, baimenak) lortzeko baldintza gehiago bete behar dira sartzeko terapeutikoko neurri bat bada, beste sartzeko mota bat bada baino.
- Bestalde, epaileek badakite kasu guztietan behaketa- eta diagnostiko-fase bat dagoela (4 aste gutxi gorabehera).

Fase horren ondoren, ondorioztatu bada gazteak lanketa terapeutikoa behar duela, esparru hori aintzat hartzen dituzten ekintzak ezarriko dira esku-hartzeko plan pertsonalean. Eta hori neurriak terapeutikoko adjektiboa duen edo ez duen alde batera utzita. Seme-alabek gurasoen aurka egindako indarkeria delituengatik etortzen diren neska-mutilen kasua izango litzateke adibiderik argiena: Gazte horietako bakar bati ere ez zaio ezartzen sartzeko terapeutikoko neurriak, baina denek jartzen zaie lanketa terapeutikoa bere esku-hartzeko planean (familia-sistemarena, kasu gehienetan), behaketa-fasaren ondoren.

Edonola ere, zerbitzu horietan lan egiten duten profesionalen ikusten dutenaren arabera, mutilak (eta gero eta neska gehiago) gero eta gaizkituagoak etortzen dira, eta horrenbestez, oso ohikoa da (eta gero eta gehiago egiten da) osasun mentalaren esparruan esku hartzea. Horiek horrela, zer erantzun eman dezake gazteen justizia-sistemak?

Lanketa terapeutikoa beharrezkoa dela erabaki ondoren, esku-hartzeak antolatzen dira, osasun mental publikoko eta pribatuko baliabideen bidez: [Fundación Lagungo](#), [Hobetzen programa](#), [Familia-terapiako Euskal Elkarte](#), [Hirusta](#), [CSM Ajuriagerra](#), [Biko Arloak](#)... Eskatzen duten kasu guztietan ematen da arreta terapeutikoa, nahiz eta formatua desberdina izan, nerabea dagoen sartzeko-erregimenaren arabera (I., II. edo III. mailako zentroa),

Ibai-ondo I. mailako zentroa da, eta horrenbestez, mugimenduak egiteko murrizte handiak dituzte. Osasun mentaleko arazoak honela artatzen dira bertan:

- Lehen mailako arretako mediku batek eta erizain batek egunero artatzen dute kontsultan (1-2 ordu). Profesional horren iritziz, egoiliar batek psikiatriako kontsulta behar balu, psikiatrari jakinaraziko dio eta hura zentrorara etorriko da.
- Hilean behin psikiatriako kontsulta dago, gutxienez. Horrez gainera, lehen esan dugun bezala, lehen mailako arretako medikuak eskatzen duenean ere etortzen da.
- Zentroko bi psikologo plaza bakoitzeko batek klinikaren espezializatutako psikologoaren profila du. Egiaz, egun Ibai-ondoren lan egiten duten bi psikologoak daude klinikaren espezializatuta.
- Eta egia esan, lehen esaten genuen bezala, Ibai-ondoren sartuta dauden gazteen esku-hartzeko plan askotan dago sartuta lanketa terapeutikoa, eta ez plaza “terapeutikoa” bat okupa dezaketenen planetan soilik.

Haur eta gazteen osasun mentalaren esparruko azken gai azpimarragarria [jatearen nahasmenduekin](#) dute zerikusia. [ACABE BIZKAIA](#). Anorexiaren eta Bulimiaren aurkako Bizkaiko Elkarteen arabera, gero eta adingabe gehiagok dute nahasmendu hori, eta emakumeak izaten dira batez ere. Aurten lankidetzan hasi gara elkarrekin. Elkarrekin horren ustez, osasun mentaleko zentroek (bai haurrenak eta gazteenak, bai helduenak), oro har, arreta egokia ematen dute, eta profesionalen inplikazio handia dute arazo horrekin. Hala ere, zenbait hobekuntza-arlo aipatu dituzte, bai eta zenbait alderditan arreta ez dela nahikoa ere:

- Ezin dira egoki artatu euskal osasun-sisteman larritasun handiagoko kasuak ospitaleratzearen bidez. Zerbitzu

hori dagoenez, ez dago hitzarmenik beste erakundee-kin, hala nola [Institut de Trastorns Alimentaris](#) erakundearekin, arreta egoki bat bermatzeko. Erakunde horrek, beste autonomia-erkidego batzuekin hitzarmena egin da duenak, ospitaleratzea eta gaixoa dagoen fasearen araberako gainbegiratze-mailak dituzten tutoretzapeko etxebizitzaren sare bat du.

- Arretaren kalitatea murriztu egiten da, gaixoa helduarora iristen denean.
- Beharrezkoa litzateke psikologiako profesionalen lan terapeutikoa areagotzea, psikiatrik egindako lan garrantzitsua osatzeko. Familiekin egindako lan terapeutikoan eta jantokiko zerbitzuan (nahasmenduari aurre egiteko beharrezko jarraibideak ikasteko) berariaz behar dela aipatzen da, ez baitute horrelako profesional bakar bat ere.
- Unitate espezializatu bat sortzeko eskatzen dute.
- Jatearen nahasmenduen eta nortasun nahasmenduen komorbilitatea oso ohikoa denez, Arartekoak gomendatutako eguneko ospitalea, aurreko paragrafoetan aipatu dena, nahasmendu horiei heltzeko urrats garrantzitsu bat izango zela irizten dute.

Gaixotasun kronikoak dituzten adingabeei dagokienez, aurtan Bulegoaren 2012ko txostenean azaldu genuen informazioa eguneratuko dugu, zehaztasun handiagoz. Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen oro har eragiten dieten gaiei buruz, edonola ere, informazio zehatzagoa ematen da [ohiko txostenaren gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen buruzko atalean](#).

Metabolismoaren sortzetiko gaixotasunei dagokienez, 2013ko urtariletik aurrera Osakidetzaren jaioberrientzako baheketa programan bost gaixotasun berri sartzeko proiektua egon arren –Homozitituria, Astigar Xarabearen Gaixotasuna (MSUD), 1 motako azidotatun glutamikoa (GA), azidemia isobalerikoa eta kate luzeko gantz-azidoen Acil CoA deshidrogenatuaren eskasia (LCHADD), praktikan ez dira sartu. Osasun Sailak jakinarazi 2014ko otsailan sartzeko aurreikusita dagoela.

Prebalentzia baxuko gaixotasunei dagokienez, aipatu behar da urteko azken egunetan Euskal Autonomia Erkidegoko gaixotasun arraroen erregistroaren sorrerari eta funtzionamenduari buruzko [dekretua](#) onartu zela. [Gaixotasun arraroetarako estrategiaren Euskal Autonomia Erkidegoko ekintza-planaren](#) (Euskal Autonomia Erkidegoko gaixotasun arraroak hobeto ezagutzeko, artatzeko eta arlo horretako ikerketa hobeto koordinatzeko neurrien multzoa, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunerako Ministerioak [Osasun Sistema Nazionalako Gaixotasun Arraroen Estrategiarekin](#) lotuta aurkeztutako 2011/2012 Lanerako Plana oinarri duena) helburuetako bat zen erregistro hori sortzea.

Linfedemak dituzten pertsonen kolektiboak jakinarazi ditu aurrerapen nabarmenak egin direla bigarren mailako linfedemaren arretan, baina ez dela gauza bera gertatu lehen mailako linfedemari emandako arretan. Bulegoaren aurreko txostenean azaltzen zen bezala, linfedema haurtzaroan diagnostikatu ohi da, eta diagnostikorik eta ondoko tratamendurik gabe, gaixoaren bizi-kalitateak nabarmen egiten du okerrera.

Aurtan, Osasun Sailari behin eta berriz esan diogu beharrezkoa dela linfedema duten pertsonen taldeak egindako proposamenak aintzat hartzea, pixkanakako gaixotasun kroniko hori prebenitze aldera (gaixotasun horren gradurik aurreratuenari eta larrienari elefantiasis esaten zaio), eta baita komenigarria dela [Best Practice Guide for the Management of Lymphedema](#) europar praktika klinikoko eskuliburuari, gaur egun gure ingurune hainbat herrialdetan erabiltzen denari, behatzea. Kolektiboak azpimarratzen du beharrezkoa dela osasun-sistema publikoak gaur egun ordaintzen duena baino gehiago ordaintzea beharrezko neurriak eta atzandelak, profesional prestatuak egindako drainatze linfatikoaren saioen kopurua handitzea, eta lehen mailako linfedemaren kasuen jarraipena eta tratamendua bermatzea.

Azkenik, aipatu behar dugu aurtan kexa bat jaso dugula, Dravet sindromea duen adingabe bati egindako mendekotasunaren balorazioaren emaitzarekin ados ez egoteari buruzkoa. Patologia horren berri eman genuen [Bulegoaren iazko Txostenaren II. kapitulu](#)ko 2.2.4. atalean. Mendekotasun-egoeran dauden adindunei eta pertsonen buruzko [ohiko txostenaren III.11. kapitulu](#)an luze eta zabal azaltzen da egungo balioztapen-baremoa aplikatzeak eta baloratutako pertsonen laguntza- eta gainbegiratze-beharrak kontuan izanda ulertezinak diren mailakaketei buruzko hautemateak –gurekin informazioa aldatzeko aukera ematen diguten sare publikoko osasunaren arloko langileek edo gizarte-langileek adierazten dutena– ematen dituzten emaitzen inguruko erakunde honen kezka.

2.6. Mendekotasun-egoeran dauden adingabeak

2.6.1. Mendekotasun-egoeran dauden adingabeak eta mendekotasuna artatzeko gizarte zerbitzuak eta espazio soziosanitarioa

39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, autonomia pertsonalari sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, babesten du mendekotasun-egoeran dauden haur eta nerabeen arreta, oinarritzko arau gisa, eta 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, gizarte zerbitzuei buruzkoak, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eta espazio soziosanitarioa arautzen dituzten gainerako arauak osatzen dute Lege hori neurri handi batean. Hala, mendekotasunaren esparruan aurtan gertatu denak, [ohiko txosteneko](#) mendekotasun-egoeran dauden adindunen eta pertsonen inguruko atalean zehaztasun handiagoz azaltzen denak, eragina du baita mendekotasun-egoeran dauden haurren arretan.

Estatu-mailan argitaratu diren araudien berrikuntza nagusiek, aipatu ohiko txosteneko atalarekin lotutakoek, zehaztasun handiagoz dute [gutxieneko babes-mailaren araudiarekin, Autonomia Pertsonala eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemaren prestazioekin eta informazio-sistema berriekin](#). Horrez gainera, irizpideak, gomendioak eta gutxieneko baldintzak ezartzen dituzte [prebentziorako eta autonomia pertsonala sustatzeko planak](#) egiteko. Autonomia-erkidegoaren esparruan, 2013. urtean aurrerapen interesgarri

bat gertatu da 12/2008 Legearen, abenduaren 5ekoaren, gizarte zerbitzuei buruzkoaren, garapenean, [Fitxa Sozialaren tresna tekniko](#)ei, [gizarte-diagnostikoa egiteko tresne](#)ei eta [gizarte-bazterkeriaren balioesteari](#) eta diru-irabazi asmorik gabeko erakundeak [gizarte-intereseko deklarazeari](#) buruzko dekretuak onartu direnean. Era berean, arreta goiztiarra, zerbitzuen hitzartzea, minusbaliotasuna duten pertsonentzako egoitzak, minusbaliotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak eta zentro okupazionalak eta gizarte zerbitzuen informazio-sistema arautzen duten dekretuak ere izapidetze-fasean daude. Aipamen berezi bat merezi du, bere garrantzi bereziagatik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautuko duen dekretua egiteko prozesuak. Prozesu horretan, interesgarritzat jo dugu egungo zirriborroak sortzen zizkigun oharrak, zalantzak eta gogoetak helaraztea, herritarren kexen izapidetzearekin, kexa horien ebazpenekin, gomendioekin, urteko txostenekin eta txosten bereziekin lotutako Arartekoaren aurretiko iritziekin zerikusia zuten gaitan. Ekarpen horietako batzuek azpimarratzen dute, gure ustez, oro har mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko sistemaren funtzionamendua hobetu beharko litzatekeela (sistema horren onuradunak izango lirateke mendekotasun-egoeran dauden haurrak) eta beste gutxi batzuk mendekotasun-egoeran dauden haurren inguruko berriazko ekarpenak dira. Gai horren inguruko gure kudeaketan emaitza [ohiko txostenaren III.11. kapitulu](#)an azaltzen dira.

Foru-aldundiek eman zizkiguten artatutako mendekotasun-egoeran dauden pertsonen buruzko datuak ditugu, baina datu horiek ez daude adinaren arabera banakatuta. Baina idatziz jasota dauden prestaziorako eskubidea duten 46.529 pertsonen Autonomia Pertsonala eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemaren Informazio Sistemak emandako %4,81eko ehunekoa, 18 urtetik beherako pertsona onuradunak dagokiona, aplikatzen badiogu, kalkula dezakegu jarraian labur-labur azaltzen dugun egoerak Euskal Autonomia Erkidegoan 2.200 haur ingururi eragiten diela. Hala, eta mendekotasunaren arretarako sistemak 2011. urtetik hona izandako bilakaerari dagokionez, hau esan dezakegu:

- Esleituta duten prestaziorako eskubidea duten pertsonen ehunekoa nabarmen hobetu da.
- Biztanleriari dagokionez, izapidetutako espedienteen ratioa handitu da.
- Ebazpen-maila hobetu da (irizpenen ehunekoa espedienteen kopuruaren gainean).
- Esleitutako prestazioa duten pertsona onuradunen tasak gora egin du biztanleriarekiko.
- Prestazioen ratioa mantendu egin da pertsona onuradun bakoitzeko.

Prestazio motei dagokionez, familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoak gailendu egiten dira gainerakoan artean (ia %50 dira), eta adingabeentzako datu banakatua ez badugu ere, hainbat azterketen arabera, adin-talde horretan prestazioen ehunekoa handiagoa ere izango litzateke. Hori dela eta, eragin handia izan du Estatuak [2012an onartutako](#) pertsona zaintzaileen Gizarte Segurantzako

kotizazioak kentzeak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak ere atzera bota du finantziario hori, esaten digutenez, eskumeni kez izateagatik eta kotizazio horien kosteei aurre egin diezaioketen aurrekontu-partidarik ez izateagatik. Hala ere, eta iaz adierazten zen bezala, gure administrazioek zainketa horien kalitateari eta egokitzapenari buruz egindako azterketek eta jarraipenek, bai mendekotasun handiko egoeretan bai mendekotasun larriko nahiz ertaineko egoeretan, zainketa horien gaitasunaren aldeko oso ondorio positiboak ematen dituzte.

Bukatzeko, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen esparruan kexetatik, eta horrenbestez, mendeko haurrei ere eragin diezaioketen egoerei buruz ohartarazten egon daitezkeenetatik, hau esan dezakegu:

- Mendekotasunaren [balorazioen emaitzekin](#) eta beharrezko joera duten azterketekiko desadostasunak biltzen jarraitzen da, [baremo berria](#) aplikatu ondoren. 2012. urtean Arabako Foru Aldundiak egindako balorazioetan hori nabarmena bazen, aruten beste bi foru-aldundiek egindako balorazioetan ere hautematen hasi da joera hori. Berriz adierazi behar dugu emaitza horiek ondorio negatiboak dituztela, eta zenbait zerbitzu eta prestazio eskuratzeko aukera mugatzen dutela.
- Nabarmen murriztu da mendekotasunaren balioztapenean izandako [atzerapenei](#) buruzko kexen kopurua. Arreta goiztiarrari buruzko ondoko atala irakurri ondoren, pentsa dezakegu 0 eta 3 urte arteko (0 eta 6 urte artekoak Bizkaian) mendeko haurren kasuan ez dagoela ia horrelako atzerapenik.
- Mendekotasunaren arretan [lurraldeen artean desorekak](#) izatea oraindik ulertezina da herritarrentzat. Puntu honetan, zentzuzkoa da pentsatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautzeko dekretua onartzea, gizarte zerbitzuen maparekin batera, abiapuntu bat izango dela, desoreka horiek pixkanaka zuzentzeko.

2.6.2. Arreta goiztiarra EAEn

2011ko otsailean Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluak "Arreta Goiztiarrerako Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako" onetsi zuen diziplina ezberdinen artean behar bezala koordinatutako arreta eskatzen duten garapen-arazoak prebenitzeko eta tratatzeko jarduerak konpromiso gisa. Izan ere, mota horretako arazoek alderdi asko izaten dituztenez, koordinazio hori ezinbestekoa suertatzen da.

Garai hartan bertan, [EAEn Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta emateko Legearen aplikazioari buruzko ezohiko txostena](#) aurkeztu genien Eusko Legebiltzarrari eta herritarrei. Txostenak 2006an onetsi zenetik Mendetasunari Arreta emateko Legeak (MAEL) izan duen hedapenari eta garapenari buruz eta, batez ere, lege horrek mendetasun-egoerei arreta ematerakoan izan duen benetako eraginari buruz erakunde honek egin duen ikerketa sakonaren berri ematen zuen. Txostenak, amaieran, hainbat gomendio ematen zituen. Horietako batzuk arreta goiztia-

rrari buruzkoak ziren, esaterako 11.22¹, eta beste batzuek, aldiz, haren inguruko aipamen ezberdinak egiten zituzten, esate baterako 4.4², 6.1³ edo 11.11⁴.

Aurrekari horiek eta gizarteak zein interesdunek edo/eta kaltetuek antzemandako gabeziak ikusita, eta horiek planteatutako hobekuntza-proposamenak kontuan hartuta, [Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluaren](#) proposamena onartu zenetik bi urte igaro diren honetan jakin nahi genuen arreta goiztiarrerako ereduaren garapen- eta ezarpen-prozesua nola doan, zer-nolako hobekuntzak lortu diren eta zeintzuk falta diren, horrela EAEko arreta goiztiarra hobetzen lagundu eta esku-hartzearen ahulguneak edo gabeziak konpondu ahal izateko.

Arreta goiztiarrerako eredu-proposamenak oinarri zuen diagnostikoak berak agerian uzten ditu garai hartako arreta goiztiarrak zer-nolako ahulguneak zituen: zerbitzuak ez ziren nahikoak, eta ez zegoen zerbitzu pribatuak kalitate-estandarrek bermatzeko xedez homologatzeko orduan espezializazioari, diziplinartekotasunari, irisgarritasunari eta abarri buruz eskatzeko moduko baldintza formalik. Halaber, sistema ezberdinen (osasan-arloa, hezkuntza-arloa eta gizarte-zerbitzuak) arteko koordinazioa ia ez zegoen formalizatuta. Ondorioz, arreta zatikakoa zen (ez zen integrala), sistemen arteko trantsizioak ez ziren bizkorak (horrek ondorio nabarmenak zituen arretaren azkartasunean eta jarraitutasunean) eta hainbat kasu (pertsona) galtzen ziren bidean. Hutsune eta ahulgune horiek konpontzeko xedez prestatu zen hizpide dugun arreta-eredua.

Bestalde, beharrezkoa iruditu zitzaigun kexetan eta gizarte-sarearekin egindako bileretan azaldu ziren gai batzuk kontrastatzea. Honako hauek, adibidez:

- Arreta goiztiarra lortzeko jarraitu beharreko urratsak eta jarraibideak argi eta garbi jasoko dituen agiri bat sortzea komenigarria ote den, Neonatologia Unitateetako gurasoen artean banatzeko.

¹ 11.22 gomendioa. Arreta Soziosanitarioarako Euskal Kontseiluak 2011ko otsailaren 28an onetsi zuen "Arreta Goiztiarreko Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako" agirian jasotako proposamenak eta aurreikuspenak gauzatzeko neurri egokiak martxan jartzea

² Modu integralean erantzutea biztanleriako kolektibo jakin batzuei, adibidez, (...) goizegi, pisu gutxiarekin edo ezgaitasunak izateko arriskuarekin jaiotako umei; (...)

³ Menpekotasun-egoerarako eta autonomia pertsonalaren sustapenerako prebentzio-zerbitzuak bultzatu eta mantentzea: (...); arreta goiztiarra; (...)

⁴ Autonomia pertsonalaren sustapenerako eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arretarako eskubidearen titulartasunari buruzko (...) analisia ikusirik, gure ustez, gure administrazioek bermatu egin beharko lukete honako hauek Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistemara (AMAS) jo ahal izatea: Menpekotasun-egoeran dauden adingabe guztiek, haien jatorri nazionala edo alde aurretiko administrazio-egoera zeinahi izanda ere, berdintasun-printzipioari jarraiki, baita neska-mutilak beren jatorri nazionalagatik diskriminatzeko debekua betez eta adingabeen interesa aldi berean dagoen beste edozein interes legitimoren aurretik lehenesteko printzipioa betez ere. Eskubidearen titulartasuna ezingo du oztopatu haren gurasoen egoera administratiboak, ezta administrazio-egoera erregularrean epe jakin bat daramatela ziurtatu ezin izateak ere.

- Lurraldearen batean itxaronzerrenda luzeen ondorioz arretarik jaso gabe gera daitekeen jendea.
- Programen pertsonalizazio gabezia: saio-kopurua modu estandarrean (?) esleitzen da (edo zerbitzuekin trukatu daitezkeen "bonuak" ematen dira).
- Titularitate pribatuko kanpo-zerbitzuak: instalazioak vs. emandako zerbitzuaren kalitatea (emaitza, familia erabiltzailea pozik dagoen, profesionalak eguneratzea, etab.) balioestea horiek onartzeko edo homologatzeko irizpide gisa.
- Estimulazio goiztiarrerako - logopediarako programetan inplantedun haurrak lehenestea audiofonodun ume gorren aurretik, eta hezkuntza-sisteman arreta nahikorik ez jasotzea (3 urtetik aurrera).

Hori guztia dela eta, "Arreta Goiztiarreko Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako" agirian jasotako proposamenak eta aurreikuspenak gauzatzeko neurri egokiak martxan jartzea aholkatzen zuen 11.22 gomendioari jarraiki, hainbat gairen gaineko informazioa eskatu genien eragindako sailei eta erakundeei. Horien berri emango dugu hurrengo orrialdeetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan Arreta Goiztiarreko Eredua abian jartzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Koordinazio Soziosanitarioak jakinarazi digunaren arabera, eredu hori onartu zenetik, bi funtsezko ekimen egin dira: lehena, araudiekin lotutakoa, hurrengo puntuan azalduko duguna; eta bigarrena, laguntzaren arloko ekimen bat. Azken ekimen horren bidez, Bilboko Eskualdean esperientzia pilotua egin eta abian jarri dira bertan jasotako aurreikuspenak "Premia bereziak dituzten haurrei arreta osoa emateko prozesua" ([PAINNE](#)) egitearen bidez.

Proiektuaren egileen arabera, Berrikuntza Soziosanitarioarako Euskal Fundazioaren—[Etorbizi](#)—laguntza zuzenez finantzatutako proiektuaren helburua hau da: *zerbitzuak berriz antolatzea eta premia bereziak dituzten haurrentzako arretarako osasan-, gizarte- eta hezkuntza-espazio gaur egun dauden baliabideak ondo erabiltzea erraztuko duen gizarte-/osasan-/hezkuntza-arreta integratuko eredu bat [garatzea](#), [prebentzioarekin](#), [diagnostikoarekin](#) eta [esku-hartze goiztiarrekin lotutako alderdietan](#), [beren beharren](#) eta [familiarren beharren arabera](#). Horrez gainera, adierazi dute proiektuaren azken helburua dela *haur horien eta beren familiaren arretan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea, eta osasan-espazioko (lehen mailakoa, espezializatua, osasun mentala) eta gizarte- eta hezkuntza-espazioko laguntza-mailen artean igarotzen laguntzea*.*

Hauek dira ekimen horretako elementu interesgarri batzuk, egindako lana jasotzen duen dokumentu-gidaren aurkezpenean azpimarratu zirenak:

- Hainbat diziplinako eta erakundetako profesional ugari hura egiten parte hartu izana. Adingabeekin eta beren familiekin egin beharreko jarduketaren inguruan ados jartzeko lan egin dute denek. Koordinazioaren, diziplina artekatutasunaren eta abarren praktikan gauzatzea.
- Prebentziozko ikuspuntua izatea. Izan ere, garapenerako arrisku biologikoko faktoreak nahiz arrisku psikosozialeko faktoreak goiz hautemateko prozedurak ezartzen dira.

- Eredu jasagarri bat sortzeko ahalegina, eskura dauden baliabideak eraginkortasun handiagok erabiliz. Jarduketak arrazionalizatzea (batzuetan, bikoiztasunak kenduz), gerta daitezkeen hutsegiteei heltzeko baliabideak liberatzeko.
- Profesionalek, familiarek eta ikastunek zerbitzuen, sailen eta elkarten arteko joan-etorrietan diagnostikatutako disfuntzioei erreparatuz, beste laugarren elementu azpimarragarri bat gehituko genuke, deskribatutako 11 prozesuetako bakoitzean joan-etorri horiei emandako arreta bereziari buruzkoa. Prozesu horietan zehaztuta daude, beste alderdi batzuen artean, zer koordinazio eta desbideratze egin behar diren, zer egoeretan, zer profesionali, zer unitate, sail edo organismori eta zer tresnekin egin behar diren zehaztuz.

Adierazten digutenaren arabera, proiektu hori praktikan jartzea emaitza ezin hobek ematen ari da, eta profesionalak eta pertsona erabiliztaileek egiaztatu dituzte emaitza horiek. Hala, 2014. urtean proiektu hori Bizkaia osora eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetara hedatzea planteatzen ari dira, ildo estrategiko soziosanitarioetako helburu estrategikoetako bat bezala. Hori dela eta, aurreikus daiteke hobekuntza nabarmena izango dela koordinazioko eta sareko laneko alderdi guztietan epe laburrean eta epe ertainean.

Eta gure eskaeran zuzenean planteatutako gaiak dagokienez, informazio hau lortu dugu:

1. Jarraipen Batzorde Teknikoa

2011ko otsailean Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarreko Eredua onartu zenetik, eredu hori egiten lan egin zuten teknikarien eta erakundeetako ordezkarien taldeak Jarraipen Batzorde Tekniko Autonomikoa eratu zuen. Une hauetan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko [Familia Politika eta Gizarte Garapena Zuzendaritzaren](#) mendeko organo bat da. Erakundeen arteko eta diziplina anitzeko organo gisa eratuta dago, eta hauek osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko](#) 2/3 ordezkari. Zuzenbidean eta Soziologian lizentziadunak.
- Foru-aldundietako 3 ordezkari. Mediku errehabilitatzaile/kudeatzaile bat, Arabaren ordezkari gisa; psikologo kliniko bat, Gipuzkoaren ordezkari gisa; eta kudeatzaile bat; Bizkaia-aren ordezkari gisa.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko 2 ordezkari. Hezkuntza-premia berezien aholkulariak.
- [Osasun Saileko](#) ordezkari bat. Mediku bat.
- Osakidetzako ordezkari bat. Mediku neonatologo bat.

Batzordea hilean behin edo bi hilean behin bildu ohi da (Eusko Jaurlaritzako karguak ordezkatzeko aldiak izan ezik), eta onartutako ereduak jasotako ondorioak eta garapena Dekretu kategorian duen lege-testu batean jasotzen egin du lan batez ere. Dekretu horren idazketa jada oso aurreratuta dago. Egiatan, Gizarte Zerbitzuetako Erakunde arteko Organoren eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren testu hori aztertzea nahi dute, 2014ko urtarrean txosten

bat egin dezaten eta, ondoren, Kontrol Ekonomikoko Bulegora eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidal dezaten, Gobernu Kontseiluan aurkeztu baino lehen. Jakinarazi digutenaren arabera, testu horretan balorazio-organoen eta esku-hartze organoen funtzionamendua arautzen da, jarduketak eta profil profesionalak zehazten dira, eta horietatik eratorrita, esku-hartze zerbitzu pribatuak homologatzeko baldintzak eta Jarraipen Batzorde beraren funtzioak ere zehazten dira.

Aldi horretan eta estatuaren esparruan, *2013ko uztailearen 4ko Hitzarmena* onartu da, *Lurralde Kontseiluarena (Gizarte Zerbitzuen eta Autonomia Pertsonalerako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemarena)*, *mendekotasun-egoeran dauden edo mendekotasun-egoeran egoteko arriskuan dauden hiru urte baino gutxiagoko adingabeentzako arreta osoko planen irizpide komunei, gomendioei eta gutxieneko baldintzei buruzkoa*, [Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Estatu Idazkaritzaren 2013ko uztailearen 25 Ebazpenak](#) argitaratutakoa. Autonomia-erkidegoek egiten dituzten Arreta Osoko Planetan aintzat hartu behar dira izenburuan aipatzen diren irizpide komun horiek, eta garatu, eta hala badagokio, zabaldu eta hobetu egin behar dituzte. Hitzarmenak printzipioak eta jarduketa-ildoak azaltzen ditu, hitzarmena argitaratzen denetik hasita urte bateko epea ezarri, autonomia-erkidegoetako planak egiteko.

Dokumentu horretan irakurritakoa kontuan hartuta, esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Eredua bat datorrela azalduko irizpideekin eta jarduketa-ildoekin. Hori dela eta, badirudi ezarritako epean bete daitekeela, baita bere lehen helburuan adierazitako araudiari buruzko atalean ere. Hala ere, egiaztatu behar da arreta goiztiarreko zerbitzuak arautzeko azkenik onartutako dekretuak printzipio eta irizpide horiek jasotzen dituela.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen araudiaren esparruak, edonola ere, eskubide subjektibo gisa bermatzen du mendekotasun-egoeran dauden edo mendekotasun-egoeran egoteko arriskuan dauden hiru urte baino gutxiagoko adingabeen arreta goiztiarra, hitzarmenaren lehen helburuan eskatzen den bezala, Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan arreta goiztiarrean esku-hartze sozialeko zerbitzua berariaz aitortuz. Oraindik ere egiten ari diren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zorroari buruzko Dekretuan zerbitzu hori zehazten eta arautzen duen fitxari egindako ekarpenak, hain zuzen, Jarraipen Batzorde Teknikoak egindako beste lan batzuk izan dira.

Azkenik, aipatu behar da, autonomia-erkidegoan arreta goiztiarra arautuko duten dekretuak oraindik onartu ez bada ere, egungo zerbitzuen funtzionamendua aldatu egiten dela lurralde batetik bestera, ondoko puntuetan ikus daitezkeen bezala.

2. Familiei helarazten zaien informazioa

Hiru foru-aldundiek familiei arreta goiztiarreko zerbitzua eskatu ondoren zer informazio ematen zaien adierazten digute, zehaztasun handiagok edo txikiagok. Kasu guztietan, esku hartzeko planari (adingabeen osasun fisikoa eta psikikoa, helburuak, gurasoen jarrerarako eta esku hartzeko jarraibideak eta abar) nahiz administrazio-gaiei eta prozedura-gaiei (diru-laguntzak, minusbaliotasuna eta/edo men-

dekotasuna aitortzea eta abar) buruzko informazioa ematen zaie. Hala ere, ez da oso argi geratu nola antolatzen den informazioa eskaera egin aurreko fasean. Informazio horrek hasierako uneetan lagun dezake, eta hainbat profesionalak eta zerbitzuek, benetan eta ikusiko dugun bezala, bideratzen ari direnek, eman diezaiekete familiei.

Arabako Foru Aldundiak ez digu puntu horri buruzko informazio zehatzik eman. Aipatu du osasunaren arloko profesionalak, lehen mailako arretako pediatria nahiz neonatologia eta neuropediatriako zerbitzuetako profesionalak, hezkuntzaren arloko profesionalak eta gizarte zerbitzuetako profesionalak egin dezaketela hautemate goiztiarra, baita gurasoek ere. Halaber, arreta goiztiarrari buruzko "Gurasoentzako eskuliburua" ere ezagutzen dugu. Eskuliburua horretan, Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko Balorazio eta Orientazio Zentroa aipatzen da eta kontsultarako eta informazioa jasotzeko leku bat dela esaten da. Hala ere, ez dakigu nork, nola eta zabaltzen eta banatzen den eskuliburua hori edo oro har, nola informatzen duten aipatu "hautemate" horiek eta nola bideratzen den haietatik. *Diputatuaren Kontseiluren 24/2013 Foru Dekretuan, uztailaren 23koan (mendekotasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen duena, baita ere, horrelako kasuetan, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen duena)* irakur daiteke probintzia osoko udal gizarte zerbitzuetan aurkez daitezkeela arreta goiztiarrerako eskaerak, eta baita Balorazio eta Orientazio Zentroan ere. Zentro horretan, ulertu dugunaren arabera, familiei behar duten informazioa ematen zaie, behar adina informazio, baina oraindik ez dakigu nolakoa den eskaera egin baino lehen ematen den informazioa.

Bizkaian, osasunaren arloko, ospitalekoa nahiz ospitalez kanpokoa, eta hezkuntzaren arloko zerbitzuak eta profesionalak aipatzen dira batez ere. Esaten dute familiei informazioa ematen zaiela eta bideratu egiten dituztela, baina baita balorazio-organoaren hileko bileretako batean ezarpen-prozesuetan, informazioa trukatzeko sistemetan, protokoloetan, bideratzeetan eta abarretan aurrerapenak egiten jarduten direla. Horrek pentsarazten gaitu hobekuntza-eremuak bistarazten ari direla gai horri dagokionez. Gai horren inguruan, gogora ekarri behar da erakunde honek 2010. urtean Basurtoko Ospitalearen (Pediatria Neonatologia) eta Bizkaiko Foru Aldundiko **Gizarte Ekintzako Sailaren** arteko koordinazio soziosanitarioari buruz egindako ofiziorako jarduketari esker, jarduketa soziosanitarioko prozedura bat jarri zela abian **Basurtoko Ospitalean** Neonatologia, Pediatria eta Gizarte Laneko sailen partaidetzarekin, gaixoeekin komunikazioa eta osasun- eta gizarte-sistemen arteko harremana errazteko.

Gipuzkoan, gaur egun, ez dute dibulgaziozko liburuxkarik sektoreko familientzat eta profesionalentzat, arreta goiztiarra eskuratzeko aukera errazteko. Badakite beharrezkoa dela, baina arreta goiztiarrerako dekretua, berehala onartuko dela uste dena, onartzearen zain egotea erabaki dute, gai horren inguruko azken informazioa gehitzeko. Bizi diren udalerriko gizarte zerbitzuak bideratuta etortzen dira familiak arreta goiztiarrerako balorazio-taldera, pediatrik, ikastetxeko orientatzaileak eta abarrek edo, batez ere,

Donostiako Ospitaleko Neuropediatria Zerbitzuak (lehen mailako pediatria zerbitzuek edo ospitale bereko beste espezialitate batzuek bideratuta iritsi dira zerbitzu horretara) balorazio-taldera joateko adierazi ondoren.

3. Arreta Goiztiarra Baloratzeko Taldeak (EVAT)

Araban oraindik ez da eratu Arreta Goiztiarra Baloratzeko Talderik. Gaur egun, Arreta Goiztiarra Baloratzeko Batzordeak egiten du balorazio hori. Lehen puntuan aipatutako Orientazio eta Balorazio Zentroan errehabilitazioan aditua den mediku batek, psikologo batek eta gizarte-langile batek osatzen dute batzorde hori. Adingabeak arreta goiztiarra behar duela aitortu ondoren, batzorde horrek berak haurrak zer behar jakin dituen balioztatzen du, eta zer prebentzio-lanketa eta lanketa terapeutiko behar duen erabakitzen du, eta administrazio-ebazpena egiten du. Ebazpen horretan, gutxienez, tratamendu mota eta tratamenduaren intentsitatea, tratamendua non emango den eta tratamendua berriz noiz aztertuko den jaso behar da.

24/2013 Dekretuan hau jasotzen da: *"Garapen nahasmenduak edo nahasmendu horiek izateko arriskua izatearen baloraziotik eta aurkeztutako txosten medikoetatik ondorioztatuko balitz haurra mendekotasun egoeran dagoela, mendekotasun egoera baloratzeko eskaera ere izapidetuko da, azken balorazio horren emaitzak garapen nahasmenduen balorazioari eta arreta goiztiarren zerbitzurako sarbideari eragin gabe".*

Bizkaiko Arreta Goiztiarra Baloratzeko Taldea 2012ko urtarrilean eratu zen eta 2013ko apiriletik ari da lanean bi lantalde paralelotan, gai desberdinen eta osagarrien inguruan: kasuen azterketa eta jarraipena, eta eredia ezartzeko jarduketak.

Kasuak ebaluatzeko bilera arruntetan, hauek parte hartzen dute: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailetik, Desgaitasuna Ebaluatzeko Ataleko burua eta/edo Ebaluaziorako eta Orientaziorako Zerbitzuko burua, Desgaitasuna Ebaluatzeko Taldeko mediku bat eta bi psikologo; Basurtoko ospitaletik, pediatria bat eta mediku errehabilitatzaile bat; Gurutzetako ospitaletik, pediatria bat eta mediku errehabilitatzaile bat; Haurren Osasun Mentaleko mediku psikiatra bat; eta Hezkuntza Sailetik, hezkuntza-premia berezien 2 aholkulari.

Prozedurako bilera berezietan, hauek parte hartzen dute: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailetik, Desgaitasuna Ebaluatzeko Ataleko burua eta/edo Ebaluaziorako Zerbitzuko burua, Laguntzen eta Diru-laguntzen Ataleko burua eta/edo Prestazioen eta Diru-laguntzen Zerbitzuko burua; Basurtoko ospitaletik, bi mediku; Gurutzetako ospitaletik, bi mediku; eta Hezkuntza Sailetik, hezkuntza-premia berezien aholkulari bat.

Desgaitasuna Ebaluatzeko Taldeak arreta goiztiarraren beharra balioztatzen du eta, hala badagokio, 3 urtetik beherrako haurren desgaitasun-maila eta mendekotasun-egoera.

Gipuzkoako Arreta Goiztiarra Baloratzeko Taldea iazko irailaren 24an sortu zen, eta hauek osatzen dute: Hezkuntza Saileko hezkuntza-premia berezien bi aholkulari; Osakidetza izenean, Osasun Mentaleko Ospitaleko Kanpoko Sareko lehen mailako arretako bi pediatria eta haurren

psikiatra bat, Donostiako Ospitaleko neonatologo bat eta neuropediatra bat; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko [Gizarte Politikako Saileko](#) hiru teknikari (mediku bat, psikologo kliniko bat eta gizarte-langile bat).

Arreta Goiztiarra Baloratzeko Taldea sortu zen arte, azken hiru teknikari horiek osatzen zuten arreta goiztiarra ebaluatzen zuen taldea. Haurraren beharrak eta bere ingurunea aztertzen zuten, eta balorazio- eta orientazio-txostenak egiten zituzten, non zehazten zuten zenbat saio eta zer saio mota egin behar zituzten haurrarekin esku hartu behar zuten kabineteek. Adierazten digutenaren arabera, EVAT delakoa eratzen denetik, talde horrek jasoko ditu osasun-, hezkuntza- eta gizarte-esparruek haur bakoitzarekin eta bere familiarekin egin beharreko jarduketak, eta esku hartzeko plana gainbegiratu du.

4. Arreta Goiztiarrerako Esku Hartzeko Taldeak

Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartzeko taldeekin lotutako elementurik azpimarragarriena da hiru eredu daudela, elkarren artean oso desberdinak direnak: zerbitzu publiko bat, kudeaketa gizarte-erakunde batekin hitzartua duena, Araban; banakako diru-laguntzak, lurralde osoan zehar banatutako zerbitzu pribatuetan arreta jasotzeagatik gastua ordaintzeko, Bizkaian; hitzarmenak gizarte-erakundeekin, kabinete pribatu gutxi batzuetan finantzaturako zerbitzuen bidez osatuak, Gipuzkoan.

Esaten genuen bezala, **Araban**, Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko Balorazio eta Orientazio Zentrokko Arreta Goiztiarrerako unitatean egiten da esku-hartzea. Gaur egun, **APDEMAK** kudeatzen du zerbitzua eta hauek osatzen dute: psikologo bat (eta zerbitzuaren kudeatzailea), bi fisioterapeuta pediatriko eta arreta goiztiarreko hiru teknikari (psikopedagogoak, pedagogoak eta psikologoak). Hizkuntzaren arloko berariazko tratamendu bat behar balitz, ARGIA logopedia-kabinetearekin egindako lankidetzak-hitzarmen baten bidez osatzen da esku-hartzea.

Esku-hartzean, haurrari banakako arreta eskaintzen zaio, eta familia orientatu eta aholkatu egiten da. Halaber, haurra garatzen den ingurunean ematen da arreta. Esparru hauetan esku hartzen da, konbinatuta edo bakoitza bere aldetik: erabateko estimulazioa, fisioterapia, logopedia, musikoterapia, hidroterapia.

Kexa-espeditante batean esku hartu izanagatik badakigu, arreta goiztiarrearen beharra aitortuta izanda, Gasteiztik kanpo bizitzeagatik Orientazio eta Balorazio Zentrokko Arreta Goiztiarreko Unitatera joan ezin den kasuetan, foru-erakundeak banakako diru-laguntzak aurreikusten dituela, bai kabinete pribatuetan arreta jasotzeagatik, bai Orientazio eta Balorazio Zentrorra saioetara joateagatik, sortzen diren gastuak finantzatzeko.

Bizkaian, berriz, esku hartzeko taldeak Lurralde Historiko osoan zehar banatuta dauden 130 kabinete pribatu inguru dira, nahiz eta herrigune handietan, hala nola Bilbon eta Getxon, ugariagoak izan. Kabinete horietako profesionalen kopurua, prestakuntza eta esparru profesionala desberdina izan daiteke kabinete batetik bestera, baina edonola ere, Arreta Goiztiarra Baloratzeko Taldeak (EVAT) emandako tratamendu motarekin bat etorri beharko dute.

Tratamenduan egindako gastua banakako diru-laguntzen bidez ordaintzen zaie familiei. Diru-laguntza horiek esleitu ondoren, hilerok ordaintzen dira.

Gipuzkoan, arreta goiztiarra, neurri handi batean, zerbitzua berariazko programen bidez ematen duten gizarte-erakundeekin hitzarmenak eginez bideratzen da. Hala, berariazko hitzarmen bat dago foru-sailaren eta **ASPACE** elkartearen artean, eta Osakidetza ere parte hartzen du. Hitzarmen horren baitan, tratamendu ambulatorioa ematen da: aldian-aldian zenbait profesional espezializatu bisitatzen dira, eta profesional horiek, ikuspuntu integral batetik, haurraren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea lortu nahi dute. Osakidetza bidez izapidetzen da programa horren onuraduna izateko eskaera. Foru-aldundiak erabakitzen du egindako planteamenduarekin ados dagoen ala ez eta hitzartutako aldi bereko arretako 50 “plazetako” baterako sarbidea ematen du.

GAUTENAren (nahasmendu espektro autista) eta **ARANS-Glren** (entzumen-urritasunak) kasuan, erakunde horiek beren haur “erabiltzaileekin” egiten dituzten arreta goiztiarreko esku-hartze guztiak foru-sailak bi erakundeekin sinatutako urteko hitzarmenean ezarritako lankidetzak-ildoen baitan daude. Egiaz, sailak ez du parte hartzen haurrek arreta goiztiarreko programa horietan sartzeko prozeduran. Halaber, ez du parte hartzen Hezkuntza Saileko **Ikusteko Urrietasuna duten Ikasleentzako Baliabidetegirako** sarbidean (ikusmen-urritasunak). Koordinazio informala du baliabide horretako profesionalekin.

4 kabineteetan (hiru Donostian daude, eta laugarrena, Arrasaten) emandako arretak osatzen du baliabide horrek emandako arreta. Kabinete horietan tipologia hirukoitz bat artatzen da:

- Diagnostiko zehatz bat ez duen eta oraindik aztertzen ari diren atzerapen psikomotor bat duten haurrak.
- Jada diagnostikatutako sindromeekin (Down sindromea, esaterako) lotutako heldze-atzerapenak dituzten haurrak.
- Funtsean prekaritate biologikoagatik (pisu gutxirekin jaiotakoak edo garaia baino lehen jaiotakoak) arriskuan dauden haurrak.

Kabinete horietan, ohikoena da hiru profesional izatea, psikologia klinikoko, pedagogiako, psikopedagogiako eta psikomotrizitateko espezialitateak dituztenak, eta logopedekin eta fisioterapeutekin lankidetzan jardutea. Foru-aldundiko balorazio-taldeak erabakitzen du zer kabinete jakinetara bideratu behar den adingabea eta zenbat saio egin beharko zaizkion, irizpide teknikoak eta gertutasun geografikokoak aintzat hartuta. Familiari datuak ematen zaizkio, eta kabineteari zer kasu iritsiko den jakinarazten zaio.

Hilerok, kabineteek faktura bidaltzen diote foru-aldundiari, bideratutako kasu bakoitzean emandako zerbitzuen zenbatekoagatik.

5. Esku hartzeko talde pribatuen baimentzea eta/edo homologazioa; kontrola eta ikuskaritza

Gaur egun, arreta goiztiarrean esku hartzeko zerbitzua ematen duten talde pribatuetako bakar bat ere ez dago formalki baimendua eta homologatua. Hori dela eta, beha-

rezkoa da zerbitzuen, kasu honetan esku-hartze organoen, betekizun materialak eta funtzionalak araudi baten bidez zehaztea. Lehen puntuan aipatu dugun arreta goiztiarra arautzen duen dekretua egitearen esparruan sartzen da gai hori. Dekretu hori egiten denean, baimenduak eta homologatuak izan nahi duten zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatu ahal izango dira.

Hori gertatzen den bitartean, kabinete pribatuetan egiten den lanaren baldintzak eta kalitatea jakinda kontrolatu eta ikuskatu behar dela onartzuz, egoera honako hau da:

Araban, ez dakigu ziur Orientazio eta Balorazio Zentroko Arreta Goiztiarreko Unitatera joaten ez diren kasuetan esku hartzen duten kabinete urriak nolabait balioztatzen ala gainbegiratzen diren. Horren urriak izanda, baliteke erabiltzaileek adierazitako asebeste-mailak eta beren gertutasunagatik udal gizarte-zerbitzuek haiei buruz dakitenak ematea beren esku-hartzea onartzea behar duten aintzatespena.

Bizkaian, banakako diru-laguntzak emango diren ala ez baloratzeko unean egiten da kontrola. Bizkaiko Foru Aldundia-[ren 176/2012 Foru Dekretuan](#), [abenduaren 11koan](#), 2013an arreta goiztiarrerako banakako laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta laguntza horiek emateko deialdi publikoa onesten dituenean, irakur dezakegunaren arabera, haurra baloratu ondoren, Arreta Goiztiarra Baloratzeko Taldeak (EVAT) familiari arreta goiztiarra behar izatearen agindua ematen dio, beharrezko tratamendu motarekin batera, hautatutako kabinetearen tratamenduaren aurrekontua eta hasierako txostena eskatzeko.

Aurrekontuan zehaztu behar da zerbitzuaren onuradunak zer tratamendu mota jakin jasoko dituen, bai eta tratamendu bakoitzeko kostuaren hileko banakatzera ere. Txostenean, bestalde, onuradunak zenbat saio jasoko dituen eta zer tratamendu mota jasoko duen, zer datatan has daitekeen, eta zerbitzua emango du(t)en profesional(ar)en identifikazioa (izena, titulazioa eta elkargokide zenbakia) deskribatuko dira. Balorazio eta Orientazio Taldeak dokumentazio hori aztertuko du, eta egokitasun-txostenak egingo ditu, bai tratamenduarena bai proposatutako profesionalena.

Gipuzkoako Gizarte Politikako foru-sailak ezin hobeto daki zer baldintzetan lan egiten duten lehen aurkeztutako 4 kabineteek (kokapena, zentroaren ezaugarri fisikoak, instalazioak, lan-metodologia, profesionalen zerrenda eta espezialitatea), nahiz eta ez dituen sistematikoki kontrolatzen.

Ez dugu elkarte horiekin hitzartutako zerbitzu hori nola kontrolatzen den adieraz diezagukeen informaziorik, baina espero daiteke kabinete horien urteko ebaluazioan arreta goiztiarreko zerbitzuen balorazioa egitea, ez artatutako pertsona kopuruaren datu kuantitatiboena soilik.

6. Entzumen-urritasunak dituzten haurrei arreta

Adierazten digutenaren arabera, gorreria duten haurrei eta beste patologia batzuk dituzten haurrei emandako arreta funtsean ez da oso desberdina, nahiz eta gorreria dutenei ematen zaienak zenbait bereizgarri izan. Izan ere, entzumen-arazoak dituzten eta inplante klokearra jarrita duten haurrei errehabilitazioko saioak ematen dizkie Osakidetza 6 urte betetzen dituzten arte. Inplante klokearra duten eta osasun-

sistemak arreta hori ematen ez dien haurrei lehen deskribatutako arreta goiztiarreko zerbitzuek ematen diete arreta, bai eta hezkuntza-sistemak ere, eskolatzen direnetik aurrera.

Araban, foru-aldundiak arreta goiztiarra ematen die gorreria edo hipoakusia duten 3 urtera arteko haurrei, audiofonoak nahiz inplanteak jarrita izan. Inplantea jarrita duten 3 urtetik 6 urtera bitarteko haurrei Osakidetza arreta ematen die oraindik, bai ez audiofonia eramaten duten haurrei. Audiofonia duten haurrek hezkuntza-sistemak eskura jartzen dituen baliabideak soilik erabil ditzakete. Lurralde Historiko horretan, [ASPASORren](#) lankidetzak dute, familiei arreta eskatzeko. Familiei eskolatzeko motaren inguruko, joan etorri eta abarri buruzko erabakiak hartzeko prozesu osoan laguntzen zaie.

Bizkaian, jada deskribatutako arreta goiztiarra eta Osakidetza inplantea duten haurrei eskaintako errehabilitazioaz gain, eskolatzen direnetik, hezkuntza-sistemak laguntza artikulatuak ematen dizkie haurrei, 2 urteko eta 3-6 urteko ikasgeletan desberdinak direnak. Bi urtetan eskolatzen direnean, ikastetxean bereziki lan egiten da eta profesionalak ikasgelan esku hartzen dute. Erakunde laguntzaileen artean [Ulertuz](#) eta [Gregorio Ybarra Elkarte](#) dira azpimarragarriak. Bi erakundeek dituzte logopedia-errehabilitaziorako berariazko profesionalak, eta aldi berean, ikasleak hezkuntza-esparrutik kanpo ere artatzen dituzte. Horrez gainera, Ulertuz elkarteak Plan Garatu planaren baitan dagoen proiektu batean laguntzen du. Bizkaiko Gorren Koordinatzaileak koordinatzen du proiektu hori.

3 urtetik 6 urte bitarteko aldi, gorreria edo hipoakusia duten ikasle bakoitza testuinguruaren baitan baloratu ondoren (balorazioa ez da haurrak erabiltzen duen protesi motaren araberakoa), kasu bakoitzak zer laguntza arrunt edo berariazko behar dituen zehazten da, bai eta laguntza bakoitzaren maiztasuna ere.

Berariazko laguntza profesionali dagokienez, Bizkaiko sare publikoko gorreria duten ikasleen taldeen 4 ikastetxeak azpimarra daitezke (Bermeon, Durangon, Bilbon eta Getxon). Ikastetxe horiek berariazko EHI profesionalak dituzte (Entzumena eta Hizkuntza) eta ikastetxeko ikasle gorrekin bakarrik lan egiten dute. Horrez gainera, zeinu-mintzaira hitz egiten duten profesionalak ere badaude laguntzeko, ikasleek curriculumak errazago eskura dezaten. Hala ere, errealitatean, Bizkaiko ikasle gor gehienek ikastetxe arruntetan eskolatzeko erabakia hartzen du, bai sare publikoan bai sare hitzartuan. Kasu horietan, ikastetxeko baliabide arruntak bidez artatzen dituzte, eta tarteka profesional logopeda ibiltariak etortzen dira ikastetxera.

Gipuzkoan, jada esan dugun bezala, Aransgik artatzen ditu gorreria edo hipoakusia duten haurrak. Aransgik arreta goiztiarrerako 3 zentro ditu (Donostia, Bergara eta Tolosa), eta zentro horien bitartez, gorrerian adituak diren irakasleek eta logopedek arreta ematen dute, ibiltaria nahiz iraunkorra, hainbat ikastetxetan. Gizarte zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta hezkuntza-zerbitzuek parte hartzen dute familiak Aransgira sartzeko prozesuan.

7. Arreta goiztiarraren egungo egoera Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Erkidegoan, arreta goiztiarreko zerbitzuak 0 eta 6 urte bitarteko haurrei ematen zaizkie Bizkaian, eta 0

eta 3 urte arteko haurrei Araban eta Gipuzkoan, nahiz eta bi kasuetan atzera daiteke gehieneko muga hori salbuespenezko kasu batzuetan: Araban, alde batetik, lehen aipatutako 24/2013 Dekretuaren arabera, hezkuntza-sistema orokorrean beranduago sartuko balitz, hain zuzen ere, haurrak garatu dituen nahasmenduengatik. Gipuzkoan, bestetik, zerbitzu horiek jarraitzea beharrezkotzat jotzen denean, esku-hartze denbora luzatzea eska daiteke.

Hiru foru-aldundiek adierazi dute ez dela inoiz izan eta gaur egun ez dela itxaro-zerrendarik. Bizkaian adierazi dute balorazio-eskaerak premiazkotzat hartzen direla eta berehala hasten direla baloratzeko; 15-20 egun baino gutxiagoko epeetan hitzordua ematen diete. Gipuzkoan diotenez, kabineteetan ez dago edukiera-arazorik. Izan ere, balorazio-taldeak kasuak kabineteetara bideratzen dituenean, oro har, arreta berehala ematen da.

Artatutako biztanleriaren datuei dagokienez, ez dugu Arabako datu bakar bat ere, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako datu hauek ditugu:

- Bizkaia: 1.206 haur. Horrez gainera, beste haur batzuk daude balorazio-prozesuan.
- Gipuzkoa: 144 haur, 106 aipatu kabineteetan eta 38 ASPACEn. Ez da eman zenbat haur artatu dituzten Gautean eta Aransgin.

8. Arreta goiztiararen antolaketa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean

Hezkuntza Sailak jakinarazi du lan-talde bat sortu dela due-la gutxi, Arreta Goiztiarreko Taldea (AGT) izenekoa. Arreta goiztiarra baloratzeko taldeetako (EVAT) kontsultari guztiek eta [Berritzegune Nagusiko](#) Inklusibitate eta hezkuntza-premia berezien koordinatzaileak osatzen dute talde hori, eta aurreikusita dago 2013-2014 ikasturtean zehar Haur Hezkuntzako aholkulariak taldean sartzea.

Berritzegune zonal bakoitzean, hezkuntza-premia berezien aholkularitzetan, arreta goiztiararen erreferente bat dago. Erreferente horri bere eremuan gai horrekin lotutako jarduketa guztiak sustatzea eta koordinatzea dagokio, esku-hartze esparru global baten baitan.

Ez da amaitu Arreta Goiztiarreko Esparru Programa. Programa horrek saileko jarduketa guztiak uztartuko ditu espazio horretan, baina [Eskola inklusibo baten esparruan aniztasunaren arretarako plan estrategikoko](#) jarduketan baitan sartu da.

Azkenik, jakinarazi digute 2011-2012 ikasturtetik aurrera hainbat prestakuntza-jardunaldi egin direla hezkuntza-premia berezien aholkularitzekin, haur etapako aholkulariekin, [Haurreskoletako](#) profesionalekin, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleekin eta kontsultariekin, Pedagogiako irakasleekin, Terapeutikakoekin eta abarrekin. Gorreria duten ikasleekin berariaz lotuta, iazko irailaren 5ean, [Ikasle gorrrak hezkuntza-etapa guztietako hizkuntzen curriculumean sartzeko programa](#) aurkeztu zen

Azalpen horren **ondorio** gisa, eta hasiera batean azaldutako gai kezkarri berriz helduz, hau esan dezakegu:

1. Urrats garrantzitsuak ematen ari dira Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarreko Ereduan jasotako pro-

posamenak eta aurreikuspenak gauzatzen, [EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa](#) izeneko txosten bereziaren 11.22. gomendioan proposatzen zen bezala. Aurrerapen horien adierazle nagusiak dira arreta goiztiarra arautzeko dekretua jada oso aurreratua dagoela, bai eta PAINNE proiektu pilotua ere. PAINNE proiektuak ereduaren orientabideak garatzen eta praktikan jartzen ditu. Aurrerapenak izaten ari direla igartzen da, baita dekretu arauemaile onartzearen zain egon gabe ere, hala nola Bizkaian eta Gipuzkoan arreta goiztiarra baloratzeko taldeak abian jartzea.

2. Garaia baino goizago jaiotako haurrak edo pisu gutxi-ekin jaiotakoak egungo arreta goiztiarreko zerbitzuen hartzailetzat hartzen dira, foru-aldundiek emandako erantzunaren arabera, eta egiatan, artatuak izaten ari dira. Horrez gainera, helduaurrekotasuna arreta goiztiarrean gizarte esku-hartzeko zerbitzuak artatzen dituen egoeretako bat dela esaten da, 2011ko Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak onartutako Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarreko Ereduan nahiz Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta zerbitzu Zorroari buruzko dekretuaren zirriborroaren ondoko bertsioetan. Bi dokumentuetan, bestalde, arreta goiztiarra diziplina artekoa eta osokoa dela nabarmentzen da, eta horrela definitzen da: *0-6 urteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzenduriko esku-hartzeen multzoa, diziplina arteko osasun-, hezkuntza- eta gizarte-ikuspuntua bategatik, helburutzat nahasmenduak dauzkaten haurrek beren garapenean agertzen dituzten, edo horiek pairatzeko arriskua duten, premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta lasterren eta osorik erantzutea duena.*

Bestalde, erreparatu arreta goiztiarreko zerbitzuaren hartzaileen definizioan 0 eta 6 urte arteko haurrei buruz hitz egiten dela, Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko dekretua egiteko prozesu osoan eta bere ondoko zirriborroetan, bai eta arreta goiztiarra arautuko duen dekretu arauemailearen zirriborroan ere. Beraz, Araba eta Gipuzkoa lurralde historikoetan arreta goiztiararen hartzaileak 0-3 adin-tartean daudenak badira ere (salbuespenekin, lehen esan dugun bezala), gehieneko adina automatikoki handitu egingo da dekretu horiek onartu eta indarrean jartzen direnean, [12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak](#), zerbitzu horri eskubide subjektiboaren izaera ematen baitio.

3. Txosten bereziko 6.1. gomendioarekin lotuta, ez da igarri azken urteetan arreta goiztiarreko zerbitzuen aurrekontuzkiduretan atzera egin denik, eta horrek esan nahi du, gutxienez, zerbitzuak mantentzen ari direla. Bestalde, hainbat proiekturi bultzada eman zaie, eta badirudi proiektu horiek laguntza goiztiarra bultzatzen lan egiten duten eragile guztien interesa pizten hasi direla. Proiektu horietako bat da, esate baterako, PAINNE delakoa (Premia bereziak dituzten haurrei arreta osoa emateko prozesua), eta bere bereizgarrietako batzuk dira, besteak beste, prebentziozkoa eta jasangarria izatea, eta behar adina araudiz hornitzeko egin duten lan handia eta lortu duten erakundearen babesa.

4. Aipatzen ari garen txosteneneko 11.11. gomendioan eskatu zen mendekotasun-egoeran dagoen adingabe oro-

ri, nazionalitatea edo aurretiko administrazio-egoera zein den alde batera utzita, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemarako sarbidea bermatzeko. Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak jakinarazi digunaren arabera, eskaera hori aintzat hartu da, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren azken zirriborroko egungo 9. artikuluan berariazko atal bat sartu da gai horri buruzkoa. Hau esango luke atal horrek:

■ *Euskal herri-administrazioek Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako (SAAD) prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea bermatuko diete:*

a) *Mendekotasun-egoeran dagoen edo mendekotasun-egoeran egoteko arriskuan dagoen adingabe orori, edozein nazionalitate edo aurretiko administrazio-egoera izanda ere, eta bere gurasoen administrazio-egoerak ez du oztopatuko eskubidearen titulartasuna lortu ahal izatea, ez eta administrazio-egoera arruntean epe jakin batean ez ziurtatzeak ere.*

b) (...)

5. Kexen xede izan diren edo gizarte-egiturako erakundeek adierazi dituzten gaitetik, hau esan dezakegu:

■ Tartean sartuta dauden eragile guztien ustez, kome-nigarria da familiei informazioa emateko dokumentu bat izatea, baita, besteak beste, Gipuzkoaren kasuan ere, non oraindik ez dagoen eskuragarri. Kasu hone-tan, zentzuzkoa dirudi dekretu arauemailea eskuetan izateko zain egon nahi izatea, dokumentu hori egiteko eta bertan ahalik eta informaziorik eguneratuena jartzeko, eta beti hori berehala gertatuko dela au-reikus daitekeenean.

■ Ez da aipatzen gaur egun itxaro-zerrendarik dagoenik.

■ Ezin da esan baliabide estandarren esleipenik dagoenik. Izan ere, banakako arreta-plan baten esparruan edo arreta pertsonalizatuko plan baten esparruan zehazten da esku-hartzea, nahiz eta maiztasun eta intentsitate ohikoenak agintzen diren. Horrek, berez, ez digu jardunbide oker baten berri ematen, baina bereziki adi egon beharko da, agindu horiek haur bakoitzaren beharrei erantzun diezaieten.

■ Esku hartzeko zerbitzu pribatuen egokitasuna kontrolatzeko eta bermatzeko, dekretu arauemailea onartzearen zain egon beharko dugu. Izan ere, dekretu horretan zehaztuko dira zerbitzu horien betekizun materialak eta funtzionalak. Dekretu hori onartzean, interesgarria litzateke eskatzen duten erakundeak egiaztatzeko eta homologatzeko prozesuak bizkortzea, kalitate-irizpide horiek, bai baldintza materialenak, bai profesional eskudunenak, bai esku-hartze eraginkorrenak, aintzat hartuko dituen arreta-sistema bat antolatzea.

Bestalde, bermatu beharko da esku hartzeko taldeen banaketa orekatua dela lurralde osoan, edozein titu-lartasun izanda ere.

■ Nahiz eta ezin den esan audiofonoak daramatzaten haurrak *diskriminatu* egiten direla inplante kloke-rra duten haurren aurrean, esan dezakegu praktika hobeak egin daitezkeela. Premia berezia duten haurrei arreta osoa emateko prozesuan azaltzen diren integraltasuneko, jasangarritasuneko eta eraginkortasuna hobetzeko irizpideekin bat eginez, desiragarria izango litzateke gaur egun osasun-sistemak emandako errehabilitazioa jasotzeko aukera ez duten audiofonodun haurrentzako neurriak egitea. Bestalde, eta baldin eta arreta hori hezkuntza-sistema formalak bakarrik ematen badu, kontuan izan beharko dira eskolarik gabeko aldiak eta estimulaziorik jaso gabe egoteari irtenbidea bilatu beharko zaio, egokitzat jotzen diren neurrien bidez (beste profesional batzuek ematea arreta hori, familiekin edo gizarte-erakundeekin lankidetzara areagotuz...).


■ Premia bereziak dituzten haurrei emandako arreta goiztiarraren erronka nagusienetako bat da zenbait agenteren eta sistemen jarduketa integratua, koordinatua eta koherentea lortzea, bai une jakin batean haletako batzuen partaidetzaren laguntzaz, bai prozesu batean jarraian, non joan-etorriek funtsezko garrantzia hartzen duten. Ziur esan dezakegu oro har ereduaren diseinuak nahiz protokoloak, prozedurak eta abar zehazteko ondoko lanek ezinbesteko betekizun hori kontuan hartzen dutela, baina jakinda batzuetan hori gauzatzea zaila dela, arreta goiztiarreko zerbitzuen erabiltzaileak diren haurren familiekin egindako egiaztapenetan erreparatu egingo diogu.

2.7. Pobrezia pairatzeko arriskuan dauden adin txikikoak

Kexa-espediten ikerketarekin eta kudeaketarekin lotutako Bulegoko jardueraren informazio estatistikoaren eta datu kuantitatiboaren inguruko atalean, jada adierazi dugu, zenbateko osoan aintzat hartu ez baditugu ere, ez dugula ahaztu Diru-sarrera Bermatzeko Errenta hartzen duten bizikidetzaren unitateen ehuneko handi batean (%26,7 2012ko urrian, [Haurren pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan](#) txosteneko datuen arabera) 16 urtetik beherako adingabeak zeudela. Kalkulu hori gure estatistiketan sartuko bagenu, haurrak eta nerabeak kaltetzen dituzten eskasia ekonomikoko egoeren berri ematen duten 236 espediente inguru izango genituzke eta, arazo hori, haurren pobrezia pairatzeko arriskuarena, erakunde honek artatu duen gorabehera nagusia izango litzateke, zenbatutako espediten ia erdia (%45) gai horren ingurukoa izango bailitzakete, eta beste esparruekiko alde handiarekin.

(6. grafikoa)

Alde batek eskatuta bideratutako keza-espeditenteen banaketa, diruz urri dabilzanen gutxi gorabeherako kopurua barne hartuta



●	Haurren pobrezia	236	%45,4
●	Hezkuntza	136	%26,2
●	Gizarte zerbitzuak: babesik gabeko haurrak	31	%6
●	Ingurumena	23	%4,4
●	Justizia	20	%3,8
●	Familiak	19	%3,7
●	Osasuna	16	%3,1
●	Beste batzuk	11	%2,1
●	Etxebizitza	8	%1,5
●	Aisia eta eskolako kirola	6	%1,1
●	Administrazio egoera	6	%1,1
●	Segurtasuna	4	%0,8
●	Gizarte zerbitzuak: mendeko haurrak	4	%0,8

IZAPIDETUTAKOAK **520**

Haurren artean pobrezia-egoerak areagotu egin direla egiaztatzeak 2012ko azken hiruhilekoan azterketa kuantitatibo bat (*Krisiaren eragina haurrengan: Euskal Autonomia Erkidegoko errealtatea*) egitera bultzatzen gintuen, krisiak Euskal Autonomia Erkidegoko haurrengan izan dituen eraginak zein izan diren jakiteko eta eragin horiek bistartzeko. Eragin horiek oinarri hartuta, gastu publikoaren murrizketapolitikek eta doikuntza-neurriek, epe ertainean eta epe luzean, izan ditzaketen ondorioei buruzko hausnarketa egitea sustatu nahi da, gazteenen etorkizun-aukerak zehazten baitituzte. Azterketaren ondorio nagusiak 2013ko urtarrilaren amaieran aurkeztu ziren eta Bulegoaren 2012ko urteko txostenean jasota daude.

Apirilaren hasieran, defentsa-bulegoen arteko lankidetzakimenean esparruan, **Andaluziako Herriaren Defendatzailearekin lan-mintegi** batean parte hartu genuen, *Ekonomia-krisia eta gizarte-eskubideak* izenekoan. Mintegi horretan, ekonomia-krisiak zenbait kolektibotan izandako eraginak aztertzen ziren, eta kolektibo horien artean zeuden haurrak eta nerabeak. Lan- eta eztabaida-saioen ondoren, **ondorio** hauek atera ziren (mintegia amaitzean ezagutzera eman zen hitzez-hitzez kotik atera dira):

- 1) *Egungo krisi ekonomikoaren ondorioz Andaluziako eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoetan biztanleek bizi duten **errealitateak**, ikusi dugunez, hainbat elementu komun ditu, baina baita ezberdintasun garrantzitsuak ere, estatistika datuek egiaztatzen dutenez. Horrela, 2011. urteari dagokionez, **pobrezia** pairatzeko arrisku-tasa, Estatistikako Institutu Nazionalaren esanean, batez beste 21,8koa da Estatuan. Euskal Herrian, berriz, 10,8koa, eta Andaluzian 31,7koa. **Adin txikikoei buruz, Espainian (2012. urtea) 25,9koa da. Magnitude hori 37,4an kokatzen da Andaluzian, eta 16,1ean Euskal Herrian.***
- 2) *Ondorio hori abiapuntu hartuta, defentsa-erakundeek eskarmentuak agerian jarri du oraingo egoera ekonomikoak sortutako arazo batzuk eragin handiz agertzen direla Andaluzian eta ez hain indartsu Euskal Herrian.*
- 3) *Bi defentsa-erakundeek ezin gara ezer egin gabe geratu errealtate horren aurrean, alarma-oihua zabaldu behar dugu oraingo egoera ekonomikoarengatik herritarren eskubideak arriskuan egon daitezkeela uste dugunean. **Pobrezia eta gizarte-bazterketak ezinbestez baldintzatzen dituzte pertsonen eskubideak eta edukirik gabe uzten dituzte arau autonomiko, nazional nahiz nazioartekoek egindako aldarrikapenetako asko.***
- 4) *Botere publikoei gogorarazten diegu, krisi garaian egon arren, babes berezia eman behar dietela **gizarte** sektorerik ahulenei. Beraz, mugak, murrizketak eta gastu publikoari eutsi beharra gorabehera, eskatzen diegu behar diren neurri eta jardura guztiak sustatu eta gehitu ditzatela, krisiaren eraginari eta ondorioei aurre egiteko. Edonola ere, ezin dute eta ez dute kalterik jasan behar iraganean lortu ziren aurrerapenek.*
- 5) *Gure iritziz, administrazioen arteko **koordinazio-bideak gehitu behar dira** gizarte-bazterketarako arriskua dagoenean. Lotura hori are beharrezkoagoa da ahulezia handiko uneetan. Proposatzen edo garatzen den edozein jarduerak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da administrazioen arteko koordinazioa.*
- 6) *Administrazioei eskatzen diegu **beharrezko laguntza eskain dezatela, gizarte-eskasiak egoerei azkarrago eta, batzuetan, eraginkortasun handiagoz heltzen dieten **gizarte-erakundeek, taldeen edo ekimeneen lana errazteko.*****
- 7) *Gure gizartearen sektore jakin batzuek nozitzen dituzte **gehien krisiaren ondorioak. Horien **gizarte-bazterketa eta bazterketa-arriskua prebenitzeko eta horri erantzuteko, bi erakundeok hauxe adierazten dugu.*****
Lehen.**- Euskal Herriko diru-sarrerak bermatzeko errentaren erdua eta Andaluzian orain dagoen elkartasuneko gutxienezko diru-sarreraren alderatu ondoren, ados gaude **oso garrantzitsua dela herritarrei gutxienezko diru-sarrerak ziurtatzeko tresna bat edukitzea, eskubide subjektibo moduan, gizarteratzeko eta laneratzeko mekanismoekin batera.
***Bigarrena.**- Euskal Herrian dagoen erdua erreferente bat izan daiteke, guk uste, Andaluzian oinarritzko errenta bat ezarriko duen arau onartzeko hartu den konpromisoa bete dadin.*

Hirugarrena.- Bi defentsa-erakundeon aburuz, garrantzizkoa da estaldura unibertsaleko gizarte-zerbitzuen sistema babestea, herritarrentzat hurbila izateko irizpidean oinarritutakoa. Sistema horrek erantzun behar die egungo krisi ekonomikoak areagotu dituen bazterketa-egoerei.

Laugarrena.- Mendekotasun sistema dela eta, bi defentsa-erakundeoi lorpen historikoa eta gizarte-aurrerapen utziezina iruditzen zaigu 39/2006 Legeak mendekotasun egoeran daudenei aitortzen dien eskubide-multzoa.

Bosgarrena.- Alarma eta kezka azaltzen dugu eskubide gutxitzea ekartzen ari diren legegintza-eta ekonomia-neurrien aurrean. Andaluzian, neurri horiek sistema geldiarazteko eta indargabetzeko egoera larria ahalbidetzen ari dira. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu gutxieneko hitzarmen bat egitea, finantza-euskarri egokiaren bitartez, Mendekotasunaren Legeko funtsezko alderdiak eta eskubideak beteko direla bermatuko duena.

- 8) **Adin txikikoak** dira pobrezia pairatzeko arrisku handiena duten taldeetako bat, izan ere, besteren mende daude ekonomia, gizarte, parte-hartze, lege eta politika arloetan. Talde ahul horren gainean, zera adierazten dugu:

Lehena.- Estatu soziala mantenduko bada, estrategia publiko saihestezina da familiei laguntzea; beraz, orain inoiz baino gehiago, familiaren aldeko politikak inbertsio publikorik onenak dira gizarte-kohesioa bermatzeko eta pobrezia eta gizarte-desegituratzea prebenitzeko.

Bigarrena.- Arlo guztietan prebentzio-jarduerak mantendu daitezkeen eskatzen dugu, izan ere, horiek mantentzeak, egoera larrietan esku hartzearen kostu ekonomiko, pertsonal eta soziala saihestez gain, gizarte-garapena eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen ditu, dudarik gabe. Politika orekatzaileak indartzeko unea ere bada.

Hirugarrena.- Botere publikoei galdatzen diegu tresna bat abiaraz dezatela, luzamendutan ibil gabe, pobrezia-ri kontra egiteko. Tresna horrek berariazko ekintza eraginkorrak ezarri behar ditu pobrezia gutxitzeko eta bi autonomia erkidegoetan pobrezia mugatik behera bizi daitezkeen haurrei laguntzeko.

Azken batean, kontua da ahulena lehenestea, etorkizunean inbertitzea, **gizarte-justizia egitea**.

Ildo horri jarraiki ematen du bere iritzia Secretariado Gitano Fundazioak 2013. urtean argitaratu zuen **Krisiaren eragina ijitoengan** izeneko azterketan. Azterketa horretan azpimarratu zuen krisiak eragin bereziki negatiboa izan zuela ordurako egoera ahulean zeuden pertsonengan eta taldeetan, espainiar estatuan ijitoen komunitatearen bi herenak baino gehiagoan, hain zuzen. Esaten duten bezala, krisiak lehenago eragiten die, gogortasun handiagoz, denbora luzeagoan eta ondorio kaltegarriagoekin eta iraunkorragoekin gizarte-desabantailako egoeran dauden pertsona eta talde horiei. Azterketak ohartarazten du ijitoen komunitateak egoera larria bizi duela gaur egun, egungo ekonomia-krisia dela eta: igo egin dira pobrezia-tasa, langabezia-tasa(biztanleria ijitoaren %42 lanik gabe

dago), infraetxearen tasa, pilaketa eta txabolismoa⁵, jada independenteak ziren pertsonen gizarte-babeseko sistema itzuli behar izan dute... Haur ijitoek nabarmen igartzen dituzte egoera horiek, ijitoen komunitatearen herenak 15 urte baino gutxiago baititu (Ikerketa Soziologikoen Zentroko datuen arabera). Euskal Autonomia Erkidegoan, ijitoekin zerikusia duten zurrumurrak entzuten dira, eta bereziki ohartarazten dute beharrezko adela hezkuntza-laguntzako eta gizarte-laguntza hezitzaileko neurriak mantentzea, bai eta sendotzea ere, eskolatzean, emaitza akademikoetan, Bigarren Hezkuntzako mailatar eta goragoetarako ekonomikoki sustatzean lortu diren aurrerapenak gelditzen ari baitira, eta zenbait kasutan, atzera egiten ere ari baitira. Horrek ezinbestean haur eta gazte horien etorkizunean eta oro har beren komunitatearen etorkizunean eragin kaltegarria izango luke.

Ekainean, Europako Kontseiluko giza eskubideen komisiarioak, Nils Muiznieksek, bere kezka adierazi zuen, Espainiako hainbat lekutara egindako bisitan jakin baitzuen haurren pobrezia areagotu egin dela eta, azaldu ziotenez, **haurren malnutrizio egoerak** daudela. UNICEFek 2011n osatutako haurren pobrezia txosteneko datuek eta ezagutu izan dituen gertaera bereziki dramatiko batzuek asaldatura, arazo hori jasoko du krisiak giza eskubideen alorrean daukan eraginaren inguruan irailean argitaratzeko asmoa duen txostenean. Errealitate hori hobeto ezagutzeko eta, Andaluziako Herriaren Defendatzailearekin partekatu genuen mintegian agerian geratu zenez, autonomia erkidego ezberdinetako gizarte-errealitatea desberdina dela jakinda, beste ikerketa bat hasi genuen ofizioz, haurren malnutrizio kasuak berariaz aztertzeko, ateratako ondorioak helarazteko eta komisiarioak bere txostenean egin zuen diagnostikoa aberasteko asmoz.

Aipatutako errealitate desberdin horiek jada agerikoak izan ziren gure azterlanean: Estatu osorako zehaztutako %26ko nolabaiteko pobrezia arriskuaren adierazlea bera ere, EAEn %16an geratzen zelako. Konparatzeko datuei dagokienean egoeraren larritasuna baxuagoa izateko joera hori bera errepikatu egin zen aztertutako ia adierazle guztietan. Horiek horrela izanik, hala eta guztiz ere, azterlanean adierazle gehienetan kalteak edo okerreratzearen zantzuak nabaritu ziren, eta, horrenbestean, besteak beste, egoera asalagarria ez baldin bada ere, erne egon beharra dago okerrera egin dezakeen eboluzio baten aurrean.

Zehazki osasunaren adierazleei zegokienez, elikadurari buruzkoa ziren, hain justu, iritzia eman ahal izateko moduan eguneratuta zeuden datu apurretako batzuk. Orduan ondorioztatu genuenez, ezin genuen malnutrizioaz hitz egin, baina bai elikadura-dietaren kalitatean eta orekan nolabaiteko kalteak jasan izanaz.

⁵ Urteko txostenaren III.8. atalean, ijitoei eta beste kultura-gutxiengoei buruzkoan, kexa-espeditenteen esparruan artatutako premia-egoerei buruzko informazio gehiago aurki daiteke, Astigarragako eta Hernaniko asentamenduei buruzko aipamenak eta ijito herriaren sustapen osorako erantzun publikoak.

Gauzak horrela, ez genuen uste haurrek bizi dituzten pobrezia-egoerek nabarmen okerrera egin zutenik gure lurraldean, baina lehen ere aipatu bezala, gai honen inguruan erne mantendu behar dela uste genuen. Horregatik, laguntza eskatu genien Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politika, Hezkuntza eta Osasun sailei, bi gai hauen berri eman ziezaguten:

1. Zuen sailean detektatzen ariko zinateketen haur elikadura okerreko datu, adierazle edo are zantzuak buruz ere.
2. Elikadura arazoak detektatu izan baldin balira, aurre egiteko txertatutako programak, zerbitzuak edo jarduerak.

Jasotako erantzunak aztertu eta gero, **ondorio hauek** atera genituen:

Honako hau ez da arrazoi sozio-ekonomikoen ondoriozko haur-desnutrizio larri edo kronikoak eragindako egiturazko arazoa, baina egia da gora egin duela behar beste elikagai jasotzen ez dituzten umeen kopuruak: eguneko une jakinetan ez dute behar beste jaten, dieta urria edo orekatu gabea dute eta beharrezkoak diren zenbait elikagai ez dituzte behar beste hartzen.

Gizarte-zerbitzuak, osasun-sistemak eta hezkuntza-sistemak ez dute antzeman 2013ko urtarrilean aurkeztu genuen txostenean eman genituen datuek gorakada esanguratsu edo kezagarririk jasan dutenik. Izan ere, txosten horretan jaso genuen EAEn 16.000 ume egon zitezkeela egoera horretan.

Uste dugu EAEko neska-mutilen elikadura-premien (eta, oro har, bizi-baldintza egokien) bilakaera gertutik jarraitu behar dela azpimarratzea garrantzitsua dela, eta horretarako egiten diren zein kontu horren gainean eragina duten politika publikoak hobetzea ere ezinbestekoa dela. Adituekin bat gatoz: gizarte-politikaren erronka familiek baldintza egokietan bizi ahal izateko beharrezko baldintzak dituztela bermatzea da, seme-alabei elikadura egokia euren kabuz emateko gai izan daitezen.

Ikuspuntu hori abiapuntu hartuta, eta aipatzen ari garen *Euskadiko haur-pobrezia* txostenak umeen pobrezia-aren fenomenoari aurre egiteko proposatzen dituen jarraibide edo oinarriko gomendioekin bat eginez, honako puntuak azpimarratu nahi ditugu:

- Haur-pobrezia egoerak neurtzeko eta horien jarraipena egiteko adierazle-aula bat garatu beharko litzateke, elikadurari (eta, zehatzago esanda, gabeziaren ondoriozko malnutrizioari) buruzkoak ahaztu gabe.
- Lurralde osoan sistema ezberdinen arteko (bereziak osasuna, hezkuntza, diru-sarreraren bermea eta gizarte-zerbitzuak) koordinazioa eta sare-lana hobetu behar da, horrela pobrezia-egoeran dauden edo oinarriko elikadura-premiak dituzten familien egoerei erantzun azkar, malgu eta integralak eman ahal izateko.
- Epe ertainera *umeen aldekoagoa* den ikuspegia hartu beharko litzateke kontuan politika publikoak diseinatu eta garatzeko orduan, horrela seme-alabadun familiarik modu positiboan diskriminatuko dituzten eta Estatu sozial inbertsiogilearen postulatuekin bat datozen politikak egiteko.

Data horietan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak lehen aipatu dugun "*Haurren pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan*" izeneko txosten luzea aurkeztu zuen. Dokumentu horretan jasotako informazioak urtarileko gure txostenek emandako datu kuantitatiboak berresten zituen, eta inolaz ere ez dago kontraesanarekin. Informazio kualitatibo oso garrantzitsua ematen du, ordea, haurren pobrezia-ari buruzko ikuspuntu oso eta xehetasunez bete bat emanez. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera gainerako autonomia-erkidegoekin eta Europar Batasuneko herrialdeekin alderatzeko datuak ematen ditu, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemari eta pobrezia-egoeretako gainerako gizarte-transferentzietan izandako eraginari buruzko datuak, haurren pobrezia-ari heltzeko politika publikoen analisia eta balorazioa, eta ondorioen eta gomendioen atal interesgarri bat. Hemen, labur-labur, interesgarritzat jotzen ditugun datu batzuk azalduko ditugu, bi multzotan taldekatuta: lehenak, orain arte dugun egoeraren diagnostikoa osatzen du; eta bigarrenak, gure ingurune herrialdeetan garatu dituzten haurren pobrezia prebenitzeko eta arazo horri heltzeko politika publikoen analisisetatik zer ikasi dugun azaltzen du.

A) Diagnostiko zehatzago bat egiteko datuak:

- Haurren ongizatearen tasek oro har behera egin dutela esatea ez litzateke guztiz zuzena. Zuzenagoa da esaten ongizateko posizio batean daudenen eta pobrezia-egoeran egoteko arriskuan daudenen artean polarizazio handiagoa dagoela, eta horrenbestez, tarteko zerrendaren garrantzia argi eta garbi txikitu egin dela.
- Espainiarekin alderatuz gero, Euskadiko 18 urtetik beherako biztanleriaren artean pobrezia-tasak askoz ere txikiagoak dira Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetan erregistratzen direnak baino. Euskal Autonomia Erkidegoko datuak Europako gainerako herrialdeetakoekin alderatzen direnean, egoera ez da horren ona, nahiz eta emaitzak erabiltzen den metodologiaren arabera izan zertxobait. EU-SILC estatistikak Europar Batasuneko herrialdeetan bildu dituen datuen eta EPDS metodoak Euskal Autonomia Erkidegoan bildu dituen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera Europako testuinguruan tartekoa dela esan daiteke, eta EB15eko eta EB27ko bata bestekoen oso antzeko tasak, baina pixka bat baxuagoak, dituela esan daiteke. Hala ere, bilakaerari begiratzen badiogu, pobrezia-aren tasak azken urteetan neurri handi goan hazi dira Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan baino.
- Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemari esker eusten zaie Euskal Autonomia Erkidegoan haurren pobrezia-tasei, eta era berean, sistema horri esker esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko egoera nahiko ona dela Europaren testuinguruan. Helmen handiko familia-prestazio unibertsalen politika bat ez izanda, Europaren erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetan dagoena bezalakoa, gaur egun Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta da Euskadin haurren pobrezia-tasei eusteko tresna nagusienetako bat. Hala, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak, Gizarte-larrialdiko Laguntzak eta Etxebizitzako Gastue-

tarako Prestazio Osagarriak osatutako sistemak %30 murrizten ditu haurren pobrezia-tasak Euskadin.

Hala ere, sistemaren eraginkortasuna ez da erabatekoa, eta biztanleriaren ehuneko handi bat kaltetua gera daiteke sistema horren babes-esparrutik kanpo. EPDSren datuen arabera, benetako pobrezia-egoeran dauden seme-alabak dituzten familien biztanleria hiru talde nagusitan banatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan: talderik txikiena -kasuen %30-, berez benetako pobrezia-egoeran dauden familiak dira, hain zuzen ere, jasotako diru-laguntzei esker egoera horretatik ateratzen direnak; talde horren %43k diru-sarrerak bermatzeko eskual sistemaren laguntzak jasotzen ditu baita, baina ez benetako pobrezia-aren atalasea gainditzeko adina; azkenik, benetako pobrezia-egoeran dauden familien %26k ez du laguntza horietako bakar bat ere jasotzen, nahiz eta egoera horretan egon. Beraz, eskatzeko moduan dauden biztanleriaren %73ri baino ez zaizkio iristen laguntzak, eta kasuen %30etan soilik dira benetan eraginkorrak.

- Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen gizarte-transferentzien sistemak adingabeen pobrezia-tasak %58 murrizten ditu. Europako herrialdeetan, gizarte-prestazioen sistemak neurri handiagoan murrizten du 18 urtetik beherako pertsonen pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan baino (UE15: %75,6).

Biztanleria osoa kontuan hartuz gero, aitzitik, alderantziz gertatzen da: biztanleria osoaren pobrezia-tasak %67 murrizten dira Euskal Autonomia Erkidegoan transferentzia horien ondorioz, eta EB15en, berriz, %62. Datu horrek berriz agerian uzten du gizarte-babeserako eskual sistema ez dela haurtzararen oso aldekoa, beste adin-tarte batzuetan azaltzen duen gaitasunarekin alderatuz gero.

B) Beste herrialde batzuetako pobrezia-aren aurka borroka egiteko politiken eta estrategien analisiaren ondorioak:

- Gaur egun, pobrezia-egoeran egoteko arriskua haurregana eta gazteengana hedatzen ari da, eta hori dela eta, haurren artean pobrezia prebenitzea eta pobrezia-aren euste politikaren lehenetsunetako bat bihurtzen ari da.
- Baterako eta erakundearen arteko planen edo estrategien alde egin behar da aho batez. Plan eta estrategia horietan, eragilearen esku-hartzeak koordinatu behar dira, oinarri, ikuspuntu eta adierazle komunak oinarri hartuta. Erabateko eta dimentsio anitzeko estrategia horiei esker, egoera horien azpian dauden arrisku-faktoreei heltzen lan egin daiteke (enplegurako sarbidea eta enpleguaren kalitatearen hobetzea, eta horrenbestez, nahikoa diru-sarrera familientzat, funtsean), hala nola haurren arretan eta esku-hartze goiztiarrean, gizarte zerbitzuetan edo hezkuntza arretan. Bestalde, haurtzaroen familien bizi-baldintzetan eta ongizatearen eragina izateko helburu duten neurrien ikuspuntu osagarriak eta epe ertainean eta epe luzean haur horiek helduaroen izango dituzten bizi-aukeretan egoera horiek sortuko duten eragina azpimarratzen duten neurriak konbinatzeko aukera ematen dute estrategia horiek, ekitatearen edo aukera-berdintasunerako eskubidearen murrizketaren baldintzetan.

- Lehenetsuna eman behar zaie politika unibertsalei baliabide gutxieneko biztanleriari zuzendutako programa selektiboari baino lehen. Pixkanakako unibertsaltasun kontzeptuari baliozkotasuna ematea. Kontzeptu horrek pertsona guztiek gutxieneko prestazio bat izatea ziurtatzen du, premia handienak dituztenei babes-maila osagarri bat bermatuz.
- Haurren eskubideak aitortzeko ikuspuntua. Haurrak eskubideak dituzten subjektu gisa hartu behar dira, eta horrek berekin dakar, besteak beste, haurren gaineko esku-hartzea familia-ekintzaren ekintza subsidiario gisa hartzea (hau da, familiaren ahalmenek huts egiten dutenean edo nahikoak ez direnean jardutea soilik).
- Diruak ardura du eta asko gainera, baina pobrezia baliabide-gabezia baino zerbait gehiago da. Hala, prestazio ekonomikoak funtsezkoak badira ere, oso garrantzitsuak dira baita haurren arretako zerbitzu publikoak, hezkuntza, kultura-, aisialdi- eta osasun-zerbitzuak, eta haurren bizitza-aukeretan gizarte-oinordetzaren garrantzia murrizteko helburua duten neurriak, gurasoei beren guraso-ardurak betetzen laguntzen baitiete.
- Familientzako laguntzei garrantzia ematea, eta laguntza horien baitan, zerga-sistemaren bidez antolatzen diren laguntzei (zerga-arintze politikak, familien diru-sarreraren arabera, prestazio ekonomiko garbi bihur daitezkeenak). Laguntza horiek alde on hauek dituzte: sistema sinplifikatzen dute, gutxiago laidoztatzen dute eta enpleguari bere ahalmen inklusiboa itzultzen laguntzen dute.
- Esku-hartze goiztiarren eta *funtsesko urteen* ikuspuntuaren garrantzia. Bizitzaren lehen urteetan desberdintasunak kentzea helburua duten esku-hartzeek eragin ukazina dute helduaroko desberdintasunetan, neurri handi batean giza kapitalaren pilatzearekin lotura dutenak. Beraz, aukerak parekatzeko garapen pertsonalerako arreta goiztiarra egiteko argudioaren ondorio ekonomikoa da ekonomia-itzulerarako gaitasun egiaztatua duela.
- Eskolak, bere hezkuntza-ekintzaren bidez, ikasleen gizarte-, ekonomia- eta kultura-ezaugarriak gainditzeko lagun dezake, baldin eta gizarte-egoera ahulenerako ikasleei zuzendutako gastua handitzen badu eta ikasle horientzako berariazko eskola-laguntzak indartzen baditu.
- Pobrezia-aren esperientziak haur pobreenentzat dakartzen zailtasun eta desabantaila asko (hezkuntza-zailtasunak, estatusarekin lotutakoak eta abar) gizarte-heziketako zerbitzuen eta esku-hartzeen bidez arin daitezke. Zerbitzu eta esku-hartze horiek haurren biztanleria osoak eskura ditzakeen eta garapen egoki bat izateko funtsezkoak diren ikaskuntzetarako, gizarte-sareetarako, esperientzietarako, harremanetarako eta jakintzetarako sarbidea eskaini behar dute. Zeregin horretan, hainbat motatako sistemak, programak eta zerbitzuak biltzen dira (gizarte- eta kultura-zerbitzuak, aisialdikoak eta denbora librekoak, kirol-zerbitzuak eta abar), erki-degoko mailakoak.

Azterketa horri buruz esan beharrekoa amaitzeko, adierazi behar dugu erabat ados gaudela ematen dituen oi-

narrizko gomendioekin, batez ere erakundeen arteko esku-hartze plan edo estrategia oso bat, haurren pobrezia prebenitzekoa eta arazo horri heltzekoa, beharra aipatzen duenarekin. Gure ustez, gainerako gomendioek gomendio horren baitan sartzen dira. Estrategia hori, aipatzen dugun dokumentuaren esanetan, “*ezinbestekotzat jotzen da jada dauden politikak hobetzeko, eragileen zeregina koordinatzeko, arazoari gizartean garrantzi handiagoa emateko, eta funtsean, haurren pobrezia lehentasunezko arazotzat hartzeko. Epe ertainera eta epe luzera, plan horren helburuak izan beharko luke Euskadin ezarritako gizarte-babeserako sistemaren ezaugarri nagusiak aldatzea, haurrei eta gazteei, bai eta seme-alabak dituzten familiei ere, eragiten dien pobrezia-arrisku handiagoa gehiago aintzat har dadin, eta haurren aldekoagoa den gizarte-prestazioen esparru bat sor dadin, gizarte-estatu inbertitzailearen postulatuekin bat datorrena*”.

Behar hori dagoela konbentziturik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu, Gizarte Politika eta Etxebizitza Batzordean uztailan aurkeztu zen lege besteko proposamenarekin lotuta sortu zen eztabaidari interes handiz jarraitu genuen. Urriaren 16an, 146/2013 Legez besteko Proposamena, haurren pobrezia aurre egiteko neurri buruzkoa, onartu zenean, amaitu zen eztabaida. Proposamen horretan, “*Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio plan bat egin eta bultza dezala, EAEko foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan arituz eta gehienez lau hilabete epean, zeinak bilduko dituen pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak eta zeinak bereziki jasoko dituen haurren pobrezia prebenitzeko eta haren aurka borroka egiteko neurri espezi-fikoak*”.

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren planei buruzko interesa adierazita, Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak duela gutxi jakinarazi du, lehenik eta behin, 2012ko Pobrezia eta Gizarte-desberdintasunen Inkestaren estatistika-ustiapen xehakatu bat egingo duela, eta haurren pobrezia eta pobrezia horren eskualdekotzea izango dira azterketa horren berriazko xede, 14 urtetik beherako biztanleriaren egungo ahulezia zer faktorek areagotzen duten hautemateko. Inkesta horrekin lotuta eta pobrezia eta bazterketa erritmo azkarragoan areagotzen ari dela kontuan izanda, 2014. urtean eguneratzea erabaki dute, estatistika-eragiketa horrentzat aurreikusitako 4 urtean behingo maiztasuna laburtuz.

Bigarrenik, hau proposatzen da: Plan guztiek haurren pobrezia-ekin lotuta hartu dituzten neurri guztiak biltzea eta koordinatzea, inklusio aktiboko neurri bereziki azpimarratuz; beste neurri mota batzuk ezartzeko espezialisten iritzi aditua biltzea; eta proposatzea “*jarduketa-plan integral bat, egungo arrisku multzoa murrizteko eta belaunaldiz belaunaldi ez igarotzea prebenitzeko*”.

Erantzunak epeen konpromisorik ematen ez badu ere, eta zehaztapen gehiegi ematen ez baditu ere, atsegin ematen digu jakiteak eragile askok, sozialek nahiz erakundeetakoak, egindako eskaera artatuko dela. Zalantzarik gabe, konpromiso horren jarraipena egingo dugu datozen hila-beteetan.

2.8. Beste batzuk

2.8.1. Justizia

Nahiz eta [Arartekoa sortu eta arautzeko legeak](#) 13.1. artikuluan argi eta garbi azaldu ez dela *sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezkeen arrenkura banaka aztertzen hasiko*, alde batetik, adingabeen fiskaltzari eta, bestetik, adingabeen defentsan jarduten duten erakundeei, besteak beste, Arartekoari, Adingabeen Defentsa Bulegoa zenaren lekukoa eta mandatua berriaz hartu duenari, esleitutako haurren eta nerabeen eskubideak babesteko funtzioek bat egiteak berekin dakar, praktikan, bi instantzien artean sarritan informazioa eta kudeaketak trukatzeko komunikazio-kanal bat izatea. Epailaritza eta fiskalekin lankidetzan jarduteko esparru horretan, edonola ere, ez dira banakako kasuak soilik lantzen (segur aski, ezta funtsean ere), baizik etab aita antzeko egoeretan dauden pertsona taldeei eragiten dieten gaiak edo antolaketa-gaiak (prozedurak, prozesuak, protokoloak edo jarduketak baino ez), pertsona batengan edo hainbat pertsonengan izandako eragin negatiboak erreparatuta, hobetu daitezkeenak. Hala, aurten gai hauen inguruan jardun dugu, besteak beste:

- Haurren lapurreta, bai gurasoetako batek lapurtzen duenean, bai “lapurtutako haurrek” esaten zaien kasuan. Azken kasu horiei buruz hitz egingo dugu 2.8. puntuan.
- Bakarrik dauden adingabe etorkinak.
- *Homeschooling* delakoarekin lotutako babes gabeko egoera deklaratzeko.
- Epailaritza agindutako kontsultagatik familia elkartzeko puntuen txostenak eta harremana.
- Salaketa bat duten 14 urtetik beherako adingabeen kasuan, gurasoen informazioa ematea.

Azken gai horrek erakunde gogoeta eginarazi digu, eta 2014. urtean horien inguruan gehiago sakontzeko asmoa dugu, egoera horiek familiaren gertuko esparrutik heltzeko, informazioa eman eta egoeraren berri izanez, eta bitartekari- eta prebentzio-lanak eginez.

Gaiz aldatuz, esan behar dugu Herri Administrazio eta Justizia Sailari 2013. urtean egokitu zaizkion jarduketak txosten honen hainbat puntutan azaldu direla, herritarren intereseko esparruekin bat datorren aurkezpen bat egite aldera (eta ez aipatu administrazioak agindutako aurkezpen bat): osasun mentala gazteen justiziako baliabideetan, [Osasuna](#) atalean; familiak elkartzeko puntuak, [Familia](#) atalean; Auzitegiko Medikuen Laborategiko Unitate Genetikorako aurreikuspenak, ondoko atalean; etab.

Azkenik, Bulego honen 2012ko txostena amaitzeko, adierazi genuen beharrezkoa zela haurrentzat eta nerabeentzat adiskidetsuagoa eta gertukoagoa izango zen justizia bat lortzeko lanean jarraitzea, non entzunak izateko, informazio egokia jasotzeko, beren intimitatea eta pribatasuna babesteko eskubideak edo beste edozein eskubide bermatzen diren. Batez ere biktima edo lekuko gisa parte hartzen duten kasuetan. Hori dela eta, eta berritzailea izateagatik eta, a priori, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu daitezkeen praktika egoki bat dela iruditzen zaigulako, Murtzian hemendik gutxira abian jarriko duten proiektu pilotuaren berri eman behar dizuegu, adingabeentzako *justizia-areto*

adiskidetsu delakoen berri, hain zuzen. Epaitegietan kokatuta dauden espazio batzuk dira, eta bertan psikologoekin lan egiten da, abusuen biktimen diren adingabeak aztertzen dira eta deklarazio judiziala ematen dute, konfiantzazko ingurune batean. Bideo-zaintzako sistema baten bidez, epaimahaiarekin komunikazioa mantentzeko daitezke eta haurren lekukotza prozeduran aintzat har daitezke, bigarren mailako biktimizazioa eta errepikakorra gertatu gabe. Sistema judizialean hutsuneak daudela oharazten jardun duten gizarte-erakundeek eta espezialistek behin eta berriz eskatu izan dituzte neurri mota horiek, batez ere haurrek biktima edo lekuko gisa jardun behar duten egoeretan. Egiaztan, zenbait lekutan badaude areto horien antzeko diseinua duten aretoak, baina adingabeekin lan egiten duten gizarte-erakundeen mende daude, ez Justiziako administrazioaren mende.

Egun hauetan eskura genuen informazioa ikusita, areto adiskidetsu horien ideia Delituen Biktimen Estatutuaren Lege Organikoaren Aurreproiektuak jada arautzen zuen, eta inspirazio gisa hartu zuen [Europako zuzentarauaren](#) lekualdaketa huts bat baino gehiago da, biktima guztien prozesu-eskubideen eta prozesuz kanpoko eskubideen katalogo orokorra izateko helburua baitu. Horrez gainera, Kode Penalaren erreforma berrian sartzen diren adingabeen buruzko neurri guztiek hauek izan zituen inspirazio: [Lanzaroteko Hitzarmena](#) izenez ezaguna den hitzarmena, eta Europako Kontseiluaren 2007ko Hitzarmena, Espainiak 2010. urtean berretsitakoa, haurrek esplotazioaren eta sexu-abusuaren aurka babestekoa. Hemen aztertzen ari garenekin lotuta, bereziki interesgarria da hitzarmenaren VII. Kapitulu (baita 35. artikulua ere), *ikerketari, auzipetzeari eta prozesu-zuzenbideari* buruzkoa.

2.8.2. “Lapuritutako jaioberriak”

2012ko txostenean, gai honi buruz hitz egitez bukatzeko, garai hartan Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaria zenak (Eusko Jaurlaritzak adierazi zigun xede horretarako 2012. urtearen hasieran sortu zen Sail arteko Batzordearen buru zela, bai eta batzorde horren eta kaltetutako pertsonen elkarrean arteko lotura ere) Sail arteko Batzordeak sustatutako jarduketari buruz emandako informazioaren berri eman genuen. Jarduketa horien artean, deigarria iruditu zitzaigun “*ADN frogak egiteko laborategi bat, Auzitegiko Genetika Unitatea, Donostiako Justizia Jauregian kokatua, Euskadiko Legezko Medikuntza Institutuaren Gipuzkoako zuzendariordetzan, eta Justizia Ministerioko Toxikologia Institutu Nazionalak lan horretarako balio duena bermatzen du*”. Kaltetutako pertsonen taldeek eskatutako ekimenetako bat izan da, senideak bilatzeko modu gisa.

[Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko](#) arduradunarekin harremanetan jarri ginenean argitu zigunez, berriz, atal hori ez zegoen pentsatuta DNA banku gisa ustezko egiaztapenak edo hirugarrenen gurutzatzeak egiteko bertan DNA lagin bat utzi nahi duen pertsona orori irekita, eragindako pertsonen taldeek eskatu ohi duten moduan edo erakunde honetan ulertu genuen bezala. Izan ere, sarbidea sistema judizialek sortutako eskaerara mugatuta dago: atalaren edozein eragiketa agindu judizial batek zehazten du eta, beraz, dagokion salaketa eta ministerio fiskalaren alde aurreko onspena egon behar dira.

Kontuan hartzen badugu eragindakoen arazo nagusia probaren zailtasuna dela eta, egindako ikerketak ez dira onduzkoak heldzen, ezta ebidentziak aurkitzen ari ere, erakunde honen ustez, argi dago deskribatutako DNA bankuaren moduko diseinuak oso erantzun mugatua eskaini ahal izango duela. [Uztailaren 13ko 1/2011 Gomen-dio orokorrean](#) jada aipatu genuenez (1960ko eta 1970eko hamarkadetan jaioberriak beren ama biologikoengandik bidegabe banandu edo ebatsi zireneko egintzak argitzen lagunduko duten neurrien premia), DNA bankuaren sarbidea irekiko balitzake ebasketa pairatu izanaren “susmoa” duten (bai eurek, bai euren seme-alaba edo senide zuzenek) baina salaketa batek aurrera egin ahal izateko beharrezkoak diren ebidentzia nahikorik ez duten pertsonen euren DNAREN lagin bat utzi ahal izateko ustezko gurutzatzeetarako (eta gerta litezkeen topaketetarako), zalantza eta isiltasuneko urteen ostean batere erdeinagarri izango ez litzatekeen itzaropenezko bidea eskainiko litzake. Ezin dugu ahaztu berrelkartzea pisurik handiena duen motibazioetako bat dela eragindakoek gertakariak salatzen dituztenean.

Informazio horrekin Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailera jo genuen aurreko taldeak haurrek ebatsi izanaren susmoen inguruan garatutako jarduerekin jarraitzeko zuen aurreikuspenak ezagutze aldera, baita ustezko egiaztapenak edo hirugarrenen gurutzatzeak burutzeko bere DNAREN lagin bat utzi nahi duen pertsona orori irekitako DNA banku bat abian jartzeko aukerari buruz duzun iritzia berri izate aldera ere. 2013ko ekainean jasotako erantzunak 3 alderdiren inguruan eman zuten iritzia:

1. Aztergai ditugun gertakariak jorratu eta aztertzeko aurreko gobernu taldeak eraturako [sail arteko batzordearen etorkizuna](#). Horri buruz, aurreratu zuten berriz antolatuko zutela Eusko Jaurlaritzaren konfigurazio berria. Hala ere, ordura arte egindako jarduerekin jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten eta hauxe jakinarazi zuten: adopzio irregularren eta haurren lapurreten kasuak bideratzeko, Toxikologia eta Zientzia Forentseen Institutu Nazionalaren (TZFIN) jarduera Protokoloa” eta “Adopzio irregularren eta adingabeen lapurreten kasuetako hobitiki ateratzearen aurreko gomendio Gida” erabiltzen zizutela.
2. [Auzitegi Medikuntzako Genetika Atalaren izaera](#); Legezko Medikuntzaren Euskal Institutuko arduradunak esan zuen moduan, prozedura judizialen izapidean jardungo du beti, EAEko organo jurisdikzionalei eta fiskaltzari egungo erantzuna baino azkarragoa emateko. Azken batean, ez da inolaz ere irekita egongo egiaztapenak egin ahal izateko laginak utzi nahi dituzten pertsonentzako.

[DNA bankuaren](#) ideari dagokionez, aditza eman zen TZFINen Profil Genetikoen Fitxategi (bankua) bakarra eta zentralizatua dagoela, TZFIN-ADNID izeneko, eta erakunde honen ustez “*eraginkortasun handiagorako bidea ematen du eta datuen eta emaitza analitikoaren gurutzatzea nabarmen handitzen du*”. Goian adierazitako protokoloak barne hartzen ditu ustezko modu irregularrean adoptatutako seme-alaben eta senideen laginak jaso-

tzeko Legezko Medikuntzaren Institutuen jarraibideak. Laginak betiere prozedura judicial baten esparruan eman behar dira.

3. Legezko Medikuntzaren Euskal Institutuko [Auzitegi Medikuntzako Genetika Atalaren egungo egoera](#); horretarako, inbertsio handia egin zen. Horri dagokionez, adierazi zen *“arauz ezarritako beharrezko baimenak lortzeke daudela”*, abian jartzeko 17025 ISO Arauari jarraiki egiaztatuta egon behar baita. Araudi horrek xedatutako baldintzak betetzeak hauxe dakar: *“laborategian lan egingo duten pertsona kopurua handitzea eta egungo garapenerako prozedurak eta ekipamendua ugaritzea”* eta horrek aldi berean *“horretara bideratutako aurrekontu esleipena edukitzea”* dakar; kontuan hartuta aurrekontuaren egungo esparru zorrotzean jardura hori lehentasunezkoztat joz gero bakarrik eman go litzatekeela.

Beraz, ondorioztatu behar dugu, Auzitegiko Genetika Sekzioaren garapenean egungo ekonomia-testuinguruari egotz dakizkiokeen atzerapenak gerta daitezkeen arren, erakunde honen ustez, egiaztapen posibleak egiteko irekia eta prest egongo den “ADN-banku bat” abian jartzea urrats garrantzitsu bat izango da, herri-administrazioek kaltetutako familiei eman diezaieketen lankidetzan eta laguntzan.

2.8.3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)

2012. urtearen amaieran, zenbait pertsonen argazki eta bideo intimoak baimenik gabe hedatu zirela jakin zuen, eta dirudienez, pertsona horiek Deustuko Unibertsitatearekin lotuta zeuden. Gero eta sarriagoak diren egoera mota horientzat, batez ere, haurrei, nerabeei eta gazteei eragin diezaieketenean, oso kezkatuta gaudenez, eta arriskuan dauden eskubideen garrantzia eta sortutako gizarte-alarma dela eta, erabaki genuen komenigarria zela sortutako arazoaren inguruan sakontzea. Hausnarketa horretatik ateratako zenbait gogoeta eta ondorioa zalduko ditugu, haurrekin eta nerabeekin lotura zuzena baitute.

Gazteenek euren informazioa eta euren irudia babesteko ahalmena bereganatu beharrak Arartekoaren kezka eragin du aspaldiko urteetan, eta jada 2008an hainbat material didaktiko argitaratu izana da horren lekuko: [Leihoak](#), *“Abentura erreala mundu birtualean. Gozatu Internetez sarean erori gabe”* eta [Ciberbullying-a](#), teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoaren aurkezpena. Geroago berriazko atal bat sortu da [baliabide elektronikoen erabilera arduratsuz Eskubideen uhartearen web orrian](#).

Garai hauetan, esperientziak erakutsi digunaren arabera, esan dezakegu gure haurrak ez daudela informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien ahalmen handien eraginpetik kanpo, haien arriskuen eraginpetik kanpo ez dauden bezala. [Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluak](#) arrazoiz esan zuen, beherago aipatuko den e-inklusioari eta e-partaidetzari buruzko txosten berezia egin zuenean: *segurtasunez erabili behar ditugu Internet eta sare sozialak. Googlek dena daki eta Facebook edozerekin lotzen da, baina arriskuak ere badaude*.

Beraz, argi badaukagu haurren eskubideak babestu behar direla, ingurune birtualak dituen arriskuez jabetuta bagaude, haurrekin zerikusia duten erakunde guztien egitekoa izango da beren buruak babesteko behar dituzten tresnak ematea, Interneten erabilera seguru eta arduratsua lortzeko behar diren baldintzak sortuz. Dagoeneko ekimen interesgarriak eta praktika egokiak sortu dira helburu horri begira, baina orain ez ditugu zehatz-mehatz azalduko. Horietatik ikasgai interesgarri batzuk atera daitezke, pertsona helduentzako prebentzio ekimenetara eramateko, horrelakoek orain arte gutxi sustatu baitira.

Edonola ere, zalantzarik gabe, adingabeen heziketarako eta kontzientziatorako ezinbestekoa da gizarte eragileen, gurasoen, erakunde publikoen -bereziki hezkuntza arlokoak eta agentzia espezializatuak- eta gizarte zibilaren arteko lankidetzan eta koordinazioan. Euskadiko 2015 Agenda Digitalak taxutzen duen esparru egokia horretarako tresna aproposa izan liteke, eta, balio erantsi gisa, tokiko agenda digitalak sustatu eta bultzatuko ditu.

Hori horrela, interesgarria litzateke EAEko Administrazioak [Andaluziako Batzordearen otsailaren 6ko 25/2007 Dekretuan](#) ezarritako ekimenen antzekoren bat antolatzea. Interneten erabilera sustatzeko, arriskuei aurrea hartzeko eta segurtasuna zaintzeko neurriak ezartzen dituen dekretu horrek IKTak eta horien onurak eskuratu eta baliatzeko eskubidea aitortzen die gazteei, eta horrekin batera erabilera egokiari buruzko jarraibideak ematen ditu.

Arartekoak eskubideen ikuspegia eranstean die bere azterketei, eta horrexegatik aldarrikatzen dugu, IKTak eta adingabeak elkarrekin lotzen dituzten jarduketetan, adingabeei informazioaren gizartea eskura jartzea eta sarean ingurune seguruan hazi daitezen ahalbidetzea dela helburua. Hala, Arartekoak [e-inklusioari eta Euskadiko herri-tarrek IKTen bitartez eremu sozialean eta publikoan parte hartzeari buruz](#) txosten berezi bat prestatzean, txostenaren gaia ez izan arren, Interneten erabilera seguru sustatzearen gaineko gomendioa jaso du bertan, ikuspegi global eta integratzailea hartuta. Hona hemen ikusmolde horren aurrerapena:

- Bai adingabeekin, bai hezkuntza komunitateko gainerakoekin (irakasleak eta gurasoak), hedapenaren, sentsibilizazioaren eta heziketaren arloetan lan egitea proposatzen da.
- Garatzaileek, eduki-sortzaileek eta eremu publikotik nahiz pribatutik sarearen garapenean parte hartzen duten beste profil, entitate eta erakunde batzuek sare seguruagoa sortzeko konpromisoa har dezaten lortu nahi da. Hortik abiatuta Arartekoak zenbait proposamen estrategiko egingo ditu, haur eta nerabeek IKTak modu seguruago eta arduratsuegi erabili ditzaten sustatzeari lotuak.

Helburua da, azken batean, oreka bilatzea, alde batean jarriz berrikuntza eta gizarte sareek dituzten ahalbide izugarriak, eta beste aldean pertsonen eskubideen bermea. Informazioa, gardentasuna eta ezagutza eraginkorra dira horretarako giltzarriak. Hitz batez, heldutasun digitala da gakoa, pertsona guztiek erabili ahal izan dezaten gailu mugikorren, Interneten eta gizarte sarearen ahalmen aparta, euren pribatutasuna, intimitatea eta irudia arriskuan jarri

gabe, elkarrekin aurrera eginez benetako komunitate digitalaren eraikuntzan.

2.8.4. Gainerako esparruak

Segurtasunaren esparruan, aurten Ertzaintzaren Bilboko atxiloteta-zentroa eta Gasteizko udaltzainen atxiloteta-zentroa bisitatu dira. Bi zentroetako **instalazioak**, oro har, egokiak dira bere zeregina betetzeko. Hala ere, udaltzaingoaren zentroak ez du adingabeak zaintzeko berariazko lokalik, [5/2000 Lege Organikoak](#), abenduaren 12koak, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena (17.3. artikulua).

Haur eta Nerabeen Bulegoaren txosten honetan aztertu diren **etxebizitzaren** esparruan egindako jarduketek zerikusia dute etxe gabetze egoerekin (batzuk hur-hurrean daude eta beste batzuk ez horrenbeste), adingabeak zuzenean kaltetuta zeudela ziur genekien egoerekin, hain zuzen. Kasu batzuetan, pertsona eskatzaileei aholkatuz eta haiek bideratuz esku hartu da, eta beste batzuetan, berriz, bitartekaritzakudeaketak egin dira, hitzarmenak edo irtenbideak lortzeko.

Azken garaian, etxebizitzak enkantean jarriz eta esleitzen amaitzen duten betearazpen-prozeduretako familietan inpaktua arintzeko hartu diren neurrien artean, eta haurrak eta nerabeak babesteari begirune berezia diolako, interesgarritzat jotzen dugu atal honetan hau azpimarratzea: [2012ko urriaren 15eko Agindua](#), [Etxebizitza](#), [Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena](#), [etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa](#), [2013ko urtarrilaren 2an indarrean jarritakoa](#). Agindu horren Xedapen Gehigarriak aginduan aurreikusitako esleipen-prozeduretatik salbuesten ditu “*seme-alaba adingabeak dituzten bizikidetzak-unitateak, baldin eta gizarte-bazterkeriako arrisku larrian badaude hipoteka betearaztearen ondorioz ohiko bizilekua zen etxebizitza odolkidetasunez edo hirugarren mailako kidetasunez ahaidetasunik ez duen pertsona bati esleitu zaiolako (...)*”. Englegu eta Gizarte Politikako Sailak Eusko Jaurilaritzak egindako galdera bati erantzunez emandako informazioaren arabera (egindako galderaren [10/10/05/03/2426/13339 idatzizko erantzuna](#)), 2013. urtean zuzenean esleitu zaien etxebizitza bat etxe gabetzeko egoeran, gizarte-bazterketako arriskuan eta ekonomia-egoera prekarioa zuen 23 bizikidetzak-unitateri (aginduak xedatzen dituen baldintzak). Kasu horietako gehienak udal gizarte zerbitzuen bidez izapidetu dira, haiek aztertzen baitu egoera pertsonak, sozial eta ekonomiko zehatza.

Horrez gainera, gizarte zerbitzuetara joan ez diren eta aldi baterako ahulezia-egoera egiaztatzen den prozedura judicial batean sartuta dauden kasuak hautemateko, ekainaren 18an sinatu egin zen [Botere judizialaren Kontseilu Nagusiaren](#), [Eusko Jaurilaritzaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen \(EUDEL\) arteko lankidetzak-hitzarmena](#), [familia-etxebizitza-tik botatzaren ondorioz sortutako urrakortasun-egoerak detektatzeari buruzkoa](#), [neurri sozialak hartzea bideratzeko](#). Lankidetzak-hitzarmen horretatik azpimarratuko genuke hipoteka betearaztearen ondoriozko egoerak eta errenta ez ordaintzearen ondoriozko etxegabetzeak aintzat hartzen direla. Esparru horretan aplikatzen badugu [pobrezia pai-](#)

[ratzeko arriskuan dauden adin txikikoei](#) buruzko atalean azalduetako ebidentzia, idatziz jasotzen duena *krisiak lehenago eragiten diela, gogortasun handiagoz, denbora luzeagoan eta ondorio kaltegarriagoekin eta iraunkorragoekin gizarte-desabantailako egoeran dauden pertsona eta talde horiei*, ez zaigu zaila egingo pentsatzea pertsona eta talde horiek etxea errenta-erregimenean dutela batez ere. Hori dela eta, oso interesgarria iruditzen zaigu kasu horietarako ere neurriak hartzea. Hitzarmenak, Legebiltzarrak egindako galderari emandako erantzunean aipatzen denaren arabera, sinatu zenetik aplikatzen da neurri hori, eta aldi honetan, hain zuzen, errentan zegoen pertsona baten etxegabetzearen kasuan aplikatu da formalki.

Azkenik, jakinarazi nahi dugu ofiziozko esku-hartze bat hasi dela, Eusko Jaurilaritzako Familien Gainzorpizteari Aurre Egiten Laguntzeko zerbitzuaren funtzionamendua zein den eta zer emaitza dituen jakiteko. Ikerketa oraindik bukatu gabe dago.

Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du bere kezka **joera homosexuala (gay eta lesbiana) edo bisexuala duten nerabeez eta nortasun transgeneroa edo transexuala** dutenez (aurrerantzean *lgtb*) euren errealitatea onartzen ez duten egoerak bizi baitituzte egunero eta, zenbaitetan arbuia ere egiten dituzte familian, eskolan edo gizartean.

Aurten ez da gai honi buruzko banako kexarik jaso, beraz, horrek esan nahi du berdintasun formala ziurtatu dela gure sistema publiko ia osoan. Aldiz, bide luzea daukagu oraindik egiteko aniztasun afektibo-sexual eta genero arlokoaren aurkako jarrerak errotik kentzeko; alor honetan lanean aritzen diren elkarteekin eta administrazioarekin izandako bileretan argi geratu da hori.

Azken urteetan ikusten ari ginenez haurtzaro eta nerabezaro *lgtbren* alorrean hezkuntza sisteman gabezia nabarmenak zeuden aniztasun afektibo-sexual eta genero arlokoaren eskubideekiko erabateko errespetua integrazteko, ikusteko moduan jartzeko eta sustatzeko. Ez zegoen irakasleak trebatzeko eta sentsibilizatzeko planik edo programarik eta getetan gai hauei ez zitzaien heltzen modu sistematikoan eta antolatuan, sexu joerari eta genero nortasunari buruzko berariazko materialik ez zegoen, eta material didaktikoetan elkarbizitzako eredu berriak ez ziren agertzen, besteak beste.

Aldiz, 2013an aurrerapen handiak egon dira alor honetan. Hasteko, Familia Politika eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritzak eta bereziki pertsona gay, lesbiana, bisexual eta transexualen arretarako euskal zerbitzuak, [Berdinduk](#), gai honi eman dioten bultzada azpimarratu nahi dugu. Horri esker, topaketarako hainbat espazio sortu dira eta gizarte erakundeek, ikastetxeek, hezkuntzako profesionalek, amek/aitek eta zenbaitetan beste eragile eta zerbitzuek kezka, hausnarketak eta gaiari heltzeko proposamenak partekatzeko aukera dute eta ikuspegi interesgarriekiko ekimenak sortzen ari dira (trebakuntzakoak, informatzakoak, topaketarako eta harremanetarakoak, etab.).

Aipamen berezia behar du “Eskola segurua: homofobiari eta transfobiari aurrea hartu eta aurre egin” jardunaldiak, hezkuntza arloko eragile esanguratsuen arteko elkarlanerako abiapuntua izan baitzen, eskola seguruak sortzeko

programak eta jarduerak egiteko, heltzeko eta sartzeko; eskola horietan aniztasuna modu positiboan bizitzeko aukera egongo da. Jardunaldiaren amaieran partaideek ohar batzuk egin zituzten eta etorkizuneko lanean kontuan izan beharrekoak zirela adierazi zuten:

- Hezkuntzaren alorrean homofobiari eta transfobiari heltzeko eskumendun sailen jarraibide politikoen garrantzia.
- Homofobia, transfobia eta aniztasun afektibo-sexualaren berezitasuna sartu hezkuntza sistemako antolakuntzan eta arauetan dagoeneko badauden protokolo eta agirietan.
- Aniztasun guztietarako planteamendu komunak egoteko egokitasuna baloratu (fase eta kasu batzuetan gutxienez), partekatzen dituzten elementuak dauden heinean.
- Hezkuntza erkidegoko kide guztien (irakasleak, irakasle ez direnak, ikasleak eta gurasoak, batez ere) trebakuntzaren eta elkarlanaren garrantzia, homofobia eta transfobiari heltzeko eta aniztasun afektibo-sexuala artatzeko behar dituzten tresnak izan ditzaten.
- Curriculumetan LGTB edukiak sartzeko beharra, aniztasun afektibo-sexuala zehar-lerro bezala tratatzeko.

Dena dela, eta lehen esan bezala, jardunaldi honek balio erantsia ere izan zuen: lantaldea egonkortu eta instituzionalizatu egin zen. Urteko hirugarren hiruhilekoan biltzen da eta talde egonkorreko lehenengo bilera orduan izango da: eskola segurua. Talde horretan zerbitzu, erakunde edo organizazioen ordezkari ofizialak egongo dira.

Alor honetako bigarren zedarrria [Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana](#) duela gutxi onartu izana da; argi geratu da euskal administrazioak hezkuntza sisteman ikuspegi hau sartzeko

berariazko borondatea duela. Plan horri ko-heziketaren ikuspegi zabaletik heldu zaio; pertsonen osoko garapena du xede, jarrera estereotipatuak kendu nahi ditu eta generoari edo sexu joerari buruzko aurreiritzietan oinarritutako diskriminazio ororen aurka egiten du. Kontuan izan behar da DBHko ikasleen %23,6ren arabera kideren bat gay edo lesbiana izateagatik etengabe nola baztertzen den ikusi duela.

Amaitzeko, Rainbow Has europar proiektua aipatu behar. Arartekoa buru duen proiektu honen xedea aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetuan heztea da (ikus txosten honen V. kapitulua) eta euskal hezkuntza erakundeekin batera lana egiteko aukera ematen digu; horren ondorioz, tresnak sortu nahi dira eskola haurrentzako toki segurua izan dadin sexu joera edo genero nortasuna dena delakoa izan arren, eta garapen osoa izan dezaten pertsona bezala. Lan honen xedea da hezkuntza arloko erakundeek, familiek eta ikasleek aliantzak eta estrategiak elkarrekin sortzea, eta indarrak batzea, Euskadin honakoak bermatzeko:

- Txikitatik errespetuan, berdintasunean eta askatasunean heziko dela, eta horri esker behin betirako gaitutako direla aniztasun afektibo-sexualarekiko aurreiritziak eta genero rolak eta nortasunak ez direla zailantzan jarriko.
- Sexu joera edo genero nortasun desberdina dela-eta bazterkeria edo zailtasunak dituzten haur, nerabe eta gazteei babesa eman eta lagun egin, erabat gizarteratu daitezten.
- Haur eta nerabeen segurtasuna eskolan, euren garapen pertsonal osoa eta zorientzua lortzeko testuingurua izan dezaten.



Gure haur eta nerabeen ahotsa:

**Arartekoaren
Haur eta
Nerabeen
Kontseilua**

a t a l a

III. Atala

Gure haur eta nerabeen ahotsa: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek 1989an onarturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

Haur eta Nerabeen Kontseiluak neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta beste-lakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurretik erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilei egindako elkarriketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 12 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere,

kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentziasuna bermatzea dira kontseilua funtzionamenduaren oinarritzko arauak.

2013. urtean aurrez aurreko hiru bilera egin dira, bat Bilbon, beste bat Donostian eta beste bat Arartekoaren Gas-teizko egoitzan. Bilera presentzialak kontseiluko kideek —bilerak prestatzeko asmoz— etxean egiten duten lanarekin osatzen dira.

Aurreko urteetan bezala, Kontseilua funtzionamendua eskola-egutegiari jarraitzen zaio; hala, 2013. urteko azken bilera 2013-2014 ikasturteko lehenengo bilera izan zen. Hori izan zen lehenengo bilera kontseilua partzialki berri-ostean sartu ziren sei kontseilu-kide berrientzat ere.

Hurrengo paragrafoetan laburki azalduko dugu 2013ko saioetan egindako lana.

2013ko martxoaren 15eko bilera

Urteko lehenengo bilera Bilbon izan zen, **Bizkaiko Abokatu-
tuen Bazkunak** berariak utzi zigun tokian. Aztertu zen gai nagusia familia izan zen; *EAEn familiak babesteko politika publikoen egoerari buruz* egiten ari garen txosten bereziari buruzko hausnarketak eta ekarpenak egin ziren. Txostenaren proposamen metodologikoan landa lan interesgarria dago, eragile eta erakunde desberdinen informazioa eta proposamenak jaso dira eta eztabaida taldeak sortu dira. Hori dela eta, aholkulariek gai honi buruz esateko zituztenak entzutea interesgarria izangoenez, saio bat eskaintzea erabaki zen.

Saio lanak bi une izan zituen: hasteko, familia eredu desberdinei buruzko hausnarketa egin zen eta pertsona talde hori familia dela zer elementuk definitzen duten ere hausnartu zen; ondoren, familietan hautemandako zailtasun edota behar nagusiez eta horiek estaltzeko proposamenez aritu ginen.

“Zer da zuretzat familia?” galderari erantzuteko neska-mutilek egindako marrazkietatik abiatuta, zuzenean ezagutzen dituzten familia eredu desberdinei (guraso bakarrek, berreraikitakoak, seme-alabekikoak, seme-alabarik gabeko biko homosexualak, familia zabalak...) buruzko eztabaida aberatsa egon zen eta euren ustez familia zerk definitzen duen ere eztabaidatu zen: maitasunezko loturek, proiektu komunak eta familiak ematen dituen babesak eta segurtasunak.

Familiek dituzten zailtasun edota beharretako batzuk arlo desberdinetatik babestu daitezkeela uste da. Beharrak esaltzeko (seme-alaba gehien dituzten haientzat edo kideren bat gaixo dutenentzat bereziki) laguntza ekonomikoa eskatzen diote administrazioari, besteak beste, baita familiak informatzeko eta orientatzeko ere eta bitarteko eta zerbitzu publikoetarako (hezkuntza, osasuna) sarrera bermatzeko. Gizarteari oro har –eta hor eurak ere sartzen dira– baliabideak hobeto antolatzeko eska dakiogekela uste dute, familiarri eskaintzeko denbora gehiago, familia barruko (zereginak banatu) eta kanpoko (elkartasun sareak) babesa, eta oraindik ere onartzeko zailtasunak dituzten familiei errespetu handiagoa (sexu bereko gurasoekiko familiak edo adoptatutako seme-alabak dituztenak).

Aholkularien ekarpen guztiak [Ados Consulting](#)era igorri ziren, erakunde hori ari baita txostena egiten; ekarpen horiei esker, nerabeen ikuspegia ere sartu ahal izango da egoeraren azterketan.

2013ko ekainaren 15eko bilera

Urteko bigarren topaketa, 2012/2013 ikasturteko azkena, [Aieteko Parke Kulturean](#) izan zen, Donostian; topaketa larunbat batez egin zen goiz eta arratsalde. Gure ikuspegi, jarrera eta jokaeretan etorkinei buruzko aurreiritziek, estereotipoek eta zurrumurruek duten eraginaz hausnartzea zen helburua, eta horretarako [Biltzenen](#) lankidetzak izan genuen, Integrazioarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuarena.

Goizeko saioan zurrumurruek eraginaz aritu ginen (bereziki atzeritarrei buruzkoek) eta zurrumuru horiek isiltzeko eragile aktibo gisa zer egin dezakegun ere eztabaidatu genuen, batez ere gure neska-mutilek zer egin dezaket. Gai hauek aztertu ziren:

- Etorkinei buruz aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumurruek daudela ohartu;
- Aurreiritzi, estereotipo eta zurrumuru horiek gure ikuspegiaren eta, ondorioz gure jarreraren eta jokaeran zer eragin duten ohartu;
- Jarrera aktiboa izateko motibatu;
- Ekimenez informatu, ekintzarako (edo erreakzioarako...) balizko inspirazio iturri izan daitezkeelako.

Horretarako erabili zen metodologian bideoak komentatu ziren, taldeko lanak egin ziren informazio gabeziari buruz eta hori osatzeko moduez, neska-mutil gazteek egindako ekimen interesgarriak aztertu ziren eta aurreiritzi edo estereotipo bati aurre egiteko kontuan izan beharreko elementuez hausnartu zen.

Bazkalondoan kontseiluko ibilbideari buruzko hausnarketa egin zen eta bi urteko lanaren ondoren kontseilua utzi behar zuten sei aholkulariak agurtu ziren.

2013ko azaroaren 29ko bilera

2012ko azkeneko bilera Arartekoaren Gasteizko egoitzan izan zen eta bost aholkulari berrien lehenengo saioa izan zen.

2013/2014 ikasturterako helburu hauek planteatu dira Kontseiluarentzat: 1) haurren eskubideen ikuspegi globala izan; 2) Haurren Eskubideen Konbentzioak jaso duen eskubideetako bat sakon eta modu monografikoan aztertu eta 3) ikastaroa amaitzeko ikus-entzunezko ekoizpen bat egin, egindako lana ikus dadin eta eskubide hori neska-mutil txikien artean hedatu dadin. Ikastaro honetako lan-saioak garatzeko, [Coach and Play](#) erakundearen laguntza dugu.

Ikasturteko lehenengo saio honetan Konbentzioak haur guztiei aitortzen dizkien eskubide guztiak landu zituzten aholkulariek. Horretarako, Lego Serious Play metodologia erabili dugu, aurreko kontseiluan ere erabili baikenuen (ikus [Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2011- Haur eta Nerabeentzako txostena](#)). Metodologia honi esker hausnarketako prozesua errazagoa izaten da, elkarrizketa ere bai eta pentsamendu aktiboa ere bai. Partaideek galdera batzuk erantzun behar izaten dituzte Lego piezekin hiru dimentsioko ereduak eraikita eta ondoren kideekin trukatu behar izaten dituzte ideiak.

Bilera hau lehenengo topaketa izan zen sei neska-mutilentzat, beraz, lan saioa hasteko, aurkezpenak egin ziren eta horretarako ere Lego piezak erabili ziren. Aholkulariek piezak ezagutu ondoren eta horiekin modeloak nola egin ikusi ondoren, saioko gai nagusiari heldu zitzaion.

Haurren Eskubideen Konbentzioa aztertu genuen: nori zuzenduta dagoen, hori betetzea bermatzeko duten eragileak zein diren (familia eta administrazioa) eta gidari nagusiak zein diren (diskriminazio eza; adingabearen interes handiagoa; bizitzarako, bizirauteko eta garatzeko eskubidea; parte hartzeko eskubidea). Bertaratu zen bakoitzak aurkezpen bat egin zuen eta ondoren taldeari azaldu zion.

Ondoren, partaideek Konbentzioko eskubideetako bat aukeratu eta irudikatu zuten. Bakoitzaren lana azaldu eta eztabaidatu ondoren, ikasturte honetan sakondu eta landuko duten eskubidea aukeratu zuten aholkulariek gehien-ego handiz: adierazpen-askatasunerako eskubidea.



Haurren eskubideak

errespetatzeko kultura sortzen
laguntzeko jarduerak

a t a l a

IV. Atala

Haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko jarduerak

1.

Gizarte-eragileekiko lankidetzak

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeen Bulegoak, bere jarduera-ildoan artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haien eskubideak jendarteratuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzak-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan, eta abar. Horrela, bilerak egin ditugu eta parte hartu dugu [UNICEF](#), [Save the Children](#) eta [Haurren Erakundearen Plataformaren](#) foroetan edota topaketa publikoetan. Horiek guztiek haurren eta nerabeen errealitatearen inguruan elkar aberastea dakar, baita lankidetzarako ildoak, arloak eta proiektu zehatzak aztertzea ere. Antzeko helburuekin eta kontuan hartuta bi erakundearen helburuak neurri batean bat datozela eta osagarriak direla, lankidetzak-hitzarmen bat sinatu da Grupo de Sociología de la Infancia y la Adolescencia (GSIA) elkartearekin. Hitzarmen horretan zenbait jarduerak egitea proposatu da, haur eta nerabeen eskubideen arloan gizarte sentikorrako bihurtzeko, gizarte arloko profesionalak (oraingoak eta gerokoak) eta ikertzaileak haurren eskubideen eta soziologiaren arloan trebatzeko, haur eta nerabeen egoerari eta bizi-baldintzei buruzko txostenak, azterlanak eta ikerketak egiteko.

Haurrek beraien ongizatea edo garapena arriskuan jar dezaketen inguru eta eragingarrietatik babestuak izateko duten eskubidea dela-eta, [Libera Euskadi elkarteak](#) erakunde honetara etorri zen, haxe eskatzera: zezen ikuskizunetarako sarbidea debeka ziezaietela adin txikikoei.

Ezintasunen bat duten pertsonen arloan, ezintasun, mendekotasun, buru-osasun eta gaixotasun kronikoen arloetako aholkulari koordinatzaileak, Haur eta Nerabeentzako Bulegoko Aholkulari Batzordeko partaideak baitira, aldizka harremanak izaten dituzte sektore-erakundeekin. Horrela, aurten hainbat bilera egin dira [ACABE](#), [AVATI](#), [FEVAPAS](#) eta Síndrome de Dravet Fundazioarekin. Aztertutako egoera edo arazoren bat haur eta nerabeengan bereziki agertzen bada edo haiengan eragin berezia badu, elkarlanean aritzen gara, arazoen konponbideari haurren ikuspegia gehituz. Halaber, [Lagungo Fundazioak](#) eta guk elkarri geure burua aurkeztu diogu. Fundazio horrek kudeatzen du buru-osasuneko arazoak dituzten haurrak artatzeko Osatuz programa, baita zailtasunak dituzten familien arloko beste jarduerak batzuk ere.

Aurten, berriro ere, *Ume alai*a familia adoptatzaileen elkar-tearekin harremanetan egon gara, oraingoan adoptatutako haur batzuek adoptatuak edota atzeritarrak izateagatik beren ikastetxeetan pairatzen dituzten parekoen arteko tratu txarren gaineko kezka dela eta. *Euskarri* Bizkaiko familia hartzaileen elkarteak zenbait gai interesgarri adierazi zizkigun, beren errealitatea ezagut dezagun, bai haurrekiko harremanetan dituzten arazoak, bai haurren tutoretza duten erakundeek emandako laguntzak edo eguneroko bizitzan familia biologikoekin parekatzea. Babesik gabeko haurrekin zerikusia duten elkarten arlo honetan, [ANAR Fundazioak](#) ere gure lurraldean ezagutarazi nahi zuen gizarte-arazoak dituzten haurren zerbitzurako baliabideak eta programak kudeatzen duen ezaguera zabala eta eskarmentua.

Azkenik, iaz bezala, aurreko kapituluan aipatu dugun Haur eta Nerabeen Kontseilua berritzeko prozesuaren ondorioz, berritzeguneekin, zuzendaritzekin, irakasleekin eta gurasoekin ditugun harremanak berriro edo ezarri behar izan ditugu; modu berean, foroetan, jardunaldietan eta biltzarretan parte hartzearen ondorioz, harremanetan egon gara haurren arloko beste erakunde batzuekin, hala nola [Vivir sin Drogas fundazioarekin](#) edo [EDEXekin](#).

2.

Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak

Modu berean, askotarikoak dira erakunde instituzional eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzan aritzeko espazioak eta uneak. Solaskideetako batzuk honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietako sailburuordea.
- Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria.
- Berdindu zerbitzua.
- Biltzen zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
- Hiru foru aldundien Gizarte-entzina / Gizarte Politika / Gizarte Zerbitzuak sailtako haurren zerbitzuetako arduradunak (+ zenbait zerbitzu, programa eta baliabidetako arduradunak).
- Arabako Bitartekaritza Judizialeko Lantaldea.
- Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza.
- Innobasqueko zuzendari korporatiboa.
- Osasun sailburuordea.
- Arabako Osasun Mentalaren Sareko Gerentzia.
- Gasteizko Udala (Haur eta Nerabeen Partaidetzarako Programa kontrastatzea).

Bilera horietako batzuen esparruan edo hain zuzen ere horien ondorioz, Arartekoak lehen eskutik ezagutu ahal izan ditu politika publikoak eraginkor bihurtzeko plan, protokolo, estrategia eta bestelako proposamenak; horrez gainera, erakunde eskudunei iritzia eskatu ahal izan die egoera kezkarri jakin batzuen inguruan —arretaren premia duten behar gisa azaldu zaizkie—, eta esku hartzean ezinbesteko eskubideak bermatu behar direla zehaztu.

Politika publikoetan herritarren eskubideak hobeto babestu eta zaintzeko lankidetzak-ildo horretan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa Eskolako Bizikidetasunerako Behatzaile kide da (horrek partaidetza egonkorra dakar berekin), eta adin txikikoekin sarean segurtasuna eta konfiantza izateko kulturarekin konprometituta dauden eragile publiko eta pribatuaren Sareko kide ere bai. 2013. urtearen amaieran bukatu da honako ikerketa-proiektu hau: *Euskal Autonomia Erkidegoan babesik gabeko haurrekin jarduten duten eskola- eta gizarte-hezkuntzako profesionalen arteko harremanak ulertzeko modua*. EHUko Didaktika eta Eskola Antolaketa Sailak zuzenduta, bertan parte hartzen dute Euskal Herriko Gizarte Hezitzaileen Elkargoak eta Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Partzuergoak. Azken horren Aholkularitza Batzordean modu egonkorrean parte hartzen aritu da bulego hau, azken bi urteotan.

Ohiko ildoari jarraiki, oso harreman ona dugu herriaren **beste defentsa-bulego** batzuetako haur eta nerabeen sailekin, batez ere [Kataluniako Síndic de Greugesekoekin](#) eta [Andaluziako Herriaren Defendatzailekoekin](#). Horiekin maiz trukatzeko ditugu informazioa, irizpideak eta iritziak. Andaluziako Herriaren Defendatzailearekin haurren pobrezia buruzko lan-mintegi bat partekatu dugu aurrean (horren berri zehatzagoa eman dugu aurreko orrialdeetan).

3.

Ekitaldietan parte-hartzea

Hala elkarte eta erakundeekin izandako elkarlanaren esparruan, nola Arartekoak berak gidatu dituelako, Arartekoak berak edo erakundeko langileek adingabeen gaineko foro eta topaketetan esku hartu dute, bai gure erkidegoan eta bai gure erkidegotik kanpo. 2013n izandako parte-hartze esanguratsuenak, dokumentu honetan orain arte aipatu gabek, honako hauek izan dira:

- *Nola aurre egin immigrantei buruzko aurrejuzkuei eta zurrumurruei, gazteekiko hezkuntza-jardunetiki?* Bilbao.
- *Rainbow* material didaktikoak aurkeztea. Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián.
- *Gazteak desabantailaren bidean* jardunaldia. Vitoria-Gasteiz.
- CEAR-en *No te dejes enredar* kanpainaren aurkezpena. Bilbao.
- *Bizikidetzako VI. Jardunaldiak*. Bilbao.
- *Eskola inklusiboak eraikitzen proiektuen bidez* jardunaldia. Donostia-San Sebastián.
- *Haurren Eskubideen Batzordearen Hautazko Protokoloa* komunikazio-prozedura baten gainean. Bilbao.
- *Nerabeak eta balioak* Osasunari buruzko IV. Jardunaldiak. Mungia.
- *Gazteak eta gizarte-partaidetza*. Kultura aniztasuna kudeatzaren gaineko eztabaida Bizkaian. Bilbao.
- *Udalaren gizarte-zerbitzuetan haurrek artatzea* jardunaldia. Bilbao.
- *Eskola segurua* mintegia. Bilbao.
- *Lazos-Liens-Loturak* proiektuaren garapena aurkeztea. Vitoria-Gasteiz.
- *Adopzioa Profesionalen Topaketa*. Bilbao.
- *Familiako erantzukizun partekatua* jardunaldia. Bilbao.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako X. Foroa. *Gaiaren egoera, ikuspegiak eta iritzia zaintza partekatuen gainean*. Bilbao.

- *Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeria-
ren prebentzioa lantzeko planaren aurkezpena.* Bilbao.
- *Gazteentzako lokalak: Horien erabilpenerako eta giza bi-
tartekaritzarako udal jarduketak.*Jardunaldia. Bilbao.
- *Haurren Eskubideen Batzordearen Ohar Orokor berriak.*
Jardunaldia. Madril.
- *Adin txikikoak eta cannabis: droga-menpekotasunen
prebentzioa hackeatzen.* Topaketa. Portugalete.

4.

Hezkuntza-proposamenak

Azken bi urteetan jakinarazi dugu Arartekoak hezkuntza-
ren arloan afektibitate- eta sexu-aniztasuneko eskubideei
buruzko Europako bi proiektutan parte hartu du ([Europako
Batzordeko Justizia Zuzendaritzak](#) sustatu duen "Oina-
rriko eskubideak eta herritartasuna" izeneko erkidegoko
ekintzako programaren esparruan finantzatu dira proiektu
horiek): [Rainbow](#) (2011-2012)⁶ eta [Rainbow Has](#) (2013-
2014)⁷ proiektuetan, hain zuzen.

2013. urtean, proiektu horietako lehenaren, 2012. urtean
amaitu zenaren, emaitzak hedatu ditugu. Hala, 2013. urteko
lehen hilabeteetan, hainbat aurkezpen egin genituen Eus-
kal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan, lehen Rainbow
proiektuaren emaitzak ezagutzera eman, zabaldu eta azal-
du genizkion publikoari oro har, eta zenbait hezkuntza-era-
gileri bereziki. Topaketa horietan, hezkuntzaren esparruan
homofobiaren eta transfobiaren aurka lan egiten tresna pe-
dagogiko bat aurkeztu zen: adin desberdineko neska-mu-
tilei zuzendutako 8 film dituen DVD bat eta gida didaktiko
bat ikasgelan erabiltzeko. Gida horretan, jarduerak osaga-
rriak eta sakontze-jarduerak ere proposatzen dira. Mate-
rialak Euskal Autonomia Erkidego osoko ikastetxeetara eta
elkarteetara bidali da urtean zehar, eta gaur egun, arrakasta
handiz erabiltzen ari dira ikastetxe ugartan.

⁶ Proiektuaren inspirazioa den kontzeptuaren ingelesezko siglak ja-
sotzen ditu akronimo horrek: *Rights Against Intolerance: Building
an Open-minded World* (Intolerantziaren aurkako eskubideak: au-
rreiritzirik gabeko mundu bat eraikiz). Proiektu horren helburua da
homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko testuak eta
ikus-entzunezko materialak sortzea eta haurren, nerabeen, gaz-
teen eta irakasleen artean hedatzea, eta European pertsona homo-
sexualen eta transexualen eskubideak erabat errespetatzeko eta
aitortzeko kultura bat sortzea.

⁷ Rainbow Has izena ingelesezko sigla hauek osatutako akroni-
mo bat da: *Rights through Alliances: Innovating and Networking
Both Within Homes and Schools* (Eskubideak hitzarmenen bidez:
etxean eta eskolan sareak berritzen eta sortzen).

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatu-
tako Elkarbizitzari buruzko VI. Jardunaldietan ("Elkarbizitzeta
eta sexu- eta genero-aniztasuna" izenburua dute), Bilbon
2013ko apirilaren 10ean eta 11n egin zirenetan, proiektua-
ren emaitzak aurkeztu zitzaizkien Euskal Autonomia Erkide-
goko irakasleei.

2013. urtean abiatu zen Rainbow Has proiektua. Arartekoa da
proiektu horren buru, eta Europako 8 herrialdeko 13 erakun-
de koordinatzen ditu⁸. Proiektu horren helburua da eragina
izatea haurren eta nerabeen afektibitate- eta sexu-anizta-
sunerako eskubideen egoeraren azterketan eta hobekuntzan,
hezkuntzaren arloan zentzu zabalean. Hau da, horretarako,
hezkuntza-erakundeetara eta irakasleengana jo da, bai eta
edozein familia-elkartetara ere, haurtzarotik sexu-aniztasunari
irekia egongo den hezkuntza bat ziurtatzeko behar diren elkar-
tasunak lortzeko, sexu-joeragatiko edo genero-identitateaga-
tiko edozein bereizketa edo eraso mota prebenitzeko eta
eragozteko gai izango den hezkuntza bat bermatzeko, hain
zuzen.

2013. urtean, proiekturako proposatu ziren lan-ildo batzue-
tan aurrerapenak egin dira (lan-ildoei eta aurreikusitako
emaitzei buruzko informazio zehatzagoaren berri izateko,
ikusi [Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren urteko txostena
Eusko Legebiltzarrarentzako 2012, V.4. kapitulua](#)). Hala,
hainbat herrialdetan jarraitu beharreko diskurtsoei, beharrei
eta estrategiei buruz egindako landa-ikerketak eta -azter-
ketak amaitu ditugu, hezkuntzaren arloan estereotipoak eta
jarrera transhomofobikoak izatearekin lotuta.

Beraz, ikerketa egin den herrialdeetako testuinguruaren
azterketa dugu gure eskuetan, bai eta landa-azterketa
egin den herrialdeetako emaitzak ere. Landa-azterketetan
metodologia kualitatibo bati jarraituz aio. Elkarriketak eta
eztabaidak egin dira familiekin eta familien elkarteekin, eta
familia homoparentalen eta eraso homofobikoa edo trans-
fobikoa pairatu duten seme-alabak dituzten familien kasuak
aztertu ziren. Halaber, ikerketa egin den herrialde guztien-
tzako baterako dokumentu bat dugu. Emaitzak hemen aur-
ki daitezke: (<http://goo.gl/1ZkeLC>). Bereziki interesgarria da
Euskal Autonomia Erkidegoko testuingururako Euskadin
egin den landa-ikerketaren eta -lanaren emaitzak laburbil-
tzen dituen [dokumentua](#).

Orain arte egindako lanaren ondorio nagusiek adierazten
dute desberdintasunak daudela herrialde bakoitzaren be-
rezitasunen arabera, baina aditzera ematen dute "armai-
rutik ateratzeko" prozesua zaila izaten dela beti. Hala ere,
badirudi, elkartasun egonkorren edo ezkontzarako es-
kubidearen bidez, LGTB pertsonen eskubideak aitortzen
dituzten legeak dituzten herrialdeetan, erraztasun handia-
goz heltzen zaiola prozesu horri, eta horrek adierazten du

⁸ Euskadiz gain, beste herrialde hauek parte hartzen dute proiektu
honetan hainbat erakunderen bitartez (unibertsitateak, ikerketa
soziologikoko eta pedagogikoko ikerketa-taldeak, udalak, haur
hezkuntza sustatzeko elkarteak, LGTB pertsonen eskubideen
alde lan egiten duten elkarteak eta familia homoparentalen elkar-
teak): Alemania, Belgika, Bulgaria, Herbehereak, Italia, Polonia
eta Erresuma Batua.

legezko testuinguruak garrantzi handia duela ikerketaren emaitzetan. LGTB pertsonen lotutako gaiak eta sexualtasuna tabua dira oraindik familia-ingurunean. Hori dela eta, beharrezkoa da eskolak gai horiek lantzea berriazko programen bidez. Zerbait herrialdeetan badaude programa mota horiek. Zentzu horretan, praktika egokien sorta bat hautatzen ari dira, proiektuan parte hartzen duten herrialde guztiei emateko proiektu horien berri. Ikerketako beste gai garrantzitsu batzuk izan dira erlijioaren rola, neskatoen artean homosexualtasuna horren bistakoa ez izatea edo esparru horretan adopzioak duen garrantzia.

2013. urtean zehar, proiektuko parte-hartzaileen bi topaketa handi egin dira. Lehen Donostian izan zen otsailaren 21ean eta 22an, eta bigarrena, azaroan Londresen.

2014. urtean, proiektuaren aldi berri bati ekingo zaio. Lehen aipatu dugun bezala, proiektu honen oinarria da gizarte-hitzarmen handiak ezartzea, herritarren eskubideak bermatzeko lanean aurrerapenak egiteko: elkarteen munduaren eta erakundeen munduaren eta hezkuntza formalaren munduaren arteko hitzarmenak, gehiengoaren interesen ordezkaririk diren elkarteen (familien elkarteak edo ikasleen gurasoen elkarteak) eta gutxiengoaren eskubideak defendatzen dituzten elkarteen (familia homoparentalen elkarteak eta LGTB eskubideak defendatzen dituzten elkarteak) arteko hitzarmenak.

Hala, 2014. urteko helburua izango da hezkuntza-agintariek eta gai horrekin zerikusia duten gizarte-sektoreekin mintegiak antolatzea, gai hori landuko duen agenda politikoa bat sortzearen beharrari buruz eztabaidatzeko.

Era berean, prestakuntza- eta sentsibilizazio-lantegiak antolatuko dira irakasleekin, familien elkarteekin edo ikastetxeetako gurasoen elkarteekin. Horrez gainera, Europako sare bat sortuko da, jada badauden elkarte-egiturak oinarri hartuta, hezkuntzaren arloan ardura duten eragileek (politikari, hezkuntzan, komunikabideetan eta abarretan lan egiten duten langileak) kontzientziazioan eragina izateko agenda bat edo ibilbide-orri bat egitearen bidez eragin-estrategiak finkatzeko, eta neska-mutilen, nerabeen eta gazteen afektibitate- eta sexu-aniztasunaren eskubideen alde lan egiteko.

5.

Adingabeentzako web gunea

Eskubideen uhartea web-orria, 2011. urtetik abian dena, lehen hezkuntzako neska-mutilei zuzendutako web-atari bat da (6 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutakoa). Web-orri horrek bi helburu ditu: batetik, erakunde neska-mutilengana gerturatu nahi dugu, denek ezagut dezaten –ahalik eta modurik gertukoenean eta iristerrazenean–, giza eskubideen eta haurren eskubideen inguruan hitz egitean erreferente bat den aldetik; eta bestetik, neska-mutikoen artean haurren eskubideak hedatu nahi dira, bai eta gai horren inguruan neska-mutikoak sentsibilizatu ere.

2013. urtean, eduki hezitzaile berriak gehitu zaizkio web-orriari, esteka batzuk berri dira eta xede hori duen gunean jolas berri bat ezarri da. Hauek dira web-orriko atalak: *Itsasargia*, non neska-mutilek beren eskubideen berri izateko informazioa aurki dezaketen. *Botila* atalean, haurren eskubideen mapa jasotzen da, eta ipuin bizidunak eta liburu elektronikoak (e-book) ditu. *Zuzeko upelean* edo *SOS espazioan*, neska-mutilek informazio interesgarria aurki dezakete, baldin eta laguntza behar badute. *Arrainontzi* atalean, parte hartzera animatzen zaie, eta estekak eta jolasak daude horretarako. Azkenik, *Itsaspekoa* atala dugu, gurasoei eta oro har hezitzaileei zuzendutako espazio bakarra web-orri horretan.

Eskola 2.0. delakoaren Eskola Bakegunean sartuta dago gure web-orrirako esteka, eta horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako ikasle guztien eskura dago.

2013. urtean, web-orriak 27.000 bisita baino gehiago jaso zituen, eta aurreko urteetan gertatu zen legez, Haurren eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zen egunaren, azaroaren 20aren, urteurrenaren oroitzapenaren ondoko egunetan bisita ugari egin ziren.

Jolasak eta haurren eskubideei buruzko informazio zehatza jasotzen duten atalak bisitatu dira gehien, batez ere eskubide bakoitzari buruzko istorio eta ipuin bizidunak jasotzen dituen mapa dagoen atala.

Era berean, *Eskubideen uhartea* web-orria *Jar diezazkiegun irudiak eskubideei!!!* lehiaketaren publizitatea egiteko erabili den baliabideetako bat izan da. Neska-mutilentzat irudiak eta bideoak oso erakargarriak direla jakinda, proposamen bat egin diegu Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztiei, ikus-entzunezko materiala diseinatzeko eta egiteko lehiaketa batean parte har dezaten. Lehiaketa horren epea 2014ko urtarrilean amaituko da. Lehiaketaren helburua da Lehen Hezkuntzako ikasleek 6 eta 11 urte arteko neska-mutilak hartzaile izango dituen bideo bat diseinatzea eta egitea. Bideo horrek 10 minutu iraun ditzake gehienez, eta haurren eskubideei edo eskubide jakin bati buruz hitz egingo da bertan. Lanak *Eskubideen uhartea* web-orrian eta Arartekoaren youtube-ko kanalean argitaratuko dira lanak, eta talde irabazleak sari kolektibo hezitzaile bat jasoko du.



Haur eta nerabeen eskubideen egoera
baloratzea

a t a l a

V. Atala

Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea

Aurreko kapitulu guztietan aipaturiko problematika, premia, erantzun eta baliabide guztiak orri gutxi batzuetan biltzeak dakarren mugarekin, interes gorenekotzat dauzkagun hainbat alderdi nabarmentzeko asmoz heldu diogu atal honi, eta, kasuan-kasuan, txostena astiroago irakurtzera animatuko dugu.

2013an, 319 kexa-espeditetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %10,4tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (284): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (35), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertzeke eta horien bilakaera ikusteko. Ez dira zenbatu, baina kontuan hartzea merezi dute, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarekin zerikusia duten 883 kexak; ehuneko handi batean familiaren barruan adin txikikoak dituzten familiek azaldu dituzte kexa horiek. Horrela, pentsa genezake gutxi gorabehera beste 236 kexa-espeditetan agertzen direla tartean haurrak eta nerabeak, guztiak baliabide ekonomiko urriko egoeran.

Hezkuntza arloari dagokionez, lehenbizi esan behar dugu eztabaidatik libre geratzen ez den egoera batean kokatu gaituela EAEko hezkuntza administrazioak adierazi duen asmoak: hain zuzen, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organiko berriari (LOMCE) aurre egitea eta, horren orde, hezkuntza-eredu pedagogiko propioa sustatzea, "Heziberri 2020" abian jarrita.

Hala, ez dakigu zein izango den datozen hilabeteetan egoera berri honen ondotik jasoko ditugun kexek izango duten eragina. Dena den, gure asmoa hauxe da: aldaketa berri

honek gure erkidegoko hezkuntza-sisteman izan dezakeen benetako eragina ezagutzeko jarraipen bat egitea.

Hala ere eta proposatu dugun egiteko hori alde batera utzita, azken urte honetan izapidetutako kexen ondotik gure hezkuntza egoeraren hainbat alderdi kontuan hartu ditugu eta horiek aipatzea beharrezkoa iruditu zaigu:

Hala, adibidez, ikasleen onarpenerako prozesuei buruzko kexak beste urtebetez errepikatzeak dakar erakunde honek hezkuntza administrazioari egindako gomendioa indarrean jarraitzea, prozesu horren kudeaketa modu arduratsuan jorra dezan, plaza nahikoak ez dauden kasuetarako aurreikusitako lehentasunezko irizpideak modu zentzudunean aplikatuz.

Horrez gain, gure ustez, garrantzitsua da eskolatzeko batzordeak haien zeregina egiten jarrai dezaten animatzea alegia, lehen aldiz gure hezkuntza-sistema baliatzen duten ikasle etorkinei ahalik eta integrazio normalizatuena ematen lortzea. Dena den, beste batzuetan egin dugun moduan, gailendu nahi dugu, proposamenak egiterakoan, batzorde horiek bermatu behar dutela ikastetxeen finantzaketa baldintzek eta eskola-garraio, -jantoki eta -materialerako familiei ematen zaizkien laguntzek bidea eman behar dutela herritar guztiek unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztietarako sarbide unibertsala eduki dezaten.

Hezkuntza-plangintzari dagokionez, zailtasun handienek zero eta hiru urteko hasierako tartean egoten jarraitzen dute, batez ere, bi urteko gelen eskaintzan. Erakunde honen ustez, eremu defizitario horietan beharrezkoa da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta eragindako udalek, bakoitzak esleituta dituen eskumenak baliatzean, bidezko ekimenak aurrera eramanez ditzaten plazen inguruko egoera defizitario horiek berbideratzeko eta, hala, estalduraren ehuneko onartutako plangintzaren erreferentziatik gertu dauden indizeetan koka dadin.

Horrez gain, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sail berria animatu nahi dugu abiarazitako ildotik lanean jarrai dezan -hots, eskola komunitateko ordezkari guztien partaidetzarekin plangintza demokratikorako bidea eman dezan-.

Azken urteetan antzeman dugu lanbide heziketako irakas-kuntzen eskari handiagoa dagoela. Hori krisi ekonomikoaren egungo egoerari lotuta dagoela uste dugu. Horregatik, eta beste txosten batzuetan dagoeneko adierazi dugunez, uste dugu egungo eskaintza handitzeko bidea eman dezaketen aukera guztiak agortzen saiatu behar dela eta, hala, goimailako ikasketetarako sarbidea bideratu, gure gazteak lanmerkatuan sar daitezen errazteko.

Halaber, krisi ekonomikoaren egungo egoeraren ondotik hainbat hezkuntza-eragilek eskola-jantokiaren zerbitzuan jazozen ari diren egoera batzuk nabarmendu dituzte. Hainbat familiari eragiten die. Izan ere, adingabeak dituzten familia horiek ezin dituzte kuotak ordaindu, beken deialdi orokorraren esparruan urtero-urtero iragartzen diren jantokiko laguntzen onuradun izango direla uste badute ere. Gure iritziz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egoera hori kontuan hartuta jantokiko laguntza horiek kudeatzeko moduan hainbat aldaketa sartzeko aukera jorratu beharko luke.

Kontsumo arduratsua egiteko premiaren inguruan kontzientziatu eta elikagaien eralgiketa murrizteko azken urteotan izandako herritarren elkatasun-mugimenduak positibotzat jo ditu erakunde honek. Hortaz, uste dugu ez dela alde batera utzi behar proposamenak aztertzeo aukera; adibidez, eskola-jantokikoetako elikadura-hondakinen kudeaketa bultzatzeko (hondakinok berrerabil eta dohainik kontsumi daitezen).

Eskola-garraioari dagokionez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradun berriek iragarritako proposamena, egungo zirkularraren edukia berrikustekoa, gure iritziz, herritarren eskariei erantzuna emateko aukera bat izan daiteke. Adibidez, Zuian, hilabeteak dira hauxe eskatzen dutenetik: aukera berdintasuna landa eremuan bizi diren ikasleentzat.

Horrez gain, ezgaitasunen bat duten ikasleentzat zerbitzu hori nola ematen den aztertzeo unea hauxe izan daiteke, ustezko bereizkeriari buruzko kezak berriro jazo ez daitezen.

Joan den urtean eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategiakoa abian jarri zela ikusi genuen. Une hartan uste genuen plan horren ebaluazio eta jarraipenaren bitartez kezak hizpide izandako ikasle jakinen egoeraren ondotik ikasle horiei ematen zaien hezkuntza-erantzuna hobetuko zela. Halaxe gertatu da gaitasun handiko ikasleen kasuan, baita arreta faltaren nahasmenduak eragindako ikasleen kasuan ere.

Zenbait kasutan egin dugun jarraipenak eta sektorean lan egiten duten elkarte batzuek adierazi dizkiguten kezak aintzat hartuta gailendu behar dugu lanean jarraitu behar dugula ikasle horientzako egindako hezkuntza-orientazioak geletako egunerokoan jazo daitezen.

Jakina, gogoeta horiek aurkeztu berri den *Baterako hezkuntzarako eta hezkuntza-sisteman genero indarkeria prebenitzeko gida* planean gehitu nahi ditugu.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu, berriz ere, eskola-elkarbizitzaren gainera gida berrien aplikazio sistematiko eta eraginkorra sakontzeko premia dagoela, tratu txarren egoeraren diagnosi zuzena egiteko, biktimei laguntza, babesa eta segurtasuna emateko eta eragindako familiekin konfiantzazko eta komunikazio oneko harremana mantentzeko xedeak bete eta xede horiei behar bezalako erantzuna emateko.

Jakinda **familiak** publikoki babestea pertsonak bere giza garapenean laguntzea, beren banakako eskubideak eta gizarte eskubideak erabat lortzen laguntzea esan nahi duela, gainera gehien behar dutenak bereziki babestuz (adingabeak, adindunak, gaixotasunak edo mendekotasuna duten pertsonak), erakunde honen ustez, **familiei babesa ematea estrategia publiko saihestezin bat da gizarte-estatuari eusteko**, eta horrek esan nahi du, **krisiaren testuinguruan**, inoiz baino gehiago, **familia-politikak inbertsio publikorik onenak direla, gizarte-kohesioa bermatzeko eta garai hauek horrenbeste mehatxatzen dituzten pobrezia eta gizarte-desegituraketa prebenitzeko**.

Gogora ekarri nahi dugu familien esparruan lan egitea ez dela laguntza publikoen edo diru-laguntzen politikak gauzatzea soilik (batez ere seme-alabak edo mendeko pertsonak izatearekin lotuta, bai eta lanbidea eta familiako bizitza bateratzea babestearekin lotuta ere...), baizik eta kultura-, gizarte- eta ekonomia-aldaketa sakonak bultzatzea ere badakarrela, gero eta gehiago gainera, eta aldaketa horiek familien beharrak gure ekonomia-jardueran erabat sartzeko ikuspuntu berriak ireki behar dituztela. Botere publikoek pentsamoldeak aldatzeko prozesuen buru izatera deituta daude, zainketaren, etxeko lanen, atsedenearen, aisialdiaren, giza harremanen, borondatezko edo ordaindu gabeko beste gizarte-partaidetza mota batzuen beharrezkoa espazioa, derrigortua -bai eta balio nagusia ere- aitortzera bideratutako prozesuen buru izatera, hain zuzen.

Familiako bizitza eta lanbidea bateratzeko gaia kezka handi bat da familientzat, baina, oro har, eragin handia du gizarte- eta ekonomia-antolaketa batek bere osotasunean arrakasta izateko. Gero eta beharrezkoagoa da, batez ere krisi-garaietan, gure denbora antolatzeo planteamendu global berriak nabarmentzea. Planteamendu berri horien bidez, lanak gure bizitzan duen nagusitasuna zalantzan jarri behar da, eta lanbide bati eusteko aukera eman behar dute, aldi berean behar pertsonalak eta familiako beharrak artatzeko nahikoa denbora utziz.

Babes gabeko egoeran dauden haurrentzako **gizarte-zerbitzuen** esparruan jasotako keza gehienak, haurtzaroaren zerbitzuek emandako balioztatzearekin ados ez dauden gurasoek jarri dituzte. Balioztatze horien bidez ondorioztatuta da guraso horien seme-alabak babesik gabe daudela, guraso-agintea eten zaie eta foru-erakundeak bere gain hartu du haur horien tutoretza. Guraso horien ehuneko handi batek Arartekora jotzen du, haurren edo nerabearen babes gabeko egoera eta haurra edo nerabea babesteko neurria zehazten duen foru-aginduaren aurkako errekurtsoa epaitegietan aurkeztu ondoren. Horren ondorioz, gur ezin dugu ezer egin kezaren sustatzaileen eskaera nagusiari dagokionez. Hala ere, eskaera horrekin batera, balioztapen-, jakinarazpen- eta informazio-prozesuarekin zerikusia du-

ten beste gai batzuk ere heltzen zaizkigu, eta horietan esku hartu dugu. Aipatu gai horietan, oro har, ez dugu hauteman administrazioak jarduketa okerrik egin duenik.

Kexa horiek aztertu ondoren, deigarria gertatu zaigu ikusteak babes gabeko egoera bizi duten haurren kasu gehiago izan direla aurten, non balioztapen-tresnak tratu txar psikologiko eta, are zehatzago, gurasoen arteko gatazketan manipulazio gisa definitzen duenari dagokionez pairatzen zen babes gabeko egoera hori. Kexa horiei gurasoetako batek aurkeztutakoak gehitu behar zaizkio. Kexa horietan, batez ere, argudiatzen dute aita edo ama horren bikotekide ohiak mutikoaren/neskatoa ustez modu arduragabea zaindu duela; epaiketaren bidez ezarritako neurrietan finkatutako harreman- eta komunikazio-erregimena ez duela errespetatu; beste aitak edo amak mutikoarekin/neskatoarekin harremana izatea eragozten diola, haurrak sufrimendu handia sentitzen duela argudiatuz, etab. Kexa horietan kezka-elementu bera, zalantzarik gabe, gurasoen arteko harremanean gatazka handiko hausturak gertatzen diren bitartean eta gertatu ondoren haurrek eta nerabeek pairatzen duten sufrimendu psikologikoa eta emozionala da. Hala ere, ezin dugu ahaztu egoera horietan adingabeak gurasoekin harremana izateko duen eskubidea arriskuan jartzen dela.

Hori dela eta, beharrezkoa da helduen arazoak seme-alabei eragina izatea, edo are okerrago oraindik, manipulatzearino haurrak gatazkan inplikatzeko eragozteko neurrietan aurrerapenak egitea. Zentzu horretan, komenigarria litzateke epailearen instantziak nahiz administrazioek hitzarmenaren eta bitartekaritzaren kultura sustatzea, gurasoei laguntzeko banantzen elkarri errespetatuz, haurren eta nerabeen interes gorenari zainduz eta interes horri lehentasuna emanaz. Xede horretarako jada badauden zerbitzuak gehiago erabiliz eta Haurren Eskubideen Batzordeko 2013ko maiatzeko 13 zenbakidun Ohar orokorarekin, adingabearen interes gorenari buruzkoarekin, bat, eskubide, printzipio eta prozedura horrek eskatzen du uneoro hartuko diren erabakiak haurren ongizatean eta garapen fisiko eta emozionalean zer eragin izango duten aztertzea eta balioztatzea banaka. Horrez gainera, mutiko/neska bakoitzari ezinbestean entzutea eskatzen du. Beraz, ahalik eta prestakuntza onena duten profesionalak behar dira, eskubide horiek gertatzen diren esparru guztietan bermatzeko (esparru judizialean, gizarte-zerbitzuenean, hezkuntzakoan, osasungintzakoan...).

Gizarte-zerbitzuen esparruko beste elementu bat ere aipatu genuke, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egungo egituraketarekin zerikusia duena. Orain da gizarte- eta hezkuntza-prestazioak eta -zerbitzuak zehazteko aukerarik onena, batez ere lehen mailako arretaren esparruan, gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak adierazten duen izaera komunitarioarekin eta prebentziozkoarekin. Horrek berekin dakar denbora luzean finkatutako eta 3/2005 Legetik eratorritako haurren babes gabeko egoera kontzeptua gainditzea, pobreziako, ahuldadeko edo bazterketa izateko arriskuko egoeretan edo haurrak arriskuan eta/edo kaltetuta ateratzen diren gatazka komunitarioetan esku-hartzea indar eta koherentzia handiagoz aintzat hartzeko. Aurreko urteetan bezala, berriz esango dugu ezin eskertuzko balioa duela zailtasun hasiberrietan lagun-egiteak, esparru naturalean eta komunitarioan, haurrak eta nerabeak garatzen diren ongizate- eta kohesio-baldintzen gainean, esku hartzeak, eta

kalterik larrienak argi eta garbi desaktibatu edo murrizten dituela.

Babes gabeko egoeran dauden haurrentzako harrera-egoitzen baliabide-sarean aldaketak gertatzen ari dira oraindik, hasiera batean etengabe aldatzen diren beharretara egokitzeko, eta guk egiaztatu ahal izan dugun bezala, gero eta gehiago, egoitza horiek arautzen dituen 131/2008 Dekretuaren eskakizunak kontuan hartuta egiten diren ikuskatze-prozesu hasiberrien ondorioz. Aurrerapen horiek aitortu ondoren, ordea, deigarria iruditzen zaigu baliabide gehiegitan hezkuntza-taldeetako profesionalen profil profesionalekin eta prestakuntzarekin lotutako betekizunak behar bezala ez betetzen, are gehiago, kontuan izanda aipatu dekretuak 4 urteko epea eman zuela, langileek ezarritako betekizunetara egokitzeko.

Bakarrik dauden adingabe etorkinen kasuan, iaz emantzipazio-prozesuak behin eta berriz errepikatzen bagenituen, aurten argitaratutako gomendioak, *Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak* izenekoak, sakon eta luze aztertzen ditu beste bi une bereziki arriskutsu: 1) parte hartzen duten herri-administrazioek haiek aurkitu eta abegi egiteko unea, eta une horrekin lotuta, prozesuan parte hartzen duten eragile, zerbitzu eta organismo guztien arteko beharrezko koordinazioaren eta lankidetzaren garrantzia; eta 2) Abegian eta, Fiskaltzak adindunak direla ebazteko emandako dekretuaren ondoren, berehalako arreta, zaintza, egoitza abegia edo tutoretza etendakoan, dagozkien bermeak eta eskubideak betetzea. Adingabeak aurkitu eta abegi egiteko uneari dagokionez, urteak daramatzagu eskatzen bakarrik dauden adingabe atzerriarren presazko abegi-protokolo bat egitea eta onartzea, 131/2008 Dekretuak xedatzen duena. Beharrezko hitzarmena lortzeaz geundela zirudienean, indarrez sartu da estatu-mailako protokoloa gure artean, eta autonomia-erkidegoko protokoloaren behin betiko idazketa berriz gelditu du, protokolo hark zer-nolako egoera deskribatuko duen zain.

2013. urtean, adingabe horiek oso kexa gutxietan hartu zuten parte, eta kexa horiek ezaugarri bera zuten: desberdintasun handia zegoen fiskaltzaren dekretuan, adina zehazteko probak (aurkitu zituzten unean agiririk gabe egoteagatik) egin ondoren, adierazitako adinaren eta haurrak/nerabeak abegi hartuta zuen umeen foru-zerbitzuen kudeaketen bidez haurren/nerabearen jatorrizko herrialdeetako administrazioan lortutako dokumentazio ofizialean aitortutako adinaren artean. Kexa horietan bi alderdi nagusi azpimarra ditzakegu: 1) beharrezkoa da egoera bakoitza banaka aztertzea, beharrezkoa balitz Probintziako Fiskaltzari irizpide bereziak ezartzeko eskatuz eta erabat pareka ezin diren egoeretarako irizpide orokorrak automatikoki aplikatzearen ondorio negatiboak gaindituz; 2) Probintziako Fiskaltzaren erabakia, adingabetasuna zehazten duena, ontzat hartuta, haurrak babesteko zerbitzuek haurren tutoretzari eta arreta osoari atxikitako betebeharrak gauzatu beharko dituzte, inolako salbuespenik gabe, baita haurrak administratiboki legezatzeko eta defendatzeko helburua dutenak ere, bere interesekin zerikusirik ez duen jarduketa edo erabaki baten ondorioz kalteak erator dakizkion kasuetan. Edonola ere, erakunde honek 2006. urtean azaldu zuen irizpide hori.

Aisialdi eta jolas jardueri dagokienez, gazteen lonjak sarria gertu dira Arartekoaren jardueran 2013. urtean. Nerabeen eta gazteen taldeek merkataritzako lonjak biltzeko eta aisialdirako lokal gisa erabiltzea gure udalerrietan indarra hartzen ari den errealitate bat da. Hala ere, nahiko berria den fenomeno horrek eztabaida ugari sortu ditu: aisialdiko jarduera horrek ingurumen-kontrolarekin, erai-kinetako segurtasunarekin eta lokal horiek behar dituzten arriskuen prebentzioarekin behar bezala bat datorren ala ez. Lonja horien erabiltzaileen, jabeen, lonjen ondoan bizi diren auzokoen eta tokiko administrazioaren eskura gai horren inguruko irizpide eta printzipio orokor batzuk ezarri eta jartzeko azken helburuaz, Arartekoa ofiziozko espediente bat egiten hasi da. Horren bidez, gazteen aisialdiko jarduera hasiberri horren gizarte- eta zuzenbide-testuinguruari buruzko eta jarduera horrek eragin ditzakeen arazoak kontrolatzeko udalek dituzten aukerei buruzko informazioa bildu nahi da.

Eskolako kirolaren esparruko kexek elementu bera izan dute 2013. urtean: kirol-eskaintza diseinatzean eta kirolaren praktika antolatzean genero-berdintasuneko irizpideen aplikazioa oraindik eskasa izatea.

Osasunaren esparruan eta osasan mentaleko arazoak dituzten neska-mutilen arretari dagokionez, nahiz eta motel bada ere aurrerapenak egiten ari diren errehabilitaziorako bitartekari-egituren horniduran, eta pixkanaka erkidegoko arreta-eredura gerturatzen ari garen, haurrentzako eta gazteentzako eguneko ospitale gutxi daudela ohartu gara, batez ere Araban.

Nortasun-nahasmendua duten pertsonen arretari dagokionez (ehuneko handi batean nerabeak eta gazteak dira), neurriak hartu dira eta urrats garrantzitsuak eman dira, hala nola nerabeen eta programa berezien unitatearen sorrera. Hala ere, oraindik kezkatuta gaude, gure osasun-sistemak autonomia-erkidegoko mailan nahasmendu horiei heltzeko muga handiak dituelako. Hori dela eta, azpimarratzen dugu beharrezkoa dela 2009. urtetik proiektatuta zegoenaren ezaugarri berak dituen eguneko ospitale bat abian jartzea. Ospitale hori egiten ez den bitartean, ezinbestekoa da beste bide batzuk aintzat hartzea eta aplikatzea, hala nola bidebatzea, hitzartzea eta gastuak itzultzea.

Aurrerapenak egin dira kronikotasunaren estrategiako hainbat ildotan, eta laguntza jarraitua bermatzeko helburua dutenen artean hauek azpimarra ditzakegu: *erakunde sanitario integratuak* delakoen sorrera, laguntza-orriak egitea, eskumen profesional berriak sartzeko eta laguntza-jarraitutasuneko planak erabiltzea. Aitzitik, beste gai batzuen inguruko lanak pixka bat moteltzen ari dira, hala nola jaioberriak bahetzeko programaren handitzea buruzko aurreikuspenen gauzatzea eta lehen mailako linfedema (eskuarki haurtzaroan garatzen dena) duten pertsonen arreta.

Mendekotasuna duten neska-mutikoek dituzten zailtasunak, funtsean, ez dira mendeko pertsonen kolektibo osoaren zailtasunen oso desberdinak. Estatu-mailan, autonomia pertsonala eta mendekotasun-egoeraren arreta sustatzeko politiken garapenak atzera egiten jarraitzen du. Horrez gainera, esparru horretan izugarri murriztu da gas-tu publikoa, eta horren ondorioz, Estatu Administrazio Orokorrak gutxieneko babes-mailari ematen zion ekarpena

nabarmen txikitu da. Autonomia-erkidegoek babes-maila osagarriak ezartzeko ahalmena dute, eta kasu honetan, foru-aldundiek erabiltzen dute ahalmen hori. Horri esker, neurri batean, estatuko erabakien ondorioa arindu ahal izan da, baina ezinbestekoa da gure herri-administrazioen gizarte zerbitzuak garatzeko apustu erabakigarria denbora zehar zabaltzea eta arreta eta hobekuntza etengabea areagotzeko ibilbide horren oztopatzea eragozteko. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio- eta zerbitzu-saila arautzeko dekretuaren onespina eta dekretu horretako baldintza jakinak aukera ezin hobea izango dira autonomia pertsonalaren sustapenerako eta mendekotasunaren babeserako eskubide subjektiboa gauzatzeko.

2013. urtean, aipatu sail-dekretuan aintzat hartutako zerbitzu baten inguruko interesa agertu dugu. Zerbitzu horrek bereziki du eragina neska-mutikoengan: laguntza goiztiarrerako zerbitzua. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak laguntza goiztiarrerako eredia onartuta, bazirudien komenigarria zela bere ezarpen- eta garapen-maila ziurtatzea. Ondorio nagusi gisa esan dezakegu urrats garrantzitsuak ari direla ematen lehen aipatutako erudian jasotako proposamenen eta aurreikuspenen gauzatzean. Zenbait proiektuari bultzada eman zaie, eta badirudi proiektu horiek laguntza goiztiarra bultzatzen lan egiten duten eragile guztien interesa pizten hasi direla. Proiektu horietako bat da, esate baterako, PAINNE delakoa (Premia bereziak dituzten haurrei arreta osoa emateko prozesua), eta bere bereizgarrietako batzuk dira, besteak beste, prebentziozkoa eta jasagarria izatea, eta behar adina araudiz hornitzeko egin duten lan handia eta lortu duten erakundearen babesa.

Espero daiteke hemendik gutxira dekretua onartzeak arautu egingo dituela balioespen organoen eraketa eta funtzionamendua, jarduketak eta profil profesionalak, eta era berean, laguntza goiztiarra garatzen izugarri lagunduko duela, diziplina artekotasuna, arreta jarraitua eta eragilean, zerbitzuen eta erakundearen arteko baterako lana bermatuz. Kontuan izanda orain arteko lortu dugun informazioa, bai jarduketa honen esparruan, bai gizarte zerbitzuen sistemako prestazio- eta zerbitzu-zorroari buruzko dekretua nola egiten zen jarraitzean, ziurtatzen dugu 0 eta 6 urte arteko haurrei zerbitzu horretan sartzeko eskubidea aitortuko zaiela, inolako salbuespenik gabe, eskatu dugun bezala.

Hori gertatzen den bitartean, komenigarria litzateke azpimarratzea beharrezkoa dela familiei nahikoa informazio eta laguntza goiztiarrerako sarbidea izateko behar dena ematea, aintzat har daitezkeen edozein sarbide-puntutan (laguntza goiztiarreko edo espezializatueta osasun zerbitzuetan, ospitaleetan, udal edo foru gizarte-zerbitzuetan, ikastetxeetan eta abar). Era berean, erraztu egin behar da gaixoak beste organismo eta zerbitzu batzuetara bideratzeko, eta beste organismo eta zerbitzu batzuetara sartzeko prozesua. Laguntza goiztiarra baloratzeko talde (EVAT) gisa eraturia jada edo balioespen eta orientazio talde gisa eraturia, jada errealitate bat izan beharko litzateke ikuspuntu osoa eta *diziplina anitzeko begiratuak* aintzat hartzen dituen balorazioen bilaketa. Ziurtatzen den arte, aurreranzko pausoak ematen jarraitu beharko da laguntza goiztiar pribatuetan esku-hartzeko zerbitzuen kalitateko arreta ezagutarazten eta bermatzen, zerbitzu horien gehiengoa baitira. Horrez gainera, hobetu egin behar da hainbat sistemak eta

zerbitzuek ematen duten laguntza, oraindik sarri gertatzen diren gainjartzeak eta hutsuneak saihestuz.

Pobrezia pairatzeko arriskuan dauden adin txikikoei dagokienez, 2013. urtearen hasieran aurkeztutakotako datuek, baina jada Bulegoaren 2012ko txostenean jasota zeudenez, ohartarazten zuten krisiak gero eta euskal neska-mutil eta nerabe gehiagorengan duela eragina. Nahiz eta adierazle guztiek, pobrezia-arriskuaren berriazko adierazleek nahiz pobrezia-aren hainbat alderdiren isla direnek, adierazten duten egoera ez dela horren larria Espainiar estatuko beste gizarte-errealitate batzuekin alderatuz gero, baita egia da azterketan ikusten zela adierazleen zati handi bat narriatzen edo okertzen hasia zela, eta horrek ondorioztarazi zigun, besteak beste, egoera kezagarritzat jo ez daitekeen arren, adi egon behar garena gerta daitekeen bilakaera negatibo baten aurrean.

Arartekoa buru izan duten ekimenen bidez edo partaide izan garen ekimenen bidez, gu ere adi egon gara eta eragile publikoentzat eta pribatuentzat eskatzen guren egoeraren jarraipena egin dugu. Horrek hau adieraztera garamatza, modu ia telegrafikoan baina erabatekoan:

1. Familiak babestea estrategia publiko saihestezin bat dela gizarte-estatuari eusteko, eta horrek esan nahi duela, orain inoiz baino gehiago, familiak babesteko politikak (eta horien artean sartzen ditugu kasu honetan eta modu berezian diru-sarrerak bermatzeko politikak) inbertsio publiko onena direla, gizarte-kohesioa bermatzeko eta pobrezia prebenitzeko.
2. Azpimarratzen dugu prebentzio-jarduketek balio handia dutela esparru guztietan. Jarduketa horiek, larritasun handiagoko egoeretan esku-hartzearen kostu ekonomikoa, langileena eta soziala saihesteaz gain, gizarte-garapenari eta -kohesioari laguntzen diote zalantzarik gabe.
3. Halaber, politika konpentsatzaileak sendotzeko garaia ere bada, ezin baitugu ahaztu krisiak bereziki eragin negatiboa izan duela jada ahuldade-egoeretan zeuden pertsonengan eta taldeengan. Adituek eta ikerketek esaten duten bezala, *krisiak lehenago eragiten die, gogortasun handiagoz, denbora luzeagoan eta ondorio kaltegarriagoekin eta iraunkorragoekin* gizarte-desabantailako egoeran dauden pertsona eta talde horiei.
4. Beharrezkoa da, jada luzamendu handirik gabe, pobrezia-aren aurkako estrategia, plan edo tresna bat sortzea, pobrezia-egoeran bizitzeko arriskua duten edo pobrezia-egoeran bizi diren haurren kopurua murrizteko eta haur horiei laguntzeko ekintza espezifikoak eta eraginkorrak ezarriko dituenak.

Hala ere, Andaluziako Herriaren Defendatzailearekin batera egin guren mintegian ondorioztatu guren bezala, *ahulenari eman behar zaio lehentasuna. Etorkizunean inbertitu behar da, gizarte-justiziako gai bat da.*

Gainerako kapituluetan, haurrek gizarte-sareak arduraz erabil ditzaten lanean jarraituko dugu, gizarte-sareen berrikuntzaren eta indar izugarriaren arteko oreka eta pertsonen eskubideen bermea bilatu nahian.

Adingabeen fiskaltzekin eta oro har sistema judizialarekin batera lan egiten jarraituko dugu, zuzenean (biktima, lekuko edo erasotzaile gisa) edo zeharka sistema judizialarekin harremanetan jartzen diren haurren eskubideak babesteko eta bermatzeko.

Hipoteka betearazteagatik nahiz errenta ez ordaintzeagatik etxerik gabe geratzen diren haurren oinarrizko ostatu-beharrak bermatzeko jarduketei erreparatzen jarraituko dugu.

Arartekoak funtsezkotzat jotzen du haurrekin eta gazteekin lan egitea eskolaren eta elkartearen esparruan, txiki-txikiak direnetik sexu-joeraren eta genero-identitatearen aniztasuna erabat onartzen duen hezkuntza bat eraikiz. Horretarako, oso balorazio positiboa ematen diogu administrazioak hezkuntzaren esparruan aurrerapenak egiteko ematen ari den bultzadari.

Beste urte batez, amaitzeko, haurren eskubideen gaineko gizarte-kontzientzia indartzeko eta hedatzeko dei bat egin nahi dugu. Egia da duela urte batzuk baino handiagoa dela, eta hori dela eta, poztu eta zoriondu egin behar gara. Hala ere, egiteko asko dago oraindik, bai plano orokorrean (eskubideen hedapena) bai zenbait jardueren gaineko kontzientziazioan (zigor fisikoa, tratu txarrak, sexu-erasoak...). Haurren eskubideak eta adingabearen interes gorenaren printzipioak eskatzen dute ikuspuntu hezitzaile bat hartzea eta haurrekin eta nerabeekin egin beharreko edozein esku-hartze bideratuko duten lehentasun batzuk ezartzea. Hori dela eta, herri-administrazioak bultzatu behar ditugu, gizarte-sentsibilizatzeko eta haurren eskubideak sustatzeko beren ekimenak egiten jarrai dezaten eta ekimen horiek indar ditzaten.

Halaber, berriz nabarmendu behar ditugu Haurren Eskubideen Hitzarmeneko 12. eta 13. artikuluko, edo gauza bera dena, **iritzia emateko eta informazioa jaso eta emateko iritzia**. Berriz ere animatu egin nahi dugu **partaidetza errealeko eta** egonkorreko bideak, bide horiek gauzatzeko denborak, mekanismo egokiak, metodologia erakargarriak eta abar eratzten aurrera egiteko, adingabeak beren bizitzak kaltetzen dituen esparruetan parte hartzen dutela bermatzen dutenak.



Eranskinak

W

a

a t a l a

VI. Atala

Grafikoak

(1. grafikoa)

Kexen banaketa, adingabearekiko
harremanaren arabera24

(2. grafikoa)

Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa,
gai-esparruaren arabera24

(3. grafikoa)

Ofiziozko espedienteen banaketa, gai-esparruaren
arabera24

(4. grafikoa)

Baztertutako eta tramiterako onartutako
kexen ehunekoa25

(5. grafikoa)

Baztertutako kexak: baztertzeko arrazoiak25

(6. grafikoa)

Alde batek eskatuta bideratutako kexa-
espedienteen banaketa, diruz urri dabiltzanen
gutxi gorabeherako kopurua barne hartuta49

Arloko araudia

Hezkuntzarako eskubideari dagokionez:

- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, hezkuntzarako eskubidea arautzen duena.
- 2/2006 Lege Organikoa, 3 maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzalkitatea hobetzeko (LOMCE).
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebehari buruzkoa.
- 19/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzeko dena.

Haurrak eta nerabeak babesteari dagokionez:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 238/2010 Dekretua, irailaren 14koa, Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzari buruzkoa.
- 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.
- 424/2013 Dekretua, urriaren 7koa, gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzkoa.

A) Babesik gabeko haur eta nerabeen gainean:

- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adin Txiki-koen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea Partzialki Aldatzekoa.
- 54/2007 Legea, abenduaren 28koa, Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.
- 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko.
- 114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena eta, aldi berean, Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzaileen kreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 28ko 263/2003 Dekretua aldatzen duena. (Dekretu hori aldatu du 245/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, adingabeen adopzioan foru-aldundiek jarraitu beharreko jarduna arautzen duen Dekretua aldatzen duenak.)
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituena.
- 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.

B) Ezinduta edo mendekotasun egoeran dauden haur eta nerabeei buruz:

- [26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa](#), araudia Desgaitasuna duten Pertsonen buruzko Eskubideen Nazioarteko Konbentziora egokitzeko.
- [51/2003 Lege Organikoa, abenduaren 2koa](#), ezinduen aukera berdinerako, bereizkeriarik ezerako eta erabile-rraztasun unibertsalerakoa.
- [39/2006 Legea, abenduaren 14koa](#), autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- [20/2012 Legegintzako Errege-dekretua, uztailaren 13koa](#), aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak buruzkoa.
- [1050/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa](#). Horren bidez arautu da Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarri zen gutxienezko babes-maila.
- [1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa](#). Horren bidez arautu dira Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko Legean ezarri ziren Autonomiarako eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemaren prestazioak.
- [2013ko uztailaren 25eko ebazpena, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Estatuko Idazkaritzarena](#). Horren bidez argitara eman da Gizarte Zerbitzuen Lurralde Batzordeak eta Autonomia eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemak gai hauetaz onartu duen Akordioa: irizpide komunak, gomendioak, mendekoak diren edo izateko arriskuan dauden hiru urtetik beherako haurrei osoko arreta emateko planen gutxienezko baldintzak, 2012ko ekitaldiari dagokion ebaluazioa (Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aplikatzearen ondorioak ebaluatzen dira bertan).

Osasunari dagokionez:

- [14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa](#), Osasunari buruzkoa.
- [33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa](#), Osasun Publikoari buruzkoa
- [8/1997 Legea, ekainaren 26koa](#), Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- [41/2002 Legea, azaroaren 14koa](#), informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena (9.3 artikulua: 12 urtetik aurrera entzuna izateko eskubidea).
- [2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa](#), sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa (13.4 artikulua: haurdunaldia borondatez etetea baimentzeko eskubidea).
- [16/2012 Legegintzako Errege-dekretua, apirilaren 20koa](#), Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta bere prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriak buruzkoa.

- [175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa](#), Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena.

- [114/2012 Dekretua, ekainaren 26koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoa.

Zigor-arloko erantzukizunari dagokionez:

- [5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa](#), adingabeen erantzukizun penala arautu duena eta lege hauek aldatu dutena: [7/2000](#) eta [9/2000](#) Lege Organikoak, abenduaren 22koak; [9/2002 Lege Organikoa, abenduaren 10ekoa](#); [15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa](#); [19/2003](#) eta [8/2006 Lege Organikoak, abenduaren 4koak](#).
- [1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa](#). Horren bidez, [5/2000 Lege Organikoaren Araudia](#) onartu da.
- [163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- [80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa](#), askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko ikastetxeei buruzkoa.

Familia-erantzukizunari eta haren osotasuna babesteari dagokionez:

- [Abenduaren 12ko 13/2008 Legea](#), familiei laguntzeko.
- [1/2008 Legea, otsailaren 8koa](#), Familia Bitartekaritzakoa.
- [255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa](#), seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.
- [124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa](#), Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena. Honen bidez aldatu dena: [239/2011 Dekretua, azaroaren 22koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena.
- [177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa](#), familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.
- [154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa](#), familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa.
- [246/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa](#), Bitartekariaren Erregistroari buruzkoa eta erregistro horretan inskribatzeko egiaztatu beharreko familia-bitartekaritzako prestakuntza zehazten duena.

- [1618/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa](#), elikagaien ordainketa bermatzeko funtsaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa⁹.
- [15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa](#). Horren bidez aldatu zen Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa. Araudi horrek, besteak beste, haurrei dagozkien neurriak ezartzen ditu arlo hauetan: etxeko indarkeria, adin txikikoak galbideratzeko delituak eta haurren osotasun fisiko eta psikologikoen kontrakoak.
- [1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa](#), genero-indarkeriaren aurkako erabateko babesari buruzkoa.

⁹ Horren xedea da banandutako gurasoen seme-alaba adingabeek diru-kopuru bat hartuko dutela bermatzea —aurrerakintzat hartzen da—, familia-unitateak haien premiei aurre egin ahal izan diezaien, obligaziodunak ordaindu beharreko elikagaiak ordaintzen ez dituela eta.

Arartekoaren argitalpenak

Txosten bereziak

- *Kalabozoek. Ertzaintzaren eta udalen atxiloteta egoitzak.* 1991.
- *Psikiatrikoak. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera.* 1992.
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993).* 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994).* 1994.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995).* 1996.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera.* 1996.
- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak.* 1997.
- *Adin txikiko lege-hausleak.* 1998.
- *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan.* 1999.
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn.* 1999.
- *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo.* 2000.
- *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna.* 2001.
- *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan.* 2002.
- *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn.* 2003.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna.* 2003.
- *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn.* 2003.
- *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak.* 2005.
- *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn.* 2005.
- *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna.* 2006.
- *Bizikidetzeta eta gatatzak ikastetxeetan.* 2006.
- *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn.* 2007.
- *Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa.* 2008.
- *Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak.* 2008.
- *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.* 2009.
- *Adingabekoei balioak transmititzea.* 2009.
- *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin.* 2009.
- *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan.* 2010.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera.* 2010.
- *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa.* 2011.
- *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak.* 2011.
- *EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa.* 2011.
- *E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea.* 2013.

Urteko txostenak

- Liburukiak: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013.

Arartekoaren gomendioak

- **Gomendioak** 2002, 2003, 2004.

Bestelako argitalpenak

- **Idatz arauak / Normas de redacción.** 1992.
- **Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia.** 1993.
- **Esanak eta eginak / Dichos y hechos. Juan San Martín, Arartekoa.** 1994.
- **XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo.** 2000.

Faksimilak

- **Jaquin-bide Iritarautia** - 1820. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- Gaioren **Institutionum.** 1992. (Gaztelaniazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- Aita Frantzisko Vitoriakoaren **De indis insularis. De iure belli.** 1993. (Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Valentín de Forondaren **Cartas sobre la policía.** 1998. (Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea).
- Miguel de Lardizábal y Uriberen **Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias.** 2000. (Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Manuel de Lardizábal y Uriberen **Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma.** 2001. (Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Xabier Maria Muniberen **Discursos inéditos.** 2002.
- Rita de Barrenechea eta beste emakume batzuk. **Catalin y otras voces de mujeres en el siglo XVIII.** 2006.

«P. Francisco de Vitoria» Giza eskubideen saila (bekadunen lanak)

- E. J. Ruiz. **El derecho al ambiente como derecho de participación.** 1993.
- M. Á. Encinas. **Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991).** 1994.
- G. Varona. **La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos.** 1994.
- A. Bergara. **Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean.** 1996.
- M^a J. Fernández de Landa. **El control interinstitucional en la Unión Europea.** 1996.
- I. P. Sánchez. **Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV.** 1998.
- J. Morquecho. **Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión.** 1999.
- G. Moreno. **Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto.** 2003.
- A. Olarte. **Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad.** 2006.
- B. Sicilia. **Derechos fundamentales y Constitución Europea.** 2006.
- J. Zarauz. **Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular.** 2007.
- I. Mujika. **Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi.** 2007.

«Francisco de Vitoria» Giza eskubideen bilduma

Hausnartzeko eta parte hartzeko foroak

- **Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak.** 2007.
- **Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan.** 2008.
- **Cannabisa. Erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak.** 2011.

Jardunaldiak

- **Eskubide sozialen egungo egoera.** 2008.
- **Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean.** 2009.
- **Eskubide sozialak krisi garaian (CD-ROM).** 2012.

«Juan San Martín» Giza eskubideen bilduma (bekadunen lanak)

- J. M. Septién. *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. 2006.
- A. Bacigalupe, U. Martín. *Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean*. 2007.
- J. L. Fuentes, T. L. Vicente. *Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak*. 2007.
- F. J. Leturia, N. Etxaniz. *Adinekoen eskubideak eta tratu desegokiaren prebentzioa*. 2009.
- I. Orbegozo, A. I. Pérez, L. Pego. *Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari*. 2009.
- A. Gozalo, E. Jiménez, L. Vozmediano. *Adingabeak edo atzerritarrak? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gainekoa*. 2010.
- M. Arnos, M. Mazkieran, A. Arnos, S. Luciani, A. Villalón, A. Otaegi. *Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2011.
- Farapi: Ana Beatriz Rodríguez Ruano, Oihane García Santiago, Amaia Benito Pumarejo, Araitz Rodríguez Gutiérrez, Nerea Elías Muxika, Begoña Pecharromán Ferrer. *Aplicación de los derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco* (CD-ROM). 2012.

Material didaktikoak

- G. Azkarate, L. Errasti, M. Mena. *Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak* (Bigarren Hezkuntza). 2000.
- Zenbait egile (IPE). *Gure eskubideak* (Lehen Hezkuntza). 2001.
- E. Acero, I. Mier. *Giza eskubideak jokoan* (Bigarren Hezkuntza). 2001.
- Mugarik Gabe. *Sortuz / Generando* CDa. 2004.
- Ikasleen lanak. *Gure eskubideak / Nuestros derechos*. 2004.
- *ZiberBullying-a. Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa*. 2008.
- *Leihoak. Abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN. Gozatu Internetez... Sarean erori gabe*. 2008.

«Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma

- *El derecho a la no discriminación por motivo de raza*. 1997.
- *Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario*. 1998.
- *Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores*. 1999.
- *Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos*. 2000.
- *Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos*. 2001.
- *Derechos humanos y nuevas tecnologías*. 2002.
- *La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos*. 2003.
- *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro*. 2004.
- *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia*. 2005.
- *Arartekoa: XXI. menderako Ombudsmana*. 2006.
- *Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealtatea?* 2007.
- *Osasun mentala eta pertsonen eskubideak*. 2008.
- *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak*. 2009.
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean*. 2010.
- *Gaixotasun arraroak: arreta publikoa behar duen errealtate baten argi-itzalak*. 2011.
- *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta enpresa pribatuek interes orokorreko zerbitzuak egitea* (CD-ROM). 2012.
- *Pertsonen eskubideak babestea finantza-erakundeekin dituzten harremanetan* (CD-ROM). 2013.



aRarteko

Herriaren Defendatzaila
Defensoria del Pueblo

www.ararteko.net